# Sagastiberri

NO literatur lehiaketa





# POESIA

JONE ZUAZO

OIER ZURUTUZA

ION MUÑOA

MIREN RUBIO

MIREN BERAMENDI

AMAIA ARANZETA

MAITANE GABIRIA

ALOTS ARREGI

ITXASO PAYA

OLATZ IBARLUZEA

EKIÑE ARISTIZABAL

Eibarko Hezkuntza Esparrua
943.20.27.48
20600 EIBAR

# irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNO

# literatur lehiaketa 2003

LAN SARITUEN BILDUMA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

ibarko Hezkuntza Esparrua
943.20.27.48
20600 EIBAR

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

**Urruzuno Literatur Lehiaketa (18.a. 2003)**
Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketa 2003 : lan sarituen bilduma. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003
or. ; cm. – (Sagastiberri)
ISBN 84-457-2034-1
1. Euskal literatura - XX. mendea - Lehiaketak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua
891.69"19"(064.3)

Argitaraldia: 1.a, 2003ko abustua

Ale-kopurua: 2.600

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Prestatzaileak: Iñaki Iturain, Joxe Miel Odriozola eta Iñaki Artola

Azala: Jesus Iturriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Rali, S.A.
Particular de Costa, 8-10. 48010 Bilbao

Inprimategia: Estudios Gáficos Zure, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 A Erandio-Goikoa. Bizkaia

ISBN: 84-457-2034-1

Lege-gordailua BI-2165-03

# AURKIBIDEA

**Hitzaurrea** ........................................ 7

**Artistaren gaztetako portreta** ...... *Tere Irastortza* ............... 11

**Prosa: A maila**

Fefe ......................... *Jon Fernandez San Martin* ..... 19
Maitasuna eta fidelitatea; egon litekeen binomiorik arriskutsuena *Sandra Sanchez Rabadan* ...... 33
Dr. Rose ..................... *Miren Rubio Iturria* ........... 43
Mundu hobe baten bila .......... *Irati Mañeru Igoa* ............ 55
Amets gorriak .................. *Nahia Idoiaga Mondragon* ..... 65

**Prosa: B maila**

Puntu ta komak garagardo aparretan *Alots Arregi Izagirre* .......... 79
Mendian gora haritza ............ *Lierni Esnaola Aldanondo* ...... 93
Oroitzapenetan galduta .......... *Aintzane Zubeldia Iturralde* ..... 101
Idazle izan nahi dutenei ......... *Juan Atxutegi Sarrionandia* ..... 109
Hantxe lokartu nintzen .......... *Olaia Arbelaitz Sarasola* ....... 117
Erantzunen ebasleak ............ *Nerea Vieco Ramos* ........... 125

**Poesia: A maila**


Ene auzoa ..................... *Jone Zuazo Uriarte* ........... 137
Zuri begira ................... *Oier Zurutuza Arin* ........... 143
Orainaren hitza da geroa ........ *Ion Muñoa Errasti* ............ 149
Kristalezko leihoak ............. *Miren Rubio Iturria* ........... 155
Ezinaren malkoa edo
ezjakintasunaren negarra? ...... *Miren Beramendi Britt* ......... 161
Iraultza ...................... *Amaia Aranzeta Zubeldia* ...... 167
Aitona ....................... *Maitane Gabiria Mauleon* ...... 175


**Poesia: B maila**


Paperezko hegazkinak biribil
ezabatuan .................. *Alots Arregi Izagirre* .......... 183
Belaunpe konprimituetako autobus
geltokiak ................... *Alots Arregi Izagirre* .......... 187
Ez dut esnatu nahi ............. *Itxaso Paya Ruiz* ............. 191
Gizarte mamia ................ *Olatz Ibarluzea Santisteban* ..... 197
Une aproposa ................. *Olatz Ibarluzea Santisteban* ..... 203
Pairatzeak ikaratu ala ikara pairatu? *Ekiñe Aristizabal Tolosa* ....... 209
Hegoak ebaki banizkio zeruari,
ez zen urdina izango .......... *Alots Arregi Izagirre* .......... 215

**Urruzunotarrak 1986-2003** ............................ 219

# HITZAURREA

Urruzuno literatur lehiaketak hemezortzi urte bete ditu oraingoan. Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Hirurehundik gora dira dagoeneko horrelako "titulua" lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatur izenetan. Kimu loratuak haiek, kimu berriak liburuan barrena dastatuko dituzunak, irakurle, baina kimu eder ihartu bat ere aipatu nahi dugu oraingoan. Urte hauetan guztietan Jose Mari Satrustegi euskaltzaina izan dugu bidelagun Urruzuno lehiaketan. 1986an liburu honetan gaur aurkezten ditugunek titia edaten zuten garaian hasi eta iaz arte izan dugu Epaimahaikide zintzo eta leial Joxe Mari. Bere profesionaltasunaz gain berezkoa zuen giza balioa kutsatzen zigun Arruazukoak. Belaunaldi gazte hauen lanetan, hizkuntza mailan, oparotasunean, barne balioetan jarrita zituen Joxe Marik etorkizunerako itxaropenak. Iazko Sagastiberri liburuaren sarrera berak idatzi zigun eta horrelakoak utzi dizkigu bertan idatzita:

– *Ni galtzen banaiz norbaitek aurkituko nau*, esan zuen urak; *ni nagoen tokian hezetasuna bada eta berez dator landarea.*

– *Ni galtzen banaiz kea nirekin doa eta noizbait aurkituko naute,* zioen suak.

Ura eta sua dira guretzat Joxe Mari bezalakoak, eta arrasto garbia utzi digutenez ziur gaude beraiek ereindakoak segida izango duela.

Urtero bezala, goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Hauen lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Eta zuk, Urruzunoko parte hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko, zergatik ez? Topikoa litzateke orain esatea “saiatu berriro”, eta topiko erdiarekin nahikoa da “saiatu” besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Tere Irastortza<br>Manu Lopez Gaseni<br>Mª Jose Olaziregi

Miren Agur Meabe
Josu Lartategi

Gogoeta moduan aipatu nahi dugu lehen aldiz Epaimahai honen osaeran emakumezkoak gehiago direla gizonezkoak baino. Horrek, dudarik gabe, zer esan nabaria du. Parte hartzaileen artean ere neskak nabarmen dira mutilen aldean (386 neskak eta 210 mutilak). Euskal letretan eta oro har euskal gizartean emakumeak azken urte hauetan egiten ari diren ibilbidearen seinale garbiak, dudarik gabe.

Parte-hartzeari dagokionez, 2003. urte honetan 596 lan jaso dira: A mailan 165 prosan eta 70 poesian; B mailan, berriz, 293 hitz lauz eta 68 olerkian.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan sari guztiak eman dira lau atal horietan eta hainbat aipamen ere egin ditu epaimahaiak. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

– Irailean 10 egun inguruko bidaia (Gales-Eskozia)
– Bidai poltsa norbere gastuetarako: 250 €.
– Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.
– Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.

Liburua eskola guztietara eta parte hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurten Hondarribiako Talaia institutua eta Alegiako Aralar institutua. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2003ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi.

Besterik gabe sartu gaitezen orri horixka hauen artean. Bertan, gazte, aurkituko dituzu zu bezalakoak. Ez zure modukoentzat besteok, helduok alegia, idatzitakoa. Ez, hemen ez dira horrelakoak; bere gordinean, erpinak leundu gabe, gauzak diren bezalakoak aurkituko dituzu, freskoak, freskoak, oso freskoak: batzuetan ilunak eta beltzak, besteetan alaiagoak, batzuetan kezkatiak, beti urduriak. Ez al dira horrelakoak zure gaurko egunak? Eta zuk, irakurle heldu horrek, dasta ezazu gazte hauei darien freskotasun andana. Kalterik ez, on ugari eta gure belaunaldi berriak hobeto ulertzeko ezinbesteko tresna duzu Sagastiberri.

**Euskara Zerbitzua**

# ARTISTAREN GAZTETAKO PORTRETA

Tere Irastortza

James Joyceren lan hau aipatuz hasiko naiz. Badakizue, Joyceren izena aipatze hutsarekin literarioago ematen du inolako ihardunak. Aipatu, arrazoi askorengatik aipa genezake James Joyce: bizi ahal izateko sorterritik atera behar izan zuelako, eta, hala ere, bere nobela guztietan sorterriaz ziharduelako, esate baterako; bere liburuak idazteko –eta argitaratu ahal izateko– urte asko behar izan zituelako; Irlandan bere liburirik argitaratu ez zutelako, edo... oso liburu zailak idatzi zituelako, askotan. Baina Urruzuno sarien harira aipatzeko arrazoia, buruan dabilkidan galdera hau duzue: zein ote den euskal *artista gaztearen portreta.*

Liburu hartan Joycek erabaki zail batekin zedarritu zuen gaztearen portreta: hain zuzen ere artista izateko erlijio-gizon egingo zuen bideari uko egiteko erabakiarekin. Litekeena da Urruzuno sarira aurkeztu zaretenon artean, batzuk-batzuk erabaki hori hartua izatea, hartua ez baduzue, hartzeko izatea. Litekeena da, Stephen Dedalusek bezala, artista izateko bidean langa gabeko sail eta soroetan barrena abiatu nahi izatea, eta Stepheni gertatu zitzaion bezala, artista izateko, hurrenez hurren, eliza, herria eta familiatik urruntzeko erabakia hartu izana ere.

Liburu honetara bildu ditugun ipuin eta poemak irakurtzean ez nezake, ordea, zuen erretraturik osa. Ezin dut nolako etorriko zareten asmatu. Egia da zailagoa dela etorkizuna igartzea, ezen eta ez, James Joycek egin zuen bezala, iragana asmatzea eta birsortzea.

Gaztetasuna gaztetasun, hala ere, antzematen dizuet halako urruntasun airerik, askotan euskal orriei darienaren antzerakoa, beti eta etengabe moderno izateko ahalegin nekaezinari dagokiona, inolaz. Zuen lanak erreferentzia modernoz hornituak datoz: pertsonaien izenak, geografia

urbanoa, giroa. Soineko eta oihalik modernoenaz aurkezten dituzue lan ederrok. Baina, berdenboran, beldur naiz –zenbaitek auzo eta herriaz diharduzuen arren– modernotasunaren ertz hori ez ote den ari euskal literaturaren aje bilakatzen, euskal literatura gaztearen indar-lerro eta ajeak ez ote diren zahartxo. Soineko eta apaingarri horiek ez ote duten jantzi hainbat estaltzen garena eta ezin izan garena, gure txikitasunean, gure euskaldun izatean.

Euskal literaturaren historiak erakusten du garaian garaikoa izatea aldarrikatu nahi izan duela idazleak; hala kateximak eta liburu moralak idazten zituztenek nola poesia surrealista eta ipuinik fantastikoenekin batera, orain arbuiatzen duten ideologiaren baten aldeko literatura programatikoa egin zutenek. Jakina da joera honek lotura zuzena duela euskararen egoera diglosikoarekin. Onartzen dut Etxeparek "Euskara jalgi hadi plazara" aldarrikatu zuenetik euskal idazlea derrigor sentitu izan dela atzerritar bere literaturan, erreferentzia gehienak erdal literaturetakoak zituelako, eta, nola ez, euskara kultua sortzeko ahozkotasunetik urrundu beharrean izan delako. Kontua da, bitartean, ahoa itxi dietela euskal herritarrei, arlotekerian ez aritzeagatik. Onartu behar dizuet, kontrakoa egin duten askok ere ez dutela bete-betean asmatu, euskararen biziraupena eta morala zaintzen egindako ahaleginak, askotan zaildu egin dutela euskal literatura irakurtzea bera.

Euskal artista gazteok, ez ote duzue oraindik petxa horren zama zuen gainean? Zuen erretratoa egiterakoan, eta azken 40 urteotako literaturan, ez ote gara ari beti gabezia horren gainetik jauzi egin eta amildegia handitzen, handitzen? Galdetzen dizuet, euskaraz irakurtzen al duzue, estimatzen al duzue idatzi den euskal literatura, saiatzen al zarete hemengo erreferentziak ere erabiltzen? Ez naiz hogei

galdera egiten entretenituko zoriontsuen herrian euskal literaturarik ez dagoela erantzun behar badidazue... ni euskaldun (idazlea) naiz eta harro nago, baina gure moderno izan behar horretan ez ote gara irakurlerik gabeko literatura idazten ari? Euskal erreferenterik gabeko literatura izan ote liteke euskal literatura, euskaraz idazten bada ere? Mundu globalizatu honetan ez ote gabiltza beti bide berriak urratzen, nora gabe hainbestetan?

Dagoeneko ia egingo nituen hogei galdera eta ez naiz zoriontsu eta dohatsuen herrira oraindik iritsi, baina aberkoi, atzerakoitzat har ez nazazuen, bederen, beste konparazio bat jarri behar dizuet.

Gure garaiok behar duten inarrausialdia adinako beste garai bateko gizon baten adibidea jarri behar dizuet. Gizon hura ale bakana zen bere garaian: Antony van Leewenhoek duzue. 1632an jaio zen, garagardo egile familiakoa. Bizimodua ateratzeko, aita hil baitzitzaion, ikasketak utzi eta oihal merkatari batekin hasi zen lanean. Merkatari haiekin ikasi zuen oihalen ezaugarriak aztertu eta salneurri egokia jartzeko handitzeko, aumentuko tresnatxo bat erabiltzen. Artean gaztea zenez eta oihalez gain natura ere interesatzen zitzaionez, lentearen azpian beti oihalak jarri ordez erle, goroldio eta eltxoak aztertzeari ekin zion. Hainbestekoa izan zen bere afizioa, non bizimodua nolabait ziurtatu eta mikroskopioak egiten hasi eta 1673an bidali zuen Royal Society-ra bere aurreneko gutuna. Latinez ez zekienez, hasieran ez zen oso aintzat hartua izan. Baina afizionatu, autodidakta hari zor diogu zientzia aurreratu izana, hain zuzen ere, liburuetan "orduko zientzia" ikasten pasatu behar zituen orduak bere lentepean burura etortzen zitzaion guztia jarriz "zentzuz" eta tentuz jokatu zuelako, eta orduko jakintsuen esanetara bizi izan ez zelako.

Hala guk ere. Gure begi aurrean dugun edozein gauza eraman behar dugu fikziora, errelatura, poesiara. Ez du derrigor atzerriko literaturan patentatua izan behar. Ez du derrigor oraingo latina dakitenen galbahetik iragazia behar. Hein berean ez dago zertan, horregatik, literatura kostunbrista eta moralista eginik... baina gure lenteak bilatu beharrean gaude. Izan ere –eta hau da azken galdera– euskal literatura ez ote dabil galdu xamar bere lenteak aurkitzen ez dituelako?

Eta hona ezkeroz, amaitzeko, bi aipu ekarri nahi dizkizuet gogora. Lente eta ikusmenaz aritu naizenez, aurrenekoa, "Santo Tomasen egiaz" Urruzunok adierazia:

"Sinismena illa baldiñ
Nai badezu piztu
Lenengo ikusi ta
Ondoren sinistu"

Bigarren aipamena, Itxaro Bordaren hitzok, ziurrenera zer hausnartu emango dizuena. Itxaro Borda, euskal poetarik modernoena eta herrikoiena zentzu askotan, honela mintzo da euskal etxeaz, jo dezagun, Euskal Herriaz:

"Euskaldun bakoitzak hiru etxe mota datxizka bihotzaren barnean: etxe erreala, etxe amestua eta etxe galdua".

Euskal literatura ere izan dadila zuentzat, guztiontzat, etxea eta albait etxerik amestuena eta etxerik errealena, eta maiteminez eta gertutasunez, bertan sosegu hartzeko modua egin dezazuela idazle gazte eta berriok, eta Sisifo ez bezala, ez gaitezela betiko aje eta harrietara estekatuak geratu.

**Tere Irastortza**

# PROSA. A maila

Batxilergoak

Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Fefe

Jon Fernandez San Martin
Ondarroa-Lekeitio institutua
Ondarroa

Felipe Fernandez ez zen kalean pertsonei begietara begiratzen zien horietakoa. Ez zirudien kaleko segundo oroko detaile txikietan erreparatzen zuenik. Gizon hark bazituen beste hainbat kale, detailez beteriko bere buru barruan, bazuen beste mundu bat bere barnean, eta kanpokoa ez zitzaion axola. Nolabaiteko autistatzat hartzen zuten herritarrek, sentimendurik agertzen ez duen eskeleto soil gisa.

"Nike" urdina zuen txaketa gorri batek janzten zuen egunero ia bi metro zituen soina. Txaketa hura bost hatz eta erdi galdutako arotz baten eskuarekin konta zitekeen aldietan kendu zuen. Eroso lo egiten zuen krokodilo berdea ikus zitekeen bere itsaso urdinean. Jertse haren pean preso zegoen alkandora higatuak inoiz gutxitan ikusi zuen kaleko eguzkiaren argia. Gutxienez bakoitzak hogeita bost urte zituen eta elkar trabatuz hegalak gorritzeko ohitura zuten hanka pare hura "Levis" berri batzuek estaltzen zuten. Lurreko txindurriek hain beldur handia zieten berrogeita zortziko oin zapaltzaile biek mokasin ilunak zeramatzaten.

Marina kafetegira sartzen zenean bere aulkia eta mahaitxoa bere zain hutsik zeudela egiaztatzen zuen. Goizero joaten zen kafetegi hartara gosaltzera eta hantxe erosten zuen egunero egunkaria. Eskuetan hartu eta, likatsu, krak egiten zuen croissanta jaten zuen, kafesne batekin lagunduta. Mahai gainean, justu-justu kabitzen zen egunkaria paratzen zuen eta, lehenengo, bere gosaria irensten zuen. Hiru mahai haratago zegoen gizon langabetu haren txakurrak kontu handiagoz jaten zuen jabeak lurrera botatako oliba hezurra. Gosaria irentsi ostean taza eta platertxo hutsa mahaitxoan bigarren plano batean kokatzen zituen, lehenago egunkaria zegoen tokian. Egunkaria eskuetan hartu eta zabalduta, tabernarekiko harresi gisan, tabernako gizartearengandik arroztuz, bere burua letra zuri-beltzen atzean ezkutatzen

zuen. Pare bat ordu ematen zituen bere gerra erdiko babes postura hartan. Tabernako populazio ugariaren artean begi bakar bat ere ez zen nekatzen gizon handi eta zakar hari zuzentzen. Hasierako "nor da?", "ze arraroa den", "inoiz hitz egin al du?" horiek egunero errepikatzean ahitu egiten dira, eta ordurako aspaldi ahituak zeuden gizon hari buruzko galdera guztiak. Gizon hura Felipe Fernandez zen, eta kito! Ez zegoen ezer gehiago esan beharrik.

Egunkariaren atzean igarotako ordu bietan zehar letrei bata bestearen atzetik jarraitzeaz aspertuta, egunkaria mahai gainera egin zuen eta azken aldeko orrietatik zabalduz txaketa granateko poltsikotik ateratako bic batekin hutsuneak betetzeari ekin zion. Zerbitzariari botatako begirada hotz batez beste kafesne bat eskatu zuen, segituan begiak berriz ere letretara bueltatuz. Deskuiduz ere ez zuen begia egunkariaren laukitxoetatik altxatzen, kasualitatez norbaitekin sastatuko zelakoan agian. Idazten jarraitu zuen. Dagoeneko hamaiketakoen txandan, bigarren kafesnea mahai gainean, taberna beteago eta iskanbilatsuago izanda, Felipek jendearen burrunba aprobetxatu zuen bere isiltasuna are gehiago isolatzeko. "Eskerrik asko etortzeagatik" jartzen zuen paperezko musuzapi bat hartu bere mahaitxo gainetik eta bica haren gainean dantzan jarri zuen; oraingoan begirada altxatuz, alegiazko beldurren gainetik, inor ez zuela begira egiaztatzeko eta ondoko mahaitik altxa ziren senar-emazteek berotutako aulki hutsei mespretxuz begiratuz, tabernako bat-bateko barre algarei jaramonik egin gabe. Eta, gero, idazten jarraitu zuen. Geratzen zitzaion kafesne apurra zurrupatu eta bekain biak bat eginda, haserre antzean, idatzi berritako papertxoa tazaren plater azpian zanpatuz, alde egin zuen Marinatik, inor agurtu gabe.

Zerbitzariak, mahaia jasotzean, papertxoa tazapetik askatu zuen. Eta euskaraz "bi tortilla" eta "hiru trago" soilik ulertzen bazuen ere idatzitakoa irakurri zuen.

*"Bost eternitate daramatzat egunkariaren atzean.*
*Kafe hotz bat dut aliatu bakarra.*

*Taberna zuloa bitxi-denda bihurtu da,*
*bat-batean.*
*Harribitxi garestiena dakusat irribarre artean.*
*Ezin dut nire begi itsuen norabidea aldatu.*

*Traizioa! Ezkotuak alde egin dit,*
*egunkaria lurrean da.*
*Matxinada! Kafe hotzak ere lurrera alde egin dit.*

*Mahai azpira makurtu naiz,*
*traidore biok berreskuratu nahian.*

*Hemendik ere harribitxia dakusat,*
*bitxia.*
*Harribitxiak prezioa du,*
*garestia.*
*Jada erosi du beste giza haragi batek.*

*Ni txiroa naiz,*
*baina*
*badaukat beste bost eternitatez*
*mila malko neureganatzeko lain."*

Felipe Fernandez, eguerdira arte beste zereginik ez, eta kaleak betetzera dedikatzen ziren gizon jubilatuen artean ibiltzen zen bera bakarrik. Horrela, udaberriaren antza hartzen duten martxoko goiz-eguerdi eguzkitsuetan portu aldean galtzen zen. Bere burua portuko iskanbilan murgilduta sentitzea gustatzen zitzaion, nahiz eta gustu hori kanpotik

ez erakutsi. Begiak existitzen ez zen puntu batean jarri eta ez zituen handik kentzen. Baina bere tronu isolatu hartatik agian begiratu ez arren, hainbat gauza ikusten zituen. Begiratu gabe ikustea ez da erraza, baina Felipek egiten zuen. Gizon zaharren eta plazako usoen arteko hartu-emana ikustea gustatzen zitzaion. Horixe zen maitasuna. Usoak ez bezala Felipek ez zuen gizon beltzak ikustea atsegin, beltzak zirelako agian, ilunak, edo agian beste barik ez zituen atsegin izango, gauza asko zituen beste barik desatsegin Felipek. Jendeari begietara begiratzea adibidez, edo hotz izatea, edo telebista ikustea, edo beste zerbait, beltzak ikustea kasu. Gainera zurien herri hartan beltzak gero eta gehiago ziren, bost zuriko beltz bat ikusten zuen gutxienez, ez zuen atsegin, eta errua itsasoari egozten zion, itsasoak ematen zielako jaten beltz etorkin gehienei. Beltz koadrila bat ikustean, tripak eskuetan, etxerantz joaten zen Felipe. Etxean ez zuen beltzik ikusiko eta.

Etxean sartu eta atea bizkarrean ixten zitzaionean, begirada existitzen ez zen puntu hartatik eraitsi eta lasaitu egiten zuen. Aske uzten zuen, ikusiz gain begiratu ere egiteko. Etxean sartu eta, lehenengo, sukaldera sartzen zen. Pauso geldoan. Giltza-txorta eskuetatik askatu baino lehenago irratia pizten zuen, lantzean behin bere txistuarekin irratiari abestiak desafinatzen lagunduz. Etxean eroso ibiltzea gustatzen zitzaion, eta laster kentzen zituen arropak etxera heltzean. Bere gorputz iletsua ia biluzik ibiltzen zen etxean zehar. Galtzontzilo zuri batzuk, bi astean behin erosten zuen pare berria, eta barruko kamiseta zabal bat, zuritik baino horitik gertuago. Ez zuen telebistarik ia ikusten, baina bere ez ikusteko erabaki hura erabaki zentzuzkoa zela egiaztatzeko behin edo behin bizten zuen. Biztu zuen, bada, egun hartan, eta lehenengo agertu zen saioan homosexual bikote bat el-

karri euren maitasun itsua deklaratzen ari ziren, elkar maite zutela lau haizeetara zabalduz. Felipek mandoa hartu eta beste botoi beltz bat zapaldu zuen amorruz. "Marikoiak!" hasi zen. "Edonon daude!" jarraitu zuen, ez zuen homosexualik begi aurrean ikusi nahi. Baina kalean gizon bat ikusi eta homosexuala den edo ez ez jakiteak gehiago berotzen zuen. Homosexualak ere beltzen zerrenda berean zituen. Beltzak, marikoiak, telebista, hotza... ez zituen atsegin. Gotor gorroto zituen. Telebista hurrengo egunerako eguraldia iragartzen hasi zen. Eguraldi ederra omen: "Eguzki biribila izango dugu bihar" esan zuen emakumeak irribarre ezin faltsuagoz. Felipe berriz ere ernegatu eta telebista itzali zuen. Hegal batean itsaskina zuen horri horia hartu, idatzi eta hegala telebista itzalian itsatsi zuen. Irratia entzutera abiatu zen segituan sukaldera. Telebistaren mandoak egunen batean irakurtzen ikasi izan balu zera irakurriko zuen telebistan itsatsitako mandatuetako paperean:

*"Eguzki (biri) bila*

*Gaur goizean, irratian,*
*eguzkia ez dela biribila*
*entzun dut."*

Sukaldera joanda, eguerdia izaki, irratia entzuteaz gain, janaria ere egiten zuen. Ez zen puntako sukaldaria, baina moldatzen zen. Suaren azpiko tiradera ez zuen, ez, alferrikako gauzez betea. Hantxe gordetzen zuen janaria. Bertatik atera eta mikrouhin-labera. Eguerdi hartan ere, ohiturari eutsiz, betikoa bazkaldu zuen. Latako esparragoak hasteko, latako mutxilloiak eta, azkenez, latako berberetxoak. Ez zegoen hain gaizki, apur bat berotuta ederrago zeuden gainera. Baina astean behin jatetxe batera joaten zen, tripa ganoraz betetzera. Etxetik alde egin eta bakarrik bizitzera

joan zen lehenengo aldian, gaztetan, “jana ordainduko duzu!” esaten zion amak. Arrazoi zuen, ordaindu ordaintzen baitzuen, eta ez merke gainera.

Bazkariaz bapo, eta platera jada hurrengo otordurako mahai gainean garbitu gabe utzita, ohe gainean etzaten zen. Ohea desegin gabe. Eguneroko siestatxoa. Etxeko zapatilak kendu gabe egiten zuen lo. Lo edo erdi lo. Arratsalde hartan ere auzokoak ez zion lasai lo egiten utziko. Hiru egunean behin-edo izaten zen iskanbila auzokoarenean. Bere logela justu auzokoarenaren ondoan zegoen eta haren zarata guztiak entzuten zituen. Marinan entzuna zuen, urruneko elkarrizketa batean, bere auzokoak emagalduak eramaten zituela etxera egun-argitan. Felipek hitzez ez eze, belarriz ere egiaztatua zuen hori. Oheak hormarekin jotzean egiten zuen hotsa entzuten zuen. Emagalduak ofizioz egiten zituen garrasiak ozen entzuten zituen, baita auzokoaren plazerezko aieneak ere. Eskandalu hutsa izaten zen. Etxe-barruko guztiak enteratzen ziren bere auzokoa larrutan ari zela. Kondoia zakiletik noiz kentzen zuen ere entzuten zuen Felipek. “Putakume alua!” ernegatzen zen. “Zer uste du! Emagaldu koitaduak etxera ekarriz!” bere baitan esaten zuen, haserre antzean. “Horrek ez daki zer den maitasuna!... beti sexua erosiz!!”. Haserretu edo urduri jartzen zenean boligrafoaren bila hasten zen. Mesanotxean zuen, paperaren ondoan. “Putaseme alua! Ez du bihotzik!”. Papertxoan hitz batzuk idatzi eta boligrafoa paperaren gainean utzi zuen. Jarraian, armairutik belarriak estaltzeko tapoiak atera eta belarrietan jarriz, ohean etzan zen berriro loa noiz etorriko zain. Sarri gatza ematen zion loak eta beste gabe ohe gainean egoten zen, zaratarik entzun gabe. Mesanotxe gaineko boligrafoak ordea entzuten zituen zaratak, baita papereko letrek ere.

*"Benetako maitasuna lotsati hurreratzen da,*
*mingaina izozkira*
*bezala.*
*Ordaindutako ezpainek, aldiz,*
*lotsarik ez,*
*'bésala' eta 'bésala'"*

Etzanda egotearen egoteaz aspertuta, jaikitzeko ahalegina egin zuen. Baita lortu ere. Dena zuen zintzilik, soinean zituen arropa urriak eta beste. Ipurtzuloa eskumako eskuarekin hartu eta gogoz harraskatu zuen, zerbait erabaki edo pentsatzean egiten zuen moduan. Ez zuen uste buruarekin pentsatzen delako zerbait pentsatzean burua harraskatu behar zenik, berak nahiago zuen ipurtzuloa harraskatu. Agian, berak, ipurtzuloarekin pentsatzen zuen.

Harraskaldiaren osteko erabakia, ohe alboan botata zituen arropak jantzi eta automobileko giltzak hartuz etxetik alde egitea izan zen. Geldo ibili zen.

Opel Corsa zaharra aurreko egunean aparkatuta laga zuen toki berean aurkitu zuen. Giltza sartu eta horrek, ez hain erraz, atea zabaldu zion. Autoan jarri eta atea itxi zuenean, izugarrizko bero kiratsa usaindu zuen. Segituan ireki zuen bere leihoa. Berriz ere giltza sartu eta apur bat motorra berotu zion autoari. Umeen karameluak jaten dituzten gizon zaharren eztul fina zirudien. Autoari eztarria berotuaz bat, martxan jarri zuen eta herri hura atzean utzi. Arratsaldea autoarekin bueltaka igaro zuen. Hara eta hona. Gustuko zuen autoan ibiltzea, eta autoaren barruan zihoala jendea ikustea, baina batez ere begiratzea. Ez zion ardurarik jendearen ekintzak, berak soilik begiratu egiten zuen. Antsiatsu begiratu ere. Seguru sentitzen zen, bazekien jendeak bera ez zuela ikusten, edo ikusita ere ez zutela ezagutzen. Horrela

igaro zituen orduak, bera konturatzerako ilargiak eguzkiak baino gehiago argitzen baitzuen.

Afaltzeko gose barik, oraindik eskabetxe saltsa eztarrian, mendian gora egin eta borda baten inguruan geratu zen. Leku polita. Ilargiak bete-betean argitzen zuen. Autoa irratia biztuta itxi eta autoaren kapotean eseri zen, bere bica eta paper birziklatu bat lagun. Ilargiak malenkoniatsu bihurtzen zuen. Triste samar. Mendi iluneko haize hezeak pentsamendua dantzan jartzen zion. Iraganeko kontuak ekartzen zizkion burura (edota ipurdira). Eta negar egin zuen. Negar isila, baina negarra. Ohi zuen legez heldu zuen bica, gerri paretik. Eta paper birziklatua ere gozo hartu zuen. Bi maitemindu balira bezala elkartu zituen. Erotismoz uztartu, lantzean behin berba eta berbaren artean bere malkoei ere puntuak markatzen utziz. Erlojuak berandu zela adierazi zion eta altxatu eta bica auto barrura bota zuen leiho irekitik. Bera bi metrora zegoen zuhaitz batera hurreratu zen. Poltsikotik hari puska bat atera eta paper birziklatua, tximurtuta, zuhaitzaren adar batera lotu zuen, gainontzeko hostoen artean ipiniz. Zuhaitza ez zen kontrajarri, traba barik hartu zuen umezurtza beregan. Felipe, geldo, autoan sartu eta joan egin zen.

Lo zeuden txoriak ere esnatu zituen hosto arteko paper berriaren presentziak. Jakin-minez hurreratu ziren hainbat txori adar hartara. Ezezagunari mokoka hasi zitzaizkion lotsati. Gosez. Sekula ez zuten horrelakorik jan. Ederra zegoen, letrak gozoak ziren. Baina izenburuarekin asebete ziren. Paper birziklatua lurrera jausi zen, letra eta guzti.

*"Hemendik ilargira begiratzean,*
*Amstrongen lehen pausu marka.*
*Ilargitik zuri begiratzean,*

*bizi guztirako markatu ninduen*
*zure ezpainetan emandako lehen musu marka.*
*Hau duk hau marka!"*

Irratiko eme ahotsa lagun, herritik berrogeitaka kilometrora zebilen Felipe bere autoan. Gau ilunean. Eta bere bakartasunetik, urrunean, argi gorrixka eta purpura kolorekoak ikusi zituen, eurak ere bakardadean. Errepidetik irtenda, bidezidor batetik egin zuen autoak. Argi gorrixken egarri. Gasolina gutxi sabelean. Baina eutsiko zion. Helduko zen. Eta heldu zen. Baina autoaren zoritxarrerako ez zuen "Euskoil" edo antzekorik jartzen zuen gasolindegirik aurkitu, Opel Corsaren fokuek beste zerbait irakurri zuten. Bere lagun Christler hark segur aski ulertuko zukeen "Eroticism" arraro bat. Izan ere Christler hark denetik zekien, Opel Corsak aldiz ez zuen ia mundurik ezagutzen.

Felipe Fernandezek autoa bakarrik utzi eta, "Eroticism" kartel argitsuaren azpitik pasatuz, solairu biko etxe gorrixka hartara sartu zen. Geldo. "Gabon, Fefe! Goiz zatoz!" agurtu zuen sarreran zegoen emakume erdi biluziak. Felipek ez zion agurrik bueltatu. Etxe barruko argitasuna eta dotorezia faltsua ez zituen atsegin. Ez zegoen eroso, azkura zuen, eta bi bider pentsatu gabe harraskatu zuen hankartea. "Nahi duzu laguntzea?" esan zion emakumeak. "Utz nazazu bakean" eskatu zion Felipek, baina emakumea berba egiteko gogoz zen. "Lasai, lasai... zure beltzarana prest edukiko duzu dagoeneko, duela gutxi amaitu du beste gizon batekin. Altxa zaitez gelara, azkura hori lasaitzera." Felipek, emakumeari aurpegira begiratu gabe eskaileretan gora egin zuen, bere beltzaranaren logelaren bila. Laster aurkitu zuen.

Gelara sartu eta barruko arropetan harrapatu zuen Beltzarana. Gela txiki hartako ohe bakarra txukuntzen zebilen, bai-

na Felipe ikustean buelta eman eta irribarrez agurtu zuen. "Kendu itzazu betiko arropa horiek, komunera noa apur bat prestatzera, itxaron iezadazu ohean, oraintxe nator." esan zion Beltzaranak komuneko atea ixten zuela. Felipek bere gorputza biluztu zuen geldi-geldi. Ohearen ondoan zegoen egurrezko aulki batean jarri zituen bere arropa guztiak. Banan-banan jantzi zizkion aulkiari. Zakila apur bat igurtzi ondoren ohean sartu zen, mesanotxearen gaineko gauzetan zentratuz. Hainbat gauza zeuden, koaderno gorriak, ezpainetako urdinak, propagandako boligrafoak, tanga orlegiak, Afrikako maparen irudi bat, denetik zegoen, baita argazki bat ere, nahiz eta han agertzen ziren bi gizon beltzak Feliperi ez gustatu. Sartu zen ohera halako batean Beltzarana. Honek bere lanari ekin zion. Felipek ur hotzetan ibilitako eskuak sumatu zituen. Baina gorputza bero zuen. Ipurtzuloko azkura heldu zitzaion berriz Feliperi. Baina laster igarri zuen Beltzaranaren zakila bere barruan. Ipurtzuloko azkura gozatzen.

Sexu saioa bukatzean, Felipek hiruzpalau berba idatzita utzi zizkion zakiltzar beltzari Afrikako maparen gainean. Bizkor-bizkor jantzi eta Beltzarana komunetik irten aurretik alde egin zuen etxe gorri hartatik. Opel Corsak herrira eraman zuen berriz ere bueltan, gasolina urriz. Irratia ipini zuen Felipek bidean. Baina ez zion Opelari musika entzuten uzten. "Beltz marikoi puta ostiak!!" oihukatzen zuen. "Beltzak oihanera!!" "Marikoiak txulora!!!". Garrasi hutsean egin zuen herrira bitarteko bidaia eta Opel Corsari gelditu eta Felipe kanpora botatzeko gogoa eman bazion ere, etxeraino eraman zuen, fidel. "Aaai, Christler hark ez zukeen honelakorik jasango..." esaten zuen bere baitan.

Beltzarana komunetik irten zenean, krema berezi batekin bere zakiltzar beltza igurzten zuela, zuzenean joan zen mesanotxera. "Ea gaur zer idatzi didan Fefe gizajo honek!"

## Eroticism

*«Erotismoa» ez da hitz bat besterik,*
*sinmas.*
*Momentu bati lotu gogoz.*
*Gorputz bati lotu gogoz.*
*Ordea,*
*momentu-gorputz horiek*
*hitzik ez duten magia dira.*
*Eta*
*«Erotismoa» ez da hitz bat besterik,*
*sinmas.*

# Maitasuna eta fidelitatea; egon litekeen binomiorik arriskutsuena

Sandra Sanchez Rabadan
Ekialdea institutua
Gasteiz

Ekainaren hogeita laua hautatu zenuen alde egiteko eta, eguna helduta, Sondikako aireportuan zaude, arrotz, jende zurrunbiloaren artean galduta, hegazkina lehen aldiz hartuko duenaren zirrararik gabe. Erabateko apatiaz bizi izan duzu azken astea, beste egitekorik ezean egutegian egunak ezabatu eta ekipaia prestatuz. Luzaroan egongo zara atzerrian, baina halere ekipaia arina daramazu, arinegia hogeita zortzi urte luzeetako bizipenek pisurik izango badute maletetan. Ez daramazu ez egunerokorik, ezta argazki bat bera ere... Orain arte bizitakoa denboraren igarotze huts bat izan dela iruditzen zaizu, urteek jan dizkizutela hilabeteak, hilabeteek asteak, egunak. Baina aski da. Iragana eta etorkizuna bananduko dituen espazio zehaztugabe batera bidaiatzeko asmoa duzu.

Eskozia aukeratu duzu. Hiru aukera posible zenituen: Ingalaterra, Irlanda edo Eskozia. Hirugarrenarekin geratu zara, entzun duzulako ingelesak zeken hutsak direla, irlandarrak ez, irekixeagoak, baina orain modan dago Irlandara joatea, jende guztia joaten da Irlandara eta horregatik hautatu duzu Eskozia. Patagoniara joatea ere berdin-berdin litzaizuke.

Paretako erlojuak laurak eta hogeita lau markatzen ditu puntu-puntuan, laurak eta hogeita lau ekainaren hogeita lauan... Lehenago zortekoa zenuen San Joan eguna. Lehenago. Orain, ordea, ederki aldatuta zaude iritziz. Egun klabea izan da zure bizitzan. Gaur hamahiru urte musukatu zenuen lehen aldiz Jon, hamabost urte zenituela, herriko jaietan, eta, halaber, San Joan egunez ezkondu zineten, orain lau. Orain bi hartu zenuen egin zizunagatik mendekatzeko erabakia. Gaur bazoaz. San Joan egunez joan ere, zure bizitzak beste bidezidor bat hartzeko egunik aproposenean.

Hegazkinez, gainera.

Jonekin zeundenean ez zenuen hegazkinez inora joan nahi izaten, distantziaz kontziente izateko ezinbesteko zitzaizun autobuseko leihotik begira orduak iragatea, zenbait herritatik barrena ibili eta haietako bakoitza iragartzen duen panel herdoildua errepidean irakurtzea. Hegazkinez ez omen zegoen distantziaz jabetzerik. Eta zuri distantziaz jabetzea gustatzen zitzaizun.

Baina orain ez zaude Jonekin, Jon ez dago.

Jon igeltseroa zen ogibidez. Hamasei urterekin ikasi zuen ofizioa eta hango nahiz hemengo eraikinetan egin zuen lan, bere azken eguna arte. Zure etxeko eraikinean lanean ari zela ikusi zintuen aurreneko aldiz, goizeko zortzietan institutura zindoazen astelehen batez. Hamabost urte zenituen, ile luzea mototsean bildua, txandala soinean, zapatilak eta motxila handia bizkarrean. Egun hartan jo zintuen begiz, etxera izerdituta ailegatu zinenekoan eta ez San Joan bezperako parrandan zuk uste bezala, baina hori ez zaizu batere axola orain.

Edo bai?

Axola zaizu ez duzulako sekula ulertu zer geratu zitzaion erakargarri astelehen hartan. Neska arrunta zinen hamabost urte zenituenean. Ez zinen polita, argala bai, garaia ere bai, baina polita ez. Hamabost urterekin txandala jantzita ibiltzen zinen, artean apenas deitzen zenuen atentziorik. Gerora bai, baina hori geroago izan zen, fakultatean edo, zure estiloa erabat definitu zenuenean. Praka zabal-zabalak erabiltzen zenituen, ipurdi aldean estutzen direnetakoak, (hanka argalegiak zeneuzkala antzeman ez zedin) kickers zahar batzuk lotu ere egin gabe (itxura informalagoa eduki-

tzearren), kamiseta estu bat (aurrealdea zenuen armarik onena) eta ilea askatuta, koloredun zintaren batekin (ilea moztuz gero ez zenuke balio duzunaren erdia ere balioko, ondo baino hobeto zenekien). Hamaika belarritako eta eraztun janzten zenituen, zilarrezkoak guztiak, zigarroa eskuan, ibilera tente-tentea... Oso *look* elaboratua zurea, ohetik jaiki berria zinen itxura eman nahi bazenuen ere. Ez zinen lagunen artean politena, ezta jatorrena ere, baina desberdina zinen, hitzez deskribatzea ezinezkoa den estilo batekoa. Horregatik zeneukan sekulako arrakasta mutilekin, izugarri deitzen zenuelako atentzioa eta bazenuelako zure itxura inguratzen zuen halako aura misteriotsu bat. Ordurako, hiru urte zeneramatzan Jonekin. Hiru urte.

Hamabost urte zenituenetik, zure bizitzaren ordena kronologikoak Jonekin hasi zineneko eguna izan du abiapuntu eta oraindik kosta egiten zaizu eskema hori zure burutik kentzea, hamahiru urteko tarte hori harremanaren faseen baitan ordenatzen duzu.

Hamahiru urte. Hamahiru urtez egon zinen Jonekin eta orain urruti dagoen aroa dela iruditzen zaizu. Aro bakarra. Beste edozein gaztek ez luke bere bizitza horrela zatikatuko, bananduko lituzke institutuko garaia, unibertsitatekoa, lanean hasitakoa... Baina horiek guztiak bigarren mailan daude zuretzat. Zuretzat mundu emozionala da aurrena eta zure mundu emozionaletik at geratzen dira lana, ikasketak... Pertsonekiko erlazioek eta sentimenduek biziarazten zaituzte, baldintzatzen dituzte zure poza, tristura eta negarra, eta sentimendu horietan, erlazio horietan, garrantzitsuenak Jonekikoak izan dira, garrantzitsuenak eta ia bakarrak.

Paretako erloju digitalak bostak markatzen ditu puntu-puntuan.

Orain lau urte justu ile apaindegian zeunden, ezteien atarian. Eztei eguna. Zirku galanta: soinekoa, argazkiak, elizkizuna *sí quiero* eta guzti, bazkaria. Bizitza osorako maitasuna eta fidelitatea agindu zenioten elkarri. Hori ere teatroaren parte zen, baina orduan ez zitzaizun teatroa iruditzen. Gerora ohartu zara ezin daitekeela bizitza osorako amodiorik hitzartu, fidelitatea bai, baina amodiorik ez, amodioa hondartzan pasieran zaudenean oharkabean harrapatzen zaituen olatua bezalakoa delako: bustitzen dizkizu oinak, orkatila, belaunak ere bai, sarritan, eta gero, pixkanaka-pixkanaka, alde egiten du, konturatu ere egin gabe, zauri gazi-gazia irekia utziz. Bizitza osoa. Pentsatu soilaz, besoetan hartu zenitzakeen hitzok, beraiekin jostatu. Perspektiba ezezagun batetik atzeman beharrekoak zaizkizu orain, pentsaezinak. Bizitza luzea dela iruditzen zaizu, luzeegia, edo laburregia maitasuna, batek daki, desproportzio handia dagoela inondik ere. Bizitzak, maitasunak dirauen beste iraun behar lukeelako zu bezalako pertsonentzat.

Jon izan da zure bizitzako maitasun bakarra, amodio bakarra, pasio bakarra, ez diozu zeure buruari beste inorekin maitemintzen utzi.

Inoiz, mutil batek erakarri zaituenean, uxatu dituzu sentsazio deseroso horiek gorputzetik, begiratzen zenion begietara Joni eta sinestarazten zenion zeure buruari bera bakarrik maite zenuela, zor zeniolako, halaxe izan behar zuelako. Eta halaxe izan ohi zen. Aste batean pasatzen zitzaizun fijazioa eta berriro ere Jon, Jon soilik, izaten zen zure bizitzako epizentroa. Jonek neurrigabe maite zintuen. Pentsakizunetan ere fidela zitzaizun, ziur zeunden, ez zuen beste ezer munduan, zu, zu eta zu, berdin zitzaion beste guztia, egunero frogatzen zizun, hitz bakoitzean, begirada bakoitzean, zuk bera baino askoz gehiago maite zintuela berak

zu, lore bat maitatzen den xalotasunarekin eta desioak pizten duen grinarekin. Jonek ez zintuen maite zure ibilera, garaiera eta kamiseta psikodelikoengatik, beti pentsatu izan duzu beste zerbait bazela, bost zentzuek atzeman ezin zuten barruragoko zerbait, esentziala, bi errekak ezinbestean ibai berean itsasoratu behar duten kasualitate berak batu zintuztela. Horregatik zintuen gustuko ilea mototsean bildu eta txandala jantzita gimnasiotik bueltan joaten zintzaizkionean, *femme fatalaren* mozorroa etxean utzita, eta horregatik iruditzen zitzaizun beti-beti maiteko zintuela, zernahi gertatuta ere. Eta hala izango zen.

Maitasuna eta fidelitatea ulertzeko modu asko dagoelako.

Zuk ezin dezakezu bata bestea gabe ulertu, pentsaezina zaizu sexua larru-grina soilagatik.

Maitasuna eta fidelitatea; egon litekeen binomiorik arriskutsuena.

Jonek, zuk ez bezala, argi bereizten zituen amodioa, sexua amodioarekin, gabe, katramila horiek guztiak, hierarkia baten barruan denak, Erosen grinei erantzuten dien plazerezko espirala izaki. Jonek, ordea, bazekien ezin zenuela banaketa hori ulertu, areago, ezin zenezakeela ulertu beste inork uler zezakeenik ere. Are gutxiago zure senarrak. Baina ez zen hala. Hasieran bai. Baina, pixkanaka, ulergaitza zitzaion bereizketa hori: sexua, amodioarekin, gabe..., gorputzaren lengoaiak primeran ulertzen zuela ohartu zen, lepo gainekoari ulergaitz bazitzaion ere.

Eta beste emakume batzuekin oheratzen hasi zen, ezinezkoa zitzaion ezezkorik esatea erakargarri zitzaion inori. Halere, Jonek zu maite zintuen. Oso gaizki sentitzen zen

beste batekin larrutan. Baina ezin bakarrarekin konformatu. Ederki ordaindu zuen.

Batek daki zergatik oheratzen zen hainbeste emakumerekin. Hainbeste emakumerekin, zugan pentsatzen bazuen besteekin larrutan ari zenean. Pentsatzen bazuen zu zinela onena, onena askogatik, baldin bazekien zurekin gozatzen zuela gehien, ziur bazegoen zuk zeneukala munduko gorputzik onena eta hainbestekoa zela bion arteko konpenetrazioa.

Besteekin erkatzen zintuen eta beti zinen garaile. Baina zu ez zinen garaile sentitu igande arratsalde batez lagunik onenak guztia kontatu zizunean: *Mundu guztiaren ahotan dabil, Joni gonak gehiegi gustatzen ote zaizkion... Badira hiru bat hilabete beste neska batzuekin enrollatzen dela, mozkortzen denean kontrola galtzen du nonbait eta...* Ezin zitekeen. Ez, ez zen zure Jonez ari. Zuk erotzeraino maite zenuen gizona ez zen zuk uste zenuen bera. Zuk maite zenuen Jonek ez zuen beste emakumerik begiratzen, zurekin familia bat osatzea zuen amets, bizitza osoa zure ondoan igarotzea, elkarrekin zahartu eta hiltzea. Ezagutzen zenuen Jon. Iruditu zitzaizun hasiera-hasieratik faltsua izan zela guztia, amets bat, hamahiru urte luze iraun zuen amets bat.

Amets bat?

Gezurra. Ez zen amets bat izan, gezurra, Jonek hamahiru urte luzez egunez egun elikatu zuena gezurra izan zen, ilusioaren mozorroak ezkutuan puztu zuen puxika; pum! Lehertu zen arte.

Paretako erloju digitalak arratsaldeko seiak markatzen ditu. Hamahiru urte igaro zenituen, egunero, arratsaldeko seiak heltzeko esperoan. Arratsaldeko seietan amaitzen zuen Jonek lana eta etortzen zen zure bila ingeleseko akade-

mia pijo horretara, institutuan zenbiltzan denboran. Gero zure etxera joaten hasi zen, lanetik aterata berehala. Ezkondutakoan, telebistaren aurrean itxaroten zenuen. Arratsaldeko seietan. Bueltatu ez zen arte, orain urte eta erdi edo. Egun hartan ere egongelan eserita itxaron zenuen, bazenekien ez zela bueltatuko baina egongelan eserita geratu zinen, telebista piztuta. Telebista piztuta, esperoan. Zeren esperoan? Erantzunen baten zain? Arrazoi baten zain? Zein arrazoi? Ba ote zegoen arrazoirik Jonen portaeran? Zer ote arrazoi bat edukitzea?

*Arrazoi(a): 1. zerbait, ustez, zuzen eta bidezko egiten duen zio edo zergatia.* Ustez. Ustea eta arrazoia. Ustez arrazoia edukitzea. Arrazoiaren ustezko definizioa. Definiziorik eza. Ezereza.

Arrazoia galdu zenuen eguna. Jon galdu zenuen eguna, zure bizitzeko arrazoia galdu zenuen eguna, bizitzeko arrazoia beharbada. Arrazoia beharbada. Arrazoirik bada. Bada; beharbada.

Ez dakit. Zuk ere ez. Berdin dio. Utzi diozu aspaldi galderak egiteari, erantzunak bilatzeari. Jon bueltatu ez zen egun hartan utzi zenion pentsatzeari, alferrikakoa irizten diozu pentsatzeari. Jonek egin zizuna hor dago. Zuk hari egin zeniona ere bai. Bizitzeko ilusioa kendu zizun Jonek, ezezagun zenuen Jonek, zure senarrak. Zuk hari bizia. Zein ote okerrago, bizirik gabeko bizitza edo heriotza?

Heriotza. Jonen heriotza: *FALLECE UN TRABAJADOR AL CAER DESDE UN ANDAMIO A VEINTE METROS DE ALTURA*.

*El trabajador J. M. de 30 años y vecino de San Sebastián, falleció a las 12:30 del mediodía, al caer desde el an-*

*damio de la fachada donde trabajaba. Según fuentes de la Ertzaintza, el tablón de madera colocado horizontalmente en los andamios se rompió y el cuerpo del joven se precipitó desde una altura de veinte metros. Según parece, el tablón de madera estaba apolillado y no aguantó el peso del joven. Este nuevo accidente ha puesto en tela de juicio la seguridad de los trabajadores del sector de la construcción.*

Ez zen zaila izan, ezta? Zure osabak sitsak jandako egur ohol mordoa zuen baserrian gordeta, haietan itxurarik onena zuena hartu zenuen, berehalakoan hautsi ez zedin. Ohola etxeko biltokian gordea eduki zenuen, astebetean. Laneko gailuak gordetzen zituzten biltokiko giltza Joni kenduta bertaratu zinen gau batez ohola hartuta, jatetxean baimena eskatu eta Jon parrandan zebilela. Sitsak jandakoa guztien azpian ipini zenuen, bazenekielako gainekoak beheko solairuetan jarriko zituztela eta haietatik eroriz gero heriotza ez zela segurua izango, azpian jarriz gero bai, ohol hura hogei metrora jarriko baitzuten eta hantxe lan egitea zuen gustukoen Jonek, altueran, bazenekien bera izango zela azken ohol hura jarriko zuena eta bere gorputzak aldamiotik behera sentituko zuela azken aldiz haizearen besarkada bortitza. Hala izan zen. Egun hartan Jon ez zen etxera bueltatu. Ez seietan, ez zazpietan, ez zortzietan. Ez zenuen deus ere sentitu bere gorputz zatiak pala batekin jaso behar izan zituztela jakin zenuenean.

Paretako erloju digitalak seiak eta laurden markatzen ditu. Panel fluoreszenteak zure hegaldiaren berri eman du. Bazoaz.

# Dr. Rose

Miren Rubio Iturria
Talaia institutua
Hondarribia

Dorsy Villagera iritsi nintzen udazken amaierako egun goibeltsutik astebete igaroa zen norbaitek atean jo eta “eskutitzak!” oihukatu zuenean. Kamisoi hutsean banengoen ere albait lasterren eskailerak jaitsi eta atea parez pare zabaldu nuen. Hantxe aurkitu nuen postaria, eskuan hamaika eskutitz zituelarik.

Ezer esan baino lehen eskutitzak eskutik kendu eta igorleak nor ziren begiratzen hasi nintzen, bat bestearen atzetik. Jenny, Faberm, Marise, Juliana... eta Roger, hantxe zegoen hainbeste desiratutako kartazala. Pozaren pozez, beroki lodiaren atzean ezkutatzen zen postariari masailean muxu bat eman nion. Nire aurpegiari irribarretsu begira geratu zen eztizko begiradaz, agurtu eta ate atzean ezkutatu zen arte.

Atea itxi bezain azkar, lurrean eserita kartazala ireki eta bertan izkiriatutako hitzak zurrupatu nituen “maite zaituen zure Roger” azken esaldiraino. Hiritik ordu askotara dagoen mendiko herri honetara mediku gisa urtebeterako etorri behar nuela jakin nuenean, dena galduko nuela uste izan nuen, baita ene Roger ere. Bidai luzean hasi baino lehen, telefonoak neguan funtzionatzen ez duenez, egunero-egunero elkarri idazteko zina egin genuen, eta hantxe nuen froga, iritsiko zitzaidan froga bakarra.

Gora igo ondoren, mahaian eseri nintzen, nire erantzuna idazteko eta neuk ere amaieran “maite zaituen Emily” idatzi nuen, behin eta berriro idatziko nuen antzera. Kartazalean sartu aurretik arrosazko ene perfumea hartu eta blai egin nuen, zabaltzerakoan lurrinak nire azala gogora ziezaion, izan ere arrosen lurrina hain dut gustuko, arrosak hain baitira ederrak... Gau hartan Dorsy Villagetik urruti amets egin nuen.

Hurrengo egunean, nire kontsulta zen etxe txikian egin beharrekoak bukatu eta gero, postariaren etxera joan nintzen eskutitza ematera. Lurrunak estalitako leihotik begiratu nuenean paper zaharrez eta hamaika eskutitzez betetako mahai baten atzean ikusi nuen; bat-batean leihoan norbait zelatan zegoela konturaturik, hurbildu eta zabaldu egin zuen. Ni nintzela jabetu zenean ezin izan zuen harridurazko aurpegia disimulatu.

– Arratsalde on –leihotik eskua luzatu nion– Lewinson doktorea naiz, beno... atzo nire etxera eraman zenituen eskutitzak... –irribarrea eskapatu zitzaidan– Pentsatzen dut gogoratuko nauzula. Barkatu aurkeztu ez izanagatik.

– Ez du axola, benetan. Ba... ni Pew naiz, Pew, postaria.

– Ba, urte askotarako. Zera, eskutitz bat nuen.

– A, ongi –eman egin nion.

– Eskerrik asko. Zenbat denbora beharko du?

– Ba... –buruan azkura handia zeukala zirudien– Astebete inguru.

– Oso ondo. Agur, orduan.

– Bai, agur –Leihoan geratu zen nire pausoei jarraituz.

Oso mutil bitxia iruditu zitzaidan. Geroago, herriko dendan, bakarra eta txutxu-mutxu guztien bilgunean, oso pertsona isila zela jakin nuen, baina ni baino gaztexeagoa zen gaztea amona guztiek aho batez on puska zela esaten zuten, berezi xamarra bazen ere. Niri ere horrela iruditu zitzaidan eta orain gogoratzen dudan aldioro buruarekin baietz esaten dut.

Horrela joan eta etorri ziren asteko egunak, herriko bitxikeria bihurtuta. Nire kontsultara, kontsulta deitzerik ba-

zen, agure guztiak etortzen ziren, bidenabar gazte zireneko hiria nola aldatu zen jakin nahirik, eta nire istorioekin min guztiak ahaztuta irteten ziren kontsultatik; "nola liteke *The train* ostatuaren ordez arropa denda bat egotea!" eta horrelakoak marmarrean.

Hala eta guztiz, bakarrik sentitzen nintzen maite ninduenetatik hain urruti egonda, Rogerrengandik batez ere. Zertan ari ote zen? Niregan pentsatzen?

Hurrengo astean, ohean etzanda nengoela, bizikleta zahar baten kurrinkak entzun nituen eta segidan "Kax! Kax! Eskutitzak!" entzun nuen. Laster batean atearen aurrean nengoen.

– Egun on, Pew! –eta eskutitzak hartzearekin bat igorleak begiratzen hasi nintzen. Kelly, Jessy, Ama, Amstrong eta... eta Kidd.– Hau al da guztia?

– Bai lehor bat bota eta, begiak zabal-zabalik, begira geratu zitzaidan.

– Seguru? Begira ezazu zure poltsan, agian...

– Seguru, baina nahi baduzu...

– Ez, lasai, eskerrik asko.

Atea danbateko batez itxi nuenean, bizikletaren kurrinkak urruntzen entzun ziren. Non ote zegoen Rogerren eskutitza? Agian beranduago iritsiko zen galdutako herri honetara, bai, seguru, ziur, hori gertatuko zen, galduta, bai.

Asteak aurrera jarraitu zuen, arrosaren arantza txikiak bihotzean egindako ebakidurarekin, beti bezala lanean, herriko ostatuko jabearekin berbetan... Herritarrek ziotenez, oso erraza zen non esertzen nintzen jakitea, izan ere nire

arrosazko perfumea erraz usain omen zitekeen kafearekin nahasten zenean, hori zela eta laster Rose izena jarri zidaten, D. Rose.

Horrelaxe sinatu nizkion egunero Rogerri idazten nizkion eskutitzak, “maite zaituen, Emily, D. Rose”, baina ez nuen erantzunik jaso. Bi aste pasa ondoren berriro ere txirrindularen doinuek abisatu zidaten Pew bazetorrela. “Azkenean!” pentsatu nuen, baina ez nuen bere berririk izan, nik ez jakin ordea.

Eskailerak jaitsi eta, Pew-k bizikleta atarian uzten zuen bitartean, atea bizkor zabaldu nuen.

– Egun on! Eskutitz asko al dauzkazu?

Ez zuen hitzik ere esan, bai baitzekien eskutitzak lehenbailehen ikusi nahi nituela eta ezer esan baino lehen eman egin zizkidan. Nik mekanikoki berriro guztiak begiratzen hasi nintzen: Petly, Margaret, Kelly, Jessy... eta Rogerren arrastorik ere ez! Hainbesterainoko tristezia-aurpegia jarri nuen non postariaren bekainak ere altxarazi egin nituen.

– Ez dago bere eskutitzik? –galdetu zidan.

Ni zur eta lur geratu nintzen, baina noski, beti berdin egiten nuen, Rogerrena topatu nahian. Begi distiratsuekin ezetz egin nion buruarekin, nitaz ahaztuta egon behar zuela. Orduan poltsatik larruzko eskularru lodi eta zaharren artean arrosa hori bat atera zuen, sekula ikusi dudan arrosarik ederrena.

– D. Roserentzat. –Besoa luzatu zidan, eskuetan har nezan.

Hain zuen kolore goxoa... Bizikletaren txistua lagun, aldendu zen; arrosa, nire bihotz apurtua eta ni nola urruntzen zen begira geratu ginelarik.

Zorionez, hurrengo astean ere ez nuen triste egoteko betarik izan, biztanle gutxi baziren ere etengabe nire bila etortzen baitziren, lan ematera edota kontu-kontari aritzera; "zu hiritarra izanik... ez dakizu istorio askorik. Terik izango duzu, ezta?" eta eurek prestatu eta zerbitzatzen zidaten, beraien etxean egongo balira bezala. Dena den, nire bihotzeko ebakia pixkanaka hazten joan zen, gero eta sakonagoa egiten zen, Pew-ren arrosa zegoen lorontzi ondoan edaten genituen te kikaren ostean.

Egunero idazten banion ere, denbora pasa ahala esperantza galtzen joan nintzen. Astero "eskutitzak!!" entzuten nuenean goibeldu egiten nintzen, nahiz eta familiaren eta lagunen eskutitzak gogoz irakurtzen nituen; jada ez nuen atea lehen bezala zabaltzen.

– Egun on, Pew. Zer moduz gaurkoan?

– Ondo, eskerrik asko. –eta eskutitzak ematen zizkidan.

Guztiak begiratzen amaitzeraino itxoiten zuen, beti nire aurpegiaren erreakzioaren zain, eta ondoren, desilusioak gristutako aurpegia ikusitakoan, eskularruen artean arrosa bat ateratzen zidan, batzuetan arrosa, bestetan gorria... Nire aurpegia nola alaitzen zen ikustea oso gustuko zuen. "D. Roserentzat", eta bide gorrixkatik alde egiten zuen, beti gurpilen gainean, hotz nahiz bero, euri nahiz eguzki.

Egutegia X handiz estaltzen joan zen negua sartzearekin bat. Eguzkia laster ezkutatzen zen, pinu beltzez jositako mendien artean, eta hotzak ere etxe guztiak dar-dar batean jarri zituen; eta nire eskutitzen emaria ere jaitsi egin zen. Betiko lagunek zintzo eusten zioten, tarte handiagoz idazten bazidaten ere. Roger, ordea...; ahaztu egin behar nuela konbentzitzen hasita nengoen.

Horrelako pentsamenduetan nenbilen egun batean, kontsultako atea ixten ari nintzenean, urrutian Pew oinez zihoala ikusi nuen plaza erdialdetik. Hain arraro egin zitzaidan gizaki hura bere bizikletarik gabe ikustea... Dendara joan nintzenean, harriduraren jakin minez, ea Pewren bizikletari zer gertatu ote zitzaion galdetu nuen: "Ba, bizikleta beti bezala atarian dauka. Semeak esan didanez, osasunez makal omen dabil, eta orduan nik zera esan diot, ba joan dadila D. Roserengana! Katarro soil bat zela edo ez dakit zer, esan dit, badakizu!" eta txanponak emanez bere horretan jarraitu zuen.

Hurrengo egunean, ohi bezala Pewk atea jo zuen, baina bere etorrera salatzen zuen bizikletako erradioen kurrinkarik gabe.

– Egun on, Pew, zer moduz zaude?

– Ongi, eskerrik asko –poltsikotik eskutitzak atera zituen.

– Ziur? Non dago zure bizikleta?

– Ba... –eskutitzak begiratzen ez nituela ikusita, haur baten moduan begiak jaitsi zituen– Katarro soil bat da, baina bizikletak, ba..., ez dit onik egiten.

– Bai, noski. Zergatik ez zara bihar kontsultatik pasatzen? Zer duzun ikusiko dugu.

Kelly, Jones, ama, anaia... eta kitto, beti bezala, bi hilabete baino gehiago pasa eta ahaztu egin ninduen. Ezpainak estutu egin nituela ikusirik, poltsatik esku artean arrosa zabal bat atera zuen, sekulako ederrena eta lurrintsuena. Petalo ertzetan kolore morea zeukan arrosa horia usaindu nuenean, barruraino nabaritu nuen zetazko lurrin goxoa.

Begiak zabaldu nituenean, Pewren begiak dirdira egiten ikusi nituen, orduan arrosa eskaini nion usain zezan; duda-mudan egon bazen ere, azkenean, nire eskaeren aurrean, berak ere begiak itxi zituen usaintzearekin bat. Segidan, aldiz, eztulari eman zion, sakon-sakon.

– Ai, bihar ager zaitez, nik uste baino okerrago zaude eta.

Buruarekin baietz egin zidan, eztulka jarraituz, eta horrelaxe alde egin zuen bide gorritik. Urruntzen ari zenean, lorearekin perfume bat egingo nuela oihukatu nion.

Hurrengo egunean, berriz, ez zen kontsultara agertu. "Buru gogor galanta... etorriko da" pentsatu nuen, baina ez zen aste guztian agertu. Rogerri egunero idazten nizkion eskutitzei Pewren arrosez egindako lurrina botatzen nienean, Pew nola ote zegoen pentsatzen nuen, ea sendatu ote zen, baina ez zen horrela izan.

Perfume berezia bukatu zenean ez nuen lurrin berririk egiteko aukerarik izan, izan ere Pew ez zen ohi bezala etorri, mutil gazte bat agertu zen haren ordez, bere iloba omen zena.

– Non dago, ba? –galdetu nion ezustekoarekin.

– Ohean, oso gaizki, andrea, baina ezer ez esateko esan dit. Nik ez dizut ezer esan, e?

– Eta zer du, ba? –haserretzen hasita nengoen.

– Ez dakit, D. Rose, baina arnasa oso gaizki hartzen du, eta aurpegi aldean horrelako –mantxa handiak irudikatzen zituen– gorridurak dauzka, baina nik ez dizut ezer esan, e? Tori eskutitzak.

– Konforme, ondo da eta eskerrik asko.

Gora igo eta igorleak begiratu gabe eskutitzak utzi ondoren, maletatxoa eskuan, bere etxerantz jo nuen bide gorritik.

Etxe zaharkituaren atean hiru edo lau aldiz jo banuen ere ez zidan inork ere zabaldu, eta agian atea zabalik egongo zela gogoratuz, barrura sartu nintzen. Denbora asko itxita egondakoaren usaina etorri zitzaidan eskaileretatik gora joan nintzenean.

"Pew! D. Rose naiz! Aurrera jarrai dezaket?!" oihu egin nuen. Orduan egurrezko sabaian pausuen krakadak nabaritu nituen eta haiengana jo nuen, goraka, ate aurrean aurkitu nintzen arte. Han ote zegoen? Laster bere eztula entzun nuen atearen bestaldean, gero eta burrunbatsu eta zaratatsuagoa bilakatzen ari zena, hainbesteraino non nire sartzeko eskaerei erantzuteko ere ez zen gai. Azkenean atea zabaldu nuen.

Hantxe aurkitu nuen, mahaiaren ertzera heldurik, eztulak eragindako aztoramenduarekin ezinean, gorri-gorri eginda. Ikusi bezain laster alboko ohean etzanarazi nuen, zertxobait lasai zedin. Mutikoak esan bezala, azkura handiko pikorrak zeuzkan aho-sudur aldean. Burua beherantz egiten zuen, pikorrengatik lotsaturik egongo zelakoan nengoen, baina ez zen horregatik.

– Noiztik zaude horrela? Astebete edo? –galdetu nion, nire maletatxoa zabaltzeko lekuren baten bila.

– Bai... Zuri arrosa eman nizun egunetik aurrera -eta tentuz begiratu zidan.

Maletatxoa mahai gainean jartzean, bat-batean larritasunak jota ohetik altxa eta niregan zuzenean etorri zen eta esku muturretik heldu zidan.

– Baina... Pew, zertan zabiltza? Lasai zaitez, ez dizut ezer egingo eta.

Jaramonik egin gabe, maletatxoa mahai gainean jarri eta zabaldu egin nuen. Ea ba, non nituen gauzak...! Tresneria bila ari nintzela oparitu zidan arrosaren lurrin goxoa iritsi zitzaidan, baina ez nuen lorerik topatu, mahai gainean kartazal zabaldu ugari baizik. Igorlearen lekuan Emily Lewinson Halrelt, Dorsy Villageko doktorea... Nire eskutitzak ziren, egunero Rogerri idatzi nizkion eskutitzetatik zetorren lurrina, nire bihotz-azalaren lurrina.

Bira eman nuen eta, amorruaren amorruz, begietara begira geratu nintzaion, malko batek masailetik bera laprast egin zion arte. "Barkatu, D. Rose, barkatu". Mesanotxeko kaxoia zabalduta, fardel gisa lotutako eskutitz mordoa atera zuen, Rogerren eskutitzak, eta gelatik alde eginda negarrez jarraitu zuen. Une hartan konturatu nintzen Pew-k maite ninduela.

Geroago, te kikara baten berotasunean, Pew-k gauetan eskutitzak zabaltzen zituela jakin nuen, lurrinak nire azala gogorarazten baitzion; baina azken arrosa horiari, berriz, alergia zion, baita harekin egindako perfumeari ere, horregatik, nire hurbiltasun nahiak egoera horretara eraman zuen. Ezagutu dudan arrosarik ederrena da.

Geroztik, astero, Rogerren eskutitzak, hau da zure eskutitzak, ekartzen dituenean, udaberriko lorerik ederrenak ekartzen dizkit, kolore eta lurrin mota guztietakoak, baina sekula ez arrosak. Orain gora eta behera dabil berriro ere bere bizikleta zaharraren gainean, gorputza osasuntsu eta bihotza pitzatuta nire arrosa lurrinak beste batentzat direla jakinda.

Maite zaituen Emily, D. Rose.

# Mundu hobe baten bila

Irati Mañeru Igoa
Toki ona institutua
Bera

Erabakia hartuta dago. Egingo nuela esan nuen eta egingo dut. Orain ez dut atzera pausorik emango. Nire herriak behar nau eta ez dut alde batera utziko. Inoiz ere ez. Gainera aitari zin egin nion eta ez dut atzera egingo, zin egindakoa bete beharra dago. Alak lagundu eta mundu hobe batera eraman nazala!

Kaixo, gabon. Hemen nago Jerusalem-en. Esan duzun bezala, gaur arratsaldean terrorista palestinar batek bonba bat gorputzera itsatsita zuela bere buruaz beste egin du, berekin batera sei judu eramanez. Sharon-en gobernuak Arafat-i mehatxu egin dio, terrorismoaren kontrako operazioan lagundu dezan. Hala ere, badirudi, Sharon-ek auzo palestinarretan eraso bortitzak egiteari uzten ez dion bitartean, Arafat-ek ez diola laguntzarik emango. Egunetik egunera, egoera okerragoa da eta ez du aldatuko denik ematen. Hala ere, esperantza ez da galdu behar eta amaiera baketsu batean pentsatu beharra dagoela diote zenbait erakundek. Jerusalem-etik zuzenean, Itziar Taberna, EITB.

Ezin dut sinetsi. Zin egin zidan ez zuela horrelakorik egingo. Nola nahi duzu negarrik ez egitea? Bost urteko neska baten ama bihurtu naiz egun batetik bestera. Gaixoak ez du ezer, zuen gauza bakarra gaur arratsaldean milaka zatitan egin eta zerrauts bihurtu da. Egoera hau jasangaitza bihurtzen ari da. Honek ezin du horrela jarraitu. *Amnesty International* erakundearen bidez hona etorri nintzenean, oso kontzientziatuta nengoen gauza gogorrak bizituko nituela. Baina ez nuen inoiz pentsatuko horrenbeste hildako, horrenbeste negar, horrenbeste tristura, horrenbeste odol eta horrenbeste zitalkeria ikusiko nuenik. Baina nik kontzientzia oso garbi dut. Ez diot inori minik egin, kontrakoa, bi urte daramatzat milaka pertsonari ahal dudan guztia ematen eta egun hauetako batean, nire bizitza ere emango diedala

uste dut. Hala ere, hori gertatuko balitz ere, ez nintzateke damutuko, baina A'ishah zaindu beharra dut. Hassani zin egin nion bere arreba zainduko nuela eta horregatik onartu nuen nire gain hartzea berarekin ezkondu eta bere arreba zaintzea. Ez nuen uste bere buruaz beste egiteko asmoa zuenik. Jakin izan banu, ez niokeen utziko. Espero dut, bere ametsetako mundu hori aurkitu izana eta hemen baino zoriontsuago izatea. Berez, hori ez da oso zaila izango; baina, orain, ez da bera gaizki dagoena, bera maite genuen guztiak baizik.

Uste baino gogorragoa izan da nire buruaz beste egitea. Guztiz ziur nengoen hori egin nahi nuela, baina juxtu lehergailua martxan jarri dudanean, damutzen hasi naiz. Egia esan, damua ez da hitz egokiena, ez naiz damutzen, baina pena eman dit. Ez niregatik, gutxiago hil direnengatik, A'ishah eta Ainhoarengatik baizik. Gertatutakoa jakiten dutenean bihotza hautsiko zaie, batez ere Ainhoari. A'ishah-k badakit ulertuko duela, txikitatik hori erakutsi baitzioten amak eta aitak, eta beraiek hil zirenean, hiltzen garenean mundu hobe batera pasatzen garela erakutsi nion nik ere. Baina Ainhoak ez du ulertuko. Mendebaldarrek ez dute ulertzen. Ez dira gai ezagutzen ez dutena ulertzeko, eta horrek sortzen ditu mundu honetako arazo guztiak. Hala ere, Ainhoa ez da beste mendebaldarrak bezalakoa eta berak badaki hauxe dela nire ametsa eta ni ongi nagoela.

Zer ari da gertatzen? Ez da posible. A'ishah!! A'ishah!! Non zaude? Beatriz, zatoz hona!!! Zaurituak daude!! A'ishah ikusi duzu? Ezin dut utzi A'ishah-ri ezer txarrik gertatzen, aurkitu beharra dut. Moldatuko zara? Hura aurkitzean segituan etorriko naiz zuri laguntzera. Eraman itzazu zaurituak egoitza nagusira. Laguntza behar baduzu eska iezaiozu Fadheelari, berak eta bere alabek lagunduko dizute.

Eguerdi on! Israelgo poliziak atzoko terrorista izendatzea lortu du, Hassan Abdallah; eta, gertatutakoaren ordainetan, Jerusalemgo auzo palestinarretan zenbait eraso egin ditu, errefuxiatu esparru batetik oso hurbil. Eraso horietan lau bat palestinar hil dira gutxienez, eta horien artean zazpi urteko mutil bat. Gobernuak etxeratzeko agindua eman du, hau da, palestinarrak ezin dira etxetik atera beste agindu bat egon arte. Zisjordanian, adibidez, aste bat daramate etxeratzeko aginduarekin. Horrek ondorio txarrak ekar ditzake, gosetea, higiene arazoak, gaixotasunak... *Amnesty International* gobernuz kanpoko erakundeak Sharonen gobernua salatu eta Giza Eskubideak errespetatzeko eskatu dio. Jerusalemetik, Itziar Taberna, EITB.

Ziur nago Ainhoa errudun sentitzen dela. Nirekin ezkontzeko erregutu nionean, helburu nagusia A'ishah bere eskuetan gelditzea zen. Adopzioan ere pentsatu nuen, baina oso prozesu zaila zen, ezinezkoa ez esatearren, eta irtenbide bakarra berarekin ezkontzea izan zen. Ez nion gezurrik erran. Garbi utzi nion arrebarentzat hoberena nahi nuelako ezkondu nintzela, eta eskatu nion egoera asko okertuko balitz hemendik alde egin eta A'ishahrekin Euskal Herrira itzul zedila. Ezezkoa esan balu, ez nintzatekeen lehergailuarekin Jerusalemgo Misgav Lindach kalera joango. Baina Ainhoa, benetan, ez sentitu errudun. Belauniko eskatzen dizut gaizki ez sentitzeko. Zure buruaz harro egon behar zenuke, zure eskuetan baituzu A'ishah-ren etorkizuna. Hori egin ez banu, beste edozein egunetan, bonba israeldar batek hilko gintuzkeen. Denok hilko garela badakigu eta batez ere Palestinan jaio garenok. Hori bada gure patua, zer inporta du gaur edo bihar gertatzea? Gainera, ongi dakizu ez dagoela ezer okerragorik niretzat, israeldar baten ondorioz hiltzea baino. Mesedez, ez egin negarrik. Badakit ezin nauzu-

la entzun, baina ziur nago gai zarela hau ulertzeko inolako azalpenik gabe.

A'ishah, ongi zaude? Hau sustoa hartu dudana! Goazen korrika! Geroz eta maizago gertatzen dira horrelakoak. Geroz eta gutxiago begiratzen dute nora jaurtitzen dituzten bonbak. Errefuxiatu esparru honetan, milioi erdi bat pertsona bizi dira, gehienbat haurrak eta emakumeak. Haien senarrak hilik edo *Intifada*ren alde borrokatzen ari dira. Hona babestuta daudela uste dutenean etortzen dira. Hasiera batean horrela zen, baina orain ez daude inon babesturik. Egin dezakedan gauzarik hoberena maletak egin eta Euskal Herrira itzultzea da. Nire beharra dute; baina, lehenengo, A'ishah hemendik atera behar dut. Nola nahi dute "terrorismoa" bukatu? Beraiek sortzen dute terrorismoa. Haur guztiek, txiki-txikitatik, ez dute biolentzia besterik ikusten, hilak edozein lekutan, gurasoak hiltzen dizkiete, lagunak, anaiak... Haur hauek ez dute zorigaitza besterik bizitzen. Nik bi urte daramatzat hemen eta uste dut, ikusitakoen ondorioz, edozertarako gai izango nintzatekeela. Horrelako hogei urte imajinatzen saiatzen naizenean erotu egiten naiz. Horrelako egoera batean ez da zaila edozertarako prest dauden gazteak sortzea. Palestina "terrorista"-fabrika bat da, baina Sharonen gobernuaren eta horren kontra ez dauden guztien fabrika bat. Beraiek erotzen dituzte, beraiek bultzatzen dituzte hiltzera.

Jerusalemgo auzo xume batean jaio nintzen. Bizitza osoa leku batetik bestera pasa nuen, ez baitzegoen leku segururik. Nire aita Abdul-Salam zen eta nire ama Ghaniyah. Bost anaia-arreba ginen eta ni anaien artean gazteena. Etxeko txikia A'ishah zen, alaba bakarra. Amak 45 urte zituen A'ishah jaio zenean. Erditzea oso gogorra izan zen eta familiakoek uste zuten hil egin behar zuela. Baina Ala handia da

eta lagundu egin zion. Hala ere, handia izan arren, Alak ezin izan zuen ezer egin A'ishah jaio eta hiru urtera. Orduan, benetan hil egin zen. Janaria erostera atera zen eta etxerako bidean Israelgo soldaduek tiro egin zioten. Denentzat oso gogorra izan zen ama hiltzea, baina bagenekien mundu hobe batera joan zela eta poztu egin ginen beragatik. Hala ere, inoiz ez nien israeldarrei nire ama hiltzea barkatu, A'ishahk ez zuen ama ezagutu eta amaren izugarrizko beharra zuen.

*Amnesty International*eko arduradunarekin, mesedez. Kaixo, John. Ni naiz, Ainhoa. Ba, gaizki, izan ere, egoera sobera okertzen ari da. Euskal Herrira itzultzea erabaki dut. Sentitzen dut, badakit jendea behar duzuela, baina bost urteko neska bat infernu honetatik atera behar dut, ez dut nahi gehiago sufritzerik. Bihar bertan aterako naiz. Bai, nahi baduzu, hilabete batzuk barru bueltatuko naiz. Beno, utzi egingo zaitut, izugarrizko iskanbila dago eta. Ikusi arte. Agur.

Anaia bat hamar urte nituenean galdu nuen, beste bat hamabi urtetan eta azkena, hamabost urtetan, israeldarren kulpaz. Hogei urtetan aita tiro batekin aurkitu nuen etxeko lurrean hiltzorian. Egun hartan, A'ishah zaintzeko eskatu zidan eta borroka inoiz ez uzteko. Hiltzeko jaiotzen garela esan zidan eta nire arreba leku seguru batean utzi ondoren, nire bizitza herriari eskaintzeko, orduan bai egongo zela harro nitaz. Aitak errandakoa bete dut, eta ziur nago oso harro dagoela nitaz, ni ere bera nire aita izateaz harro nagoen bezala.

Egun on. Palestinak bizi duen egoerak ez du hobera egin. Jerusalem-en egunak daramatzate etxeratzeko agindupean. Azken orduetan izugarrizko borrokak egon dira, bai Jerusalemen baita Gaza eta Zisjordanian ere. Hildakoen ko-

purua jakitea ezinezkoa da, baina lau bat soldadu israeldar eta hamabost bat palestinar hil direla kalkulatzen da. Nazioarteko laguntza oso urria da. Milaka eta milaka haur daude eskolara ezin joanez, goseak, gaixorik... Egoerak horrela jarraituz gero, hildako asko izango dira, eta horrek musulmanen artean borrokarako gogoa areagotu egiten du. Gaur arratsaldean Gazan manifestaldi bat izan da, Nazio Batuen Erakundeari konponbideak bilatzeko eskatuz. Jerusalemetik zuzenean, Itziar Taberna, EITB.

Hauetako egunen batean eztanda egingo dut. Gogorra naizela erakutsi nahi diot A'ishah-ri. Ni ere negarrez hasiko banintz, gogorragoa egingo litzaioke bere anaiaren heriotza gainditzea. Baina inork ikusten ez nauenean, orduan malkoak erortzen zaizkit. Ezin dut triste sentituko ez banintz bezala jokatu. Hassan nik uste baino garrantzitsuagoa zen nire bizitzan. Bere gurasoak hil zirenean, ni lanean ari nintzen errefuxiatu esparrura etorri zen. Ez zuen ezer, ez dirurik, ez etxerik, ez familiarik. Bere arreba zaintzeko ardura zen zuen gauza bakarra, baina momentu hartan ez zen horretarako gai. Nik nire logelan lo egiteko leku bat eskaini nion, baina lanean laguntzeko baldintzarekin. Nirekin lanean aritu zen hilabeteetan lagun handiak egin ginen; horrela izan ez balitz, ez nukeen berarekin ezkontzea onartuko. Baiezkoa esan nionean, ez nuen bitan pentsatu, A'ishahri laguntzeko egiten nuela uste nuen. Baina orain dudatan jartzen dut ezkontza horren arrazoia. Erabiltzen ez duzun zerbait galtzeak erabiltzeko izugarriko gogoa piztu izan ohi du. Ba, hori pasatzen zait eta sentimendu hori barrenak jaten ari zait. Baina ez du atzera bueltarik. Bera ez zen inoiz nirea izan eta, zoritxarrez, ez da inoiz nirea izango.

Hil aurretik, gauza bat desiratu nuen bihotz-bihotzez: mundu honetan Ainhoa bezalako pertsona gehiago egotea.

Zehazki ez dakit zer sentitzen dudan, baina gauza bat argi dut, horrelako jendearekin mundu hau ez litzateke hain krudela eta zitala izango. Okerrena zera da, bera eta bera bezalako pertsona miresgarri askok lan handia egiten dutela, baina inoiz inork ez du beraien lana eskertzen. Bi eskuk gauza asko egin ditzakete. Milaka eskuk gehiago. Espero dut, egunen batean, eskuak binaka ibiltzeari uztea eta taldeka ibiltzen hastea. Hori gertatzean, agian, mundu honetako zorigaitz guztietarako irtenbideren bat egongo litzateke. Baina bitartean, milaka pertsonak ametsetan bizi beharko dute, askatasuna noiz iritsiko zain.

Banoa. Espero dut bueltatu beharrik ez izatea. Horrela gertatuko balitz, askatasuna lortu den seinale izango litzateke. Baina txiki-txikitatik, adjektibo batek oso ongi deskribatu izan nau: errealista. Beraz, egunen batean itzuliko naiz. Bitartean, Hassan-en oroitzapen gozoekin bizi beharko dut, mundu berri baten bila joan zen mutilaren oroitzapenarekin.

# Amets gorriak

Nahia Idoiaga Mondragon
Gabriel Aresti institutua
Bilbao

***Euskaldunon Egunkaria:* 2001eko urtarrilaren 16a**

*Berriro etxean da 20 urte preso egon ostean*
*Maite Iturralde, "Maddi".*

***Herriko plaza jendez gainezka dago, bertsolariak, dantzariak, lagunak, senideak, ni bigarren ilada honetan zain naukazu, zirrara, irrika, grina, ezagutuko al nauzu?***

Gaueko ordu biak zirela zioten elizako kanpaiek, seminario hartan igarotako urteak nituen buruan bor-bor, eskailerak ilunpean zaratarik egin gabe jaisten nituelarik. Hotz egiten omen zuen baina ni bero-bero nengoen, lehen aldia zen horrelako zerbait egiten nuena eta egin beharrekoa zela jakin arren, barruko su hark jaten zidan beldurra, egonezina, irrika...; banekien ekintza hark nire bizitzan zer ekar lezakeen, eta orain badakit ez nengoela oker.

Kanpaien hotsak isiltzearekin bat, "seizientos" berdea ate aurrean gelditu zela ikusi eta linternaz seinalea egin nion. Banekien bertan nor zegoen, gau giro alai ugari igaroak nituen berarekin lau pareta haien artean; baina, beno, haiek aspaldiko kontuak ziren. Gidariak zeinua bueltatu zidan; ordua zen; atea ireki eta multikopista "seizientosean" sartu genuen nola hala. Egina zegoen, jada ez zen atzera bueltarik.

Eskailerak gora nindoala, 1968 hartan mundua iraultza gose zela ulertu nuen, gorriz margotutako egunak ziren eta gauzak alda zitezkeen. Mundu berri baten ateak ireki behar ziren kosta ahala kosta eta nire lekua ez zegoen lau pareta haien artean.

Urtebete inguru igaro zen berriro nire lagunaren berri jakin arte, telefonoz deitu zidan:

*– Hi, neu nok.*

*– Honbre! Zelan habil? Ia urtebete dok elkar ez dogula ikusten!*

*– Ez lar ondo, horregaitxik deitzen haut. Jakingo duk apirilien Bilboko Artekaile kalean egondako detentzinuen ostien jodiduta gabiltzala ez?*

*– Beno, bai, entzuna diat zeuzer baina hi...*

*– Ni be txarto nabilek, ganien zeuzkaat ta kanpora jun biher diat. Baia gure herrixek jentie biher dik. Aitxuten dostak ezta? Hire moduko jentie.*

*– Baia nik...ni...*

*– Nik baino hobeto dakik zelan gagozen. Beno, pentxau ta aurrera segidu gura badiak, hurrengo martitzenien 5etan jun gorbata berde batez Errigoitxiko tabernara ta han mutil bat eukiko dok itxaroten txamarra gorrixez. Galdetu ze ordu dan ta berak 8rek direla esango dik. Bale?*

*– Bai, baia hi...*

*– Pentseu, ta elkar ikusiko diagu, baia oin jun einbi diat bale?*

*– Bai, beno, egongo gaituk.*

*– Agur.*

Bost minutu, agian gutxiago iraun zuen elkarrizketa hark, baina dena aldatu zuen, betiko.

Bostak ziren edo zortziak, batek daki, eta nori axola, jada barruan nengoen. Handik pare bat hilabetera ni nintzen txamarra gorridun tipoa, beno edo txapelduna, edo betaurrekoduna, batek daki, lekuan lekukoa, kontaktua.

1969ko urriak 5, egun horretan utzi nuen etxea, zu ezagutu zintudan egunaren bezperan:

*– Beno, eh... eztakitx ondo hau zelan esan, baia lagun bategaz jungo naz bizi izaten Bilbora, han apartamentutxo bat deko ta ondo konponduko gara. Ganera holan unibersitatetik be hurbilago egongo naz ta...*

*– Aitzaki ostirik ere ez, seme! Zuk zer pentsetan dozu, zure aitxe lerdoa dala ala? Ondo dekot igarritxe nik zu ze saltsatan zabizen sartunde. Baia zuek oingo gaztiek zer pentsetan dozue? Zuek ez dekozue idearik pez! Badakizu zer dan egun guztixe beldurrez egotie? Lo non ein jakin barik, ez ezebez? Gerra denboran guk hartun genduzan kolpiek hartute eukiko bazenduazan ez zinan lerdokeria honetan ibiliko! Esan notzun, esan be seminarixotik etor zinenien politikan ez sartuteko!*

*– Aitxe, aitxu ein biher dozu, ezin dogu holanik segidu, ezin dogu gure bizi osoa zapaldute egon eta gaztiok aldatu biher dogu mundue!*

*– Ze mundu, seme? zelan biziko zara biherrik egin barik, dirurik barik... Ezin zara jun, ezta pentseu bez, etxien gelditxu biher dozu! Eztot gure zu bisitetan kartzelara juterik edo oindino txarrague dan beste nonora.*

*– Sentitzen dot, aitxe, baia ni banoa, jun ein bidot ta badakitx nonoz ulertuko dozule!*

*– Juten bazara ez agertu ostarabe hemendik! Etzara etorriko! Inozpez!*

*– Aitxe, jun ein bidot, zuongaitxik, Euskal Herri honetan bizi diezen danengaitxik... Ez dozu aitxuten ala, gu ez bagara mogiduten urtiek pasako direz ezebez aldatu barik!*

Urteak igaro ziren berriro etxe hura zapaldu nuen arte, urte asko, agian gehiegi, baina ni ez naiz inoiz damutu. Bizitza honetan zer edo zer ikasi badut hori baita, hartutako erabakiez damutzeak, normalean, ez duela merezi.

Momentu iluna izan zen hura, latza, gogorra... Baina gauetik egunera nire barne garra berriro piztu zen, indar guztiak bor-bor jarri ziren martxan nire bihotzean, mundu arrano hartan pasioak keinu egin zidan... zu ezagutu zintudan.

Larunbat goiz hartan zu zinen nire kontaktua, paper txiki batean idatziriko izena, Maddi, beno hori ez zen zure benetako izena... baina berdin zion. Oraindik gogoan dut ikusi zintudan lehen aldia; zure buruaz harro, lepa tente, zapata berridun haurtxo bat bazina bezala. Zure ile beltz eta distiratsuak begirada guztiak apurtzen zituen, galant, prestu, txima batzuk begien gainera jausten zitzaizkizularik. Begirada hura, hain zen sutsua, halakoa zen ezkutatzen zuen boterea, grina, mundua aldatzeko nahia! Beti esan dizut zure begi aratzek mundua ikusteko zuten gardentasunagatik erakarri ninduzula. Egia da, bai, begirada hark txoratu ninduen. Dena zilegi zen garai hartan..., non ote dago momentu hartara bueltatu gaitzakeen trenaren gidaria? Non ote dago gure pasioa, desira, mundua gure haurtxoa izaki, aldatzeko aukera geneukala sinestarazten zigun aztia?

Zure herrian igaro nuen gau hura, jai-giroan, han ezagutzen nituen lagun batzuekin eta berriro ikusi zintudan, momentu hartatik aurrera ezin izan genuen gure pasioa gehiago ezkutatu. Baina ezinezkoa zen, ni liberatu bat nintzen jada eta zu ere sartua zinen, ezin nuen zure izena jakin, ezta zure ogibidea ere, ezin zintudan bisitatu, ezin nuen non bizi zinen jakin... baina desio zintudan.

Asteak, hilak igaro ziren eta gero eta gehiago ikusten genuen elkar, batzarretan, ikastaroetan, baina beti jendartean.

1970eko Donibane gauean izan zen, sorginen suak eta magiak gure gorputzak batu zituen lehen aldia, gogoan dut oraindik gau hartako usain, beldur eta pozak sortutako dardara. Pelikula bateko sekuentziak balira bezala ditut oroimenean betiko itsatsiak, ilargiak begiak argitzen zizkizun, su gorri berezi bat sortuz, niri begira zeundela konturatu nintzen, momentu hartatik aurrera zure begiradak harrapatu ninduen. Suak fantasiazko mundu batera eraman gintuen, irudimenezko mugetatik baino haratago, azalgaitzak diren sentsazio horietara.

Irribarre egin zenidan, zutitu eta nire ondoan jesarri zinen. Zure atzamar perfektu horietako bat nire ezpainetan pausatu eta nire buruaren kontrola betiko galdu nuen, mingainarekin laztanduz, ezpainen artean iheskor zebilen sexuaren izpi txikia, ezer izan gabe hainbeste dena. Astiro-astiro, esku umela sama-aldean behera joan zen ihesi: kilimak, zirrara. Bular aldetik pasa eta zure eskuek gerritik oratu ninduten, gure ezpainak bata bestearenaren kontra urtzera kondenatu genituelarik.

Nahitaezko patuari kasu eginaz bezala, arropak desagerrarazi genituen, gozamena erabaki ororen jabe bihurtuz. Sabelaldea laztandu zenidan, poliki, presarik gabe, goxo eta bitartean nire muxuek bular aldea samurtu, laztandu zizuten.

Zure eskuek gozamenaren bidea ireki zuten, arinago ni bakarrik heldua nintzen lurraldeak aztertuz, plazeraren pozoia zainetaraino sartuz. Nire ezpainek zureen beharra zuten, nire eskuek zure izerdipeko larru gaztea laztantzea zuten helburu.

Biok bat bihurtu ginen, izerdipean, gozamenean, lizunkerian, une bakar batez izan bazen ere gau hura gure bihurtuz. Sexu hutsetik haratago egunerokotasunaren eta betebeharren trena amildegitik behera botaz.

Zure ferekek, laztanek, muxuek, belarrira xuxurlatutako hitzek, malkoek, arnasak, ahotsak, begiek zure egin ninduten, guztiz zureganatu ninduzun.

Hain ezaguna nuen gorriak, iraultzaren gorriak, beste esanahi bat ere aurkitu zuen egun hartatik aurrera: Pasioa, desioaren gorria, indarraren gorria, sexuaren gorria...

Hurrengo sei hileak hala moduz igaro genituen, zita bat hemen, beste bat han, Biarritz, Bartzelona, Donibane-Garazi... asteburu ahaztezinak, baina urriak, lar urriak. Nor ote zinen benetan, Maddi? Zein ote zen zure izena? nola jakin zure bizitzaren zein parte nintzen ni? Nola jakin galdetu ezin nezakeena?

Abenduarekin batera hotza eta Burgosko epaiketa iritsi ziren, nik neuk esan nizun barrikadak antolatu behar zenituztela, hala egin zenuten baina gauzak eskuetatik ihes egin zizueten. Ni etxean nengoen, irratitik berria entzun nuenean, 15 atxilotu eta 5 larri zaurituak, hildako bat. Bihotza hautsi zitzaidan, non zeunden ez nekiela, nori galdetu ez nekiela. Beldurra, hura bai zela benetako beldurra, arinago horrelakorik bizi gabea nintzen, nora joan, nori galdetu, baina zer galdetu? nik neuk ere handik alde egin beharra neukan, baina nola joan zu han utzita... Atea jo zuten, beranduegi al zen jada? Zure ahotsa entzun nuen:

*– Idi, ni naz, Maddi.*

*– Zelan zauz? Non sartu zarie? Zer pase da? Jun ein bi dogu, ezin gara gehixeu hemen gelditxu.*

*– Badakitx, etxien abise dot.*

*– Guazen.*

*– Guazen, nora?*

*– Maddi, lagun batzuk dekodaz Baionan. Guazen hara bixok, batera topako dogu zeuzer ta han be lan ein bi dogu kanpokoegaz eta berba eitxen.*

*– Guazen, ba.*

Baionan gauza asko ezagutu genituen, zinema, liburuak, kalean libre ibili ahal izatea, baina batez ere maitasuna, ez desio soila, ez pasio hutsa, baizik eta benetako maitasuna, maitaleen artean sorturiko harremana, paregabea, gazi-gozoa, akatsez beteriko perfekzioa.

Gogoan dut oraindik, elkar bizitzen hasi ginenean nola begiratzen nizun ate ostetik, nire presentziaz konturatu ez zintezen. Egongelako kulunka-aulkian jesarrita, liburu bat eskuartean eta kandela gorri hura ondoan zenuelarik. Keak inguratzen zintuen, fantasiazko pertsonaia bat bazina bezala, baina zure begien suak kea zeharkatzen zuen. Denbora igaro ahala zuri begiratzen jarraitu nuen; zure begien sua, ordea, ez zen inoiz itzali, nik haiek begiratzean sentitzen nuena itzali ez zen bezala.

Baina urteek gar guztiak itzal ditzakete, baita gurea ere. 1975ean Txiki eta Otaegi hil zituzten, lagunak zenituen, Euskal Herrira itzuli behar genuela esan zenidan, ez nengoen ados:

*– Ezin dogu hamen gelditxu, ostarabe herrira jun bi dogu, han oin inoz baino gehixau biher gaitxue, nire jentiegaz egon bi dot, nire lagunak ziran, eztozu aitxuten?*

*– Jungo gara, baia itxeron, itxeron pare bat hilebete. Gaur ezpada bixer hau dana aldatu eingo da. Niri be han egotie gusteko jasten, baia ezin danien ezin da.*

Baionara heldu ginenetik asteburu hura izan zen banan-duta igaro genuen lehena, oheko zuloak jan egin ninduen.

Azaroaren 20an Franco hil zen, 26an indultuak hasi ziren, baina prozesua astiro zihoan, astiroegi zuretzat. Gure arteko tirabirak, ordea, zurrunbiloen antzera zebiltzan, arinegi niretzat:

*– Hau ez da ez estatutua ez konstituzioa ez ezebez. Planta onak eitxen dabiz, baia benetan gure dabena eitxen dabe. Polizixek kalien jentie jo ta fuego jotzen dau eta oin, ganera, presoak urteten utzi, baia herbestera bialduko dabez. Holan bizitzeko egon gara hainbeste urte itxeroten?*

*– Gauzak astiro dabiz, normala da, beitxu gu geu bixer bertan ostarabe bueltan goiez Euskal Herrire, han dekoguz danak itxeroten, astiro doa baia badoa, badoa.*

*– Ez, ez doa, bai egixe da gu bixer bertan etxien egongo gara ostarabe, baia ze demokrazia klasetan? Zelako jentie eukiko dogu gobernuen?*

Herrira bueltatu ginen, baina arinago bertan sortutako pasioa ez zen berriro guregana bueltatu, ahaztu egin gintuen egunerokotasunaren trenak zanpatzen gintuelarik.

1977ko uztailaren 19an ikusi zintudan azken aldiz, "askatasunaren ibilaldia" herrian sartzen ari zen, eta plazan geunden denok zain, herria berriro batua zegoen, hainbeste kolpe, hainbeste min, hainbeste momentu ilun bere fruitua ematen hasi ziren, libre izateko bidea irekitzen ari zen. Nire ondora inguratu zinen, maleta bat zenuen eskuartean, bazin-

doazela ulertu nuen, zuretzat borrokak beste bide bat hartua zuen.

Besarkada, muxua, ibilaldia herrian sartu, eta zuk alde egin zenuen.

***Egin egunkaria:* 1981eko otsailaren 16a**

*Madrilen atxilotu zuten bart Maite Iturralde "Maddi", Bartzelona Komandoa desegin zelarik*

---

**Oharra:** Ipuin honetan erabilitako bizkaierak ez ditu euskalki horren arauak betetzen, Bizkaiko eskualde jakin bateko zuzen-zuzeneko hizkera jaso nahi izan baitut.

# PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Puntu ta komak garagardo aparretan

Alots Arregi Izagirre
Ikasberri ikastola
Azpeitia

Hegazkinen zarata, goizeko bederatzietan. Bilbotik, maitasunaren lurraldera irteten da hegazkin berbera, goizero. Parisera doan hegazkin horren barruan bidaiatzen dudala amesten dut sarri, baina nire larruazal biluzira itsatsita geratzen zaizkidan maindire zuriek deuseztatzen eta debekatzen didate ametsa. Gaur ez nuen lanera joan nahi. Une batez, sabaira begira geratu nintzen, irmo, nire buruan biraka, erabaki bat zebilen artean. Erabakia, ez zen izan batere erraza. Ez bainekien erabaki bakoitzaren ondorio garbia. Alde batetik, lanera joan behar nuen, izan ere nire lehen hilabeteko laugarren astea izango zen hura. Laster emango zidaten hainbeste lan egin ondoren itxaroten nuen ordainsaria, eta ez banintz agertuko litekeena zen ordainsari gabe geratzea, edo are okerrago, lan barik geratzea hilaren amaian. Bestalde, gustura geratuko nintzen, jada beroak zeuden izaren azpian, etzanda, biluzik, maindire haiek soilik babesten nindutela neguko hotzetik. Bart gauean edan nituen garagardo guztien zaporeaz oroitzen eta eskua bular aldera eramanez, ea taupadarik baden hor inguruan. Baina bihotza atzo gauean azken tabernan lapurtu zidatela ohartu nintzen.

Eta orain, bihotz bako koma bat naiz, mila punturen artean.

Bihotza lapurtu zidan dama gaztearen siluetarekin oroitu nahian eman nituen sabai zuriari begira iragan ziren bost minutu eta hogeita bost segundoak. Eta bost minutuek bost minutu izateari utzi zioten momentuan, segundoan, hartu nuen nire bizitza modu batera edo bestera markatuko, sinatuko, tatuatuko zuen erabakia. Bi aukera posibleen artean, komenigarrien eta aldi berean ekonomikoen zitzaidana hautatu nuen. Modu batera edo bestera, lanera joatea esan nahi zuen horrek.

Beraz, orain bi aste txortan horitu nituen maindire zuriak kentzen nituen, apurka-apurka, presa barik, neure lasaitasunean, parkeetako usoei jaten ematen dien agure baten gisan (lanera hamaiketan sartzen bainintzen, eta oraindik ez ziren bost minutu besterik pasa, nire etxeko sabai zurian nire duden erantzuna idatzi zidanetik, sabaietako sorgin txiki hark).

Izara horituak ohe gainean abandonatu nituen. Eta biluzik, ene amak mundura ekarri ninduen modu berean, bainu gelara joan nintzen. Dutxako txorrota ireki eta eskua ur azpian jarri nuen, nahiz eta aldez aurretik jakin ura ez zela berotuko. Izan ere, nire apartamentuan pilaturiko butano bonbona guztiak hutsak zeuden eta buzo laranjadun gizonak beste bat ekarri zain egon baino, nahiago nuen, kizkurturik, bainu azkar bat hartu, kloroz jositako urezko gortina hotzaren azpian. Gorputza jelatu zidan bainu hura hartu ostean, gorputz osoan nuen hezetasuna, ur tanta suizidetan erortzen utzi nuen. Ez baineukan ezer bustia lehortzeko. Eskasia guzti haren erdian, komunean, erotismoa eta pornografia gai nagusitzat duten aldizkari haien guztien artean, poesia liburu bat aurkitu nuen. Berau leitzen eman nituen lehortu artean iragan ziren segundo eta minutu guztiak.

Hainbat alditan irakurria nuen liburu hark ni gatibu hartzeko aukera izan zuen, nik bere puntu eta koma guztiak irakurtzen nituen bitartean. Baina liburu hark, preso hartu baino, askatasuna oparitu zidan. Izan ere, bertan, bertako koma bakartietan, nire isla soila agertzen zen. Liburua amaitu nuenean, koma haiek inguratzen zituzten hizkiak, hizki haiek eratzen zituzten hitzak eta hitz haiek eraikitako esaldi perfektuak, ene oroimenean tatuatu zitzaizkidan. Bihotzean ezin baitziren marraztu, ez margotu.

Liburua eskuetan itzali eta komuneko atea irekiz, berriro logelara itzuli nintzen. Han zeuden hamabost egun lehenago horitutako izarak, nire zain, bere gizonari itxaroten dagoen emazte ezkonberri bat legez: oraindik bere begietan ilusioa eta pasioa antzematen direlarik, postura sentsual bat muntatuz bere gorputzeko atal guztiekin, eta kamisoi transluzido batek soilik ezkutatzen dituelarik bere gorputzeko parterik intimoenak. Horrelaxe zeuden ene izara maiteak. Momentu haietan kasu egin ezin nien izarak.

Beraz, armairu arrea ireki nuen eta kaxoi batetik, *slip* gorriak atera nituen. Urte amaierarako gordetzen nituen, baina falta zitzaidan bihotz gorri hura ordezka zezakeen gauza bakarra zen barruko arropa hura. Apal batetik kolorea apurka-apurka ihes egiten ari zitzaion niki beltza atera nuen, eta ohe ondotik amak aspaldi oparitu zizkidan galtza bakeroak hartu nituen. Urteetan eratu zitzaien epeltasun berezi bat zuten, horrek maitatua sentiarazten ninduen, eta, egia esan, orduan inoiz baino behar gehiago sentitzen nuen.

Begiak itxi nituen, oroimenean bidaiatzeko.

Gogora etorri zitzaidan nola, nire gurasoen etxean, "keroseno"-zko berogailu hark etxe guztia berotzen zuen bitartean, nik, burua nire amaren magalean jarrita, lo hartzen nuen; beti aurrean izaten nuen telebistan agertzen ziren dama gazteen eta gizon galaien elkarrizketak entzunez. Nola gauaren erdian, ene ama maiteak, nik oharkabean ametsetan baztertzen nituen maindire garbiak, bere lekuan jartzen zizkidan.

Une hartan berriro ume sentitu nintzen. Hatza ahora eramaten duten haurretako bat nintzela sentitu nuen.

Gustura sentitu nintzen.

Galtzontziloak jantzi nituen lehenik, bihotza edukitzea zer zen oroitzeko. Ondoren, niki beltza sartu nuen burutik behera, nire urterik onenetaz akordatzeko. Eta, azkenik, "jeans"-ak jantzi nituen, berriro, maitatua senti nendin.

Nire maindireei azken begiratu bat emanez, sukaldera joan nintzen. Batzuentzat eguneko otordurik garrantzitsuena izango zena egitera. Hozkailutik esnea hartu nuen, eta hozkailuaren alboan zen armairutik gelditzen ziren kafe-hauts hondarrak. Mikrouhin labearen ondora joan nintzen, ezker eskuan tetabrika eta eskuin eskuan kafe potea nituelarik. Normalean, lehenik, kafea botatzen nuen edalontzira eta ondoren, esnea. Baina alderantziz egin nuen, eta horrek nolabaiteko zirrara berezi bat sortarazi zidan gorputzean. Bihotz bat banu bezala, korrika. Kafesnea, artean hotza, mikrouhin labean sartu nuen berotzeko. Bitartean, esnea eta kafea bere lekuan jarri nituen eta plastikozko arrain-ontzian ziren plastikozko arrainei, plastikozko arrainentzako janaria bota nien. Mikrouhinak kanpai hotsa atera zuen. Nire gosaria beroa zen jada. Kafe kikara hartu, kafesnea nahastu eta, bi tragotan, amaitutzat jo nuen batzuentzat eguneko otordu garrantzitsuena dena.

Segidan, kartera eta etxeko giltzak aldean hartuta, sarrerara joan nintzen. Azkenean, etxetik irteteko asmoz.

Nire ezusterako, ordea, ohar bat nuen irteerako atean, "post-it" batean idatzirik. Mezua, hizki ulergaitzez idatzirik zegoen. Mozkorturik etxeratu zen baten mezua zirudien hark, honela zioen:

*"Gaur ez nauk agertuko etxera afaltzera eta agian ezta bazkaltzera ere.*

*Bakarrik afaldu beharko duk. Nahi baduk, eraman ezak atzo gaueko neska hura etxera.*

*Larrialdietako kasuan, ez deitu niri. Eskuak okupaturik izango ditiat ziurrenik eta. Gainera badakik segapotoak gorroto ditudala.*

*P.D. ~~Bihar~~ Nahi baduk, nire logelan, atzo sobera geratu zitzaidan "kannabis"-a daukak.*

*Bihar arte, kanpeon."*

Nire pisu-kidearen oharra zen. Ziur nengoen, alde batetik, berak bakarrik deitu ohi didalako kanpeon, eta, bestalde, berak bakarrik zekien bart gaueko dama harekin gertatu zitzaidana.

Unibertsitatean, pisu hartantxe elkar ezagutu genuen, eta oraindik han bizi gara. Niretzat, inoiz eduki ez dudan anaia txikia bezala da. Horrexegatik jakin ohi du niri gertaturiko edozer. Gure artean den konfiantzak guztia kontatzeko aukera ematen dit. Baina aspaldi honetan, unibertsitatea amaitu nuenetik, aurkitu nuen lehendabiziko lan hau dela eta, ez dugu horrenbeste ikusten elkar. Bakarrik naiz mundu alu honetan.

Pisua bere senitarteko batena zen berez. Baina bera ez zela bizi hemen-eta, apartamentua beherapen batekin alokatzea lortu genuen. Orduan, zortea nire alde zela esan nezake, nire laguna zela; baina, orain, guztia buruz behera, alderantziz, ikusten dut. Bakardadeak mundua ilundu dit.

Oharra atetik kendu eta galtzen ezker patrikan gorde nuen, orain bi urte erosi nuen menda-zaporedun txiklearen eta atzo gauean herriko tabernan erosi eta erabiltzerik izan ez nuen preserbatiboaren artean.

"Post-it"a ondo gordea nuelarik, atea ireki eta nire apartamentua eta kalea banatzen dituzten eskailera garbitu be-

rriak jaisten hasi nintzen. Berrogeita hiru eskailera jaitsi behar nituen, kalera joan nahi banuen. Nire kasuan ordea, beharrak bultzatu ninduen bi pisu haiek jaistera. Behera nindoala, zortzigarren eskaileran, pausatu egin nintzen. Eskailera hura nire arazoen konponbide izango balitz bezala. Behera jaisteko zazpi eskailera besterik falta ez zitzaizkidanean, zortzigarrengoan, eseri egin nintzen. Han egon nintzen bizpahiru minutuz. Zerbait gertatuko zen itxaropenez. Baina haurdun zegoen hogei urteko neska gazte bat eta goizean goizetik maiseaketan ibiltzea gustatzen zaion amona bat besterik ez ziren pasatu nire ondotik. Ero bat banintz bezala begiratuz, eskaileretan gora joan ziren. Inoiz, inork ez zidan horrela begiratu ordura arte. Baina ezta ere, inoiz, inon ez nintzen egon bihotzik gabe, ordura arte.

Ukalondoak belaunetatik kendu eta zain egoteari utziaz jaiki egin nintzen. Falta zitzaizkidan zazpi eskailerak, bihotzik gabe jaitsi nituen. Kalearekin aurrez aurre aurkitu nintzelarik.

Taupadarik gabe, kalean aurrera abiatu nintzen. Pauso bat bestearen atzetik emanaz. Urrats batek bestea ekartzen zuelarik; bien bitartean, inguruan nuen jendeari begiratzen niolarik.

Bihoztun jendea, bihotz biluzikoak, armadura herdoildu zaien gerlarien bihotzak, bihotz hautsiak, bihotz berrerabiliak eta bihotz birjinak.

Bihotzik gabeko jendea, bihotz galdukoak, bihotz gabeko buru makurrak, pertsona izan nahi duen jende bihozgabea, gaixoak, eroak eta eskaleak.

Kale kantoietan, bere bizigabetasunean, lo dirauten eskaleak. Oraindik bizi direla amesten duten eskaleak. “Fra-

gil" idatzirik duten kartoi zaharkituen azpian, egon, dauden eskaleak.

Haiei guztiei begiratzen nien. Mundu honetan, nire existentzia adjektibo batekin kalifikatu ahal izateko. Haien guztien artetik igarotzen nintzen, kamuflaturik. Inora joan gabe, leku guztietatik ihes. Bularrean nuen parentesia, hitz soil batzuek beteko zuten itxaropenarekin. Espaloian aurrera jarraitzen nuen. Nahiz eta kalearen amaiera ez ikusi. Nire begirada jende artean nuen galdua eta bihotza... Bihotza ere, hor nonbait zen. Galdua. Ostendua. Lapurtua.

Hainbat pausu haratago, espaloiaren amaieran izango nintzen. Nahiz eta amaierarik ez ikusi, banekien. Beti han izaten baitzen. Egunak joan eta egunak etorri, beti han zen espaloiaren amaiera deitzen genion hura. Zituen pitzadura, zati galdu eta autoen keak eragindako iluntasun hark jakinduria adierazten zuen. Denborari kendutako jakinduria. Ziurrenik, bera izango da, jendea nondik datorren eta nora doan dakien bakarra. Ziurrenik, berak bakarrik jakingo zuen ni nondik eta nora nindoan ihes. Seguru asko, bere gainetik igarotzen diren biziak eta bizigabeak norberak baino hobeto ezagutuko ditu. Apika, jakingo zuen nire bihotz gabetasunaren berri. Agian jakingo zuen nire bihotz biluzia non zegoen. Agian. Baina alferrik zitzaidan, informazio hori bere eskuetan izatea. Behin eta berriz galdegin arren, ez bainuen erantzunik jasoko. Beraz, hurrena handik igarotzerakoan, espaloiaren hasiera izango zen hura atzean utziaz, jendartean aurrera jarraitu nuen.

Orain, beste espaloi batean nintzen. Jendez beteriko beste espaloi batean. Pertsona haien guztien begietan nire bihotza aurkitu ezinean, eskuinera nuen hormako pintadetan aurkituko nuen itxaropena nuen. Han milaka bihotz zeuden

marrazturik. Batzuek bikoteen izenak zituzten, beste batzuek, aldiz, galdera ikur bat zuten margotua. Baina guztiek, guzti-guztiek, zeukaten jabe bat, eta ez nintzen gai inori bere bihotz tatuatua lapurtzeko, adreiluzko horma hartatik.

Erotzear nintzen. Bularrean ez neukan bihotzik, eta buruan, buruan neurona guztiak garezurraren kontra talka egiten ari balira bezala nengoen. Oihu egin nahi nuen. Laguntza eskatu. Garrasi egin nahi nuen. Korrika ihes egin. Deiadar egin nahi nuen eta, aske, hegan egin.

Nekatzen hasia nintzen. Nekatzen eta erotzen. Hogei bat minutu besterik ez ziren paseak izango etxetik atera nintzenetik, baina hogei minutu haietan, inoiz baino gehiago pentsatu nuen. Gehiegi. Eta nire burua ez zegoen ohitua, horrenbeste bira ematen oroimenean. Nire zentzuen gaitasuna, berriz, ikaragarri handitu, indartu zidan bihozgabetasun hark. Mila gauza ikusten, entzuten, sentitzen, usaintzen eta sumatzen zituen. Horrek erotzen eta nekatzen ninduela iragarri nion neure buruari.

Ez nuen gehiago pentsatu behar. Baina zailegi zitzaidan gauzatzeko. Zentzu guztiak bizi-bizi nituelarik, ezin nuen burutu. Ezinezkoa zitzaidan ez pentsatzea, eta ezin pentsatu gabe egon hartan burutapen bat izan nuen. Pentsatu nuen pentsa nezakeela; baina gauza, egun, bizi, gorputz batean soilik pentsa nezakeela. Zentzu guztiak puntu batean kontzentratu behar nituen, eta, saiatu, saiatu nintzen. Baina ezina zen. Ezina zen jendarte hartan, beraz, berriro ihesean jarraitu nuen. Edonora, baina ihes. Klaustrofobia banio bezala jendartean egoteari, noraezean nindoan. Jendearengandik nindoan ihes, hasieran; baina, pausu batzuk haratago, ez zen jendea atzean utzi nahi nuena, nire burua baizik. Nire bihotza inoiz izan zela gogorarazten zidan Pandoraren kutxa

hura baztertu nahi nuen. Niretzat bihotz hura jada ez baitzen. Edo ez bainekien zen edo ez zen. Modu guztietara ere, nire oroimena fusilatu egin nahi nuen. Beldurra ematen baitzidan inoiz bihotz bat izan nuela gogoratzeak; eta, izua, apika, inoiz ez dudala berreskuratuko pentsatze hutsak.

Ez nuen ezer ikusten. Begiak itxita neuzkan. Itsututa aurrera nindoan, espaloi berri hartan. Esan nezake maitasunak itsutzen ninduela. Maitasunagatik nengoen bihotzik gabe. Eta bihotz gabeziagatik nengoen itsu. Begiak irekitzea lortu nuenean begirada galdua nuen, burua galdua, norabidea galdua. Begirada. Norabidea. Azkenik lortu nuen, eskizofrenia hartatik ihes egitea. Zentzu guztiak puntu batean nituen kokatuta. Nongo usaina, nongo ikusmira, nongo zarata, musika, noren sentipena? Ingurua aztertzen ari nintzen zentzu guztiekin, nire kokapena aurkitzeko. Inguruan taberna ugari nituen. Baina haietako batek soilik lortu zuen nik nire begirada han finkatzea. Bart gauean izan nintzen azken taberna zen. Bihotza galdu nuen taberna. Parranda usaina zerion. Kalimotxoak eta garagardoak nahastutakoan ateratzen duten usain higuingarria. Higuingarria. Aurreko eguna, aurreko gaueko gauzak, gaizki egindako gauzak, normalean gogoratu nahi ez diren gauzak.

Barruan lauzpabost pertsona izango ziren, asko jota.

Pausuak ematen ari nintzen, tabernara gidatzen ninduten pausu haiek. Agian, han kokatu bainezake nire existentzia espazio batean eta nire norabidea finkatzea lortu. Jada tabernarekin parez pare nintzen. Eskua atean jarri eta barrurantz bultzatu nuen. Ateko kartelak hala esaten baitzuen. Atea irekitzeaz bat sartu egin nintzen. Eta sartzeaz bat, beste unibertso batean banengo bezala aurkitu nintzen. Denbora eta espazio ezberdin batean. Bazirudien hura zela mun-

duaren muina, han hasten zirela, eta han amaitzen, munduan diren izaki eta gizaki guztien erantzunik gabeko galdera zailak, baina errazak modu berean. Sartzeaz bat, orain naizen munduan, orain naizen denboran eta orain naizen galderen artean kokatu nintzen.

Barrarantz joan nintzen. Garagardo bat eskatu nuen, atzo gaueko azken garagardoaren zaporeaz oroitzeko. Garagardoa eskuan nuela, orain nagoen bankura abiatu nintzen. Orain nagoen bankuan eserita eman nion garagardoari lehen tragoa. Eta lehen tragoarekin hasi nintzen nire norabidea finkatzeari buruzko galderei erantzunak bilatzen. Lanera joan behar nuen, berez. Baina nire norabidea ez bazen lanera joatea? Eta nire norabidearen amaiera taberna hau izango balitz? Baliteke patua izatea, taberna hau izatea, nire bihotza berriro eskuratuko dudan unibertsoa.

Patrikatik tabako paketea eta metxeroa atera nituen. Zigarreta bat piztu nuen eta galderei erantzuna bilatzen jarraitu. Orain arteko galdera guztiak beste galdera batzuekiko erantzunak izan ziren. Baina komunean ostenduta zegoen liburu hark esaldien arteko hutsuneak irakurtzen irakatsi zidan, irakurri nuen aldi bakoitzean. Eta galdera haien guztien arteko hutsuneek nire erantzuna ezkutatzen zuten. Hutsune haietan hitz bi soilik agertzen ziren. Azken taberna adierazten zidaten. Orain nagoen taberna.

Agian, erantzun hori nik asmatua izango zen, taberna horretan egon nahi nuelako.Baina berdin zitzaidan. Erantzuna asmatua izan edo ez, erabakia hartua zen. Tabernan geratu nintzen.

Eta orain, hemen naiz, zain. Nire zigarroak eragiten duen behe-laino batean murgildua. Bizi berri bat hasi nahian. Klasikotasunean. Lehengo modu berean agian.

Nire bizitzako orrialde zuriak bete dituen ipuina berriz hasieratik idatzia izango balitz. Apika...

Egun berri bat, bihotz berri bat. Baliteke...

Nire bihotza duen dama gaztea berriz hona itzuliko balitz. Orduan, litekeena da...

Baina bitartean zain naiz. Hegazkin zuriak, bihotz berria edo emakume hura berriz itzultzeko zain, berriz agertzeko zain. Ez dakit zeren zain. Baina zain geratuko naiz, zigarroa ezpainetan eta garagardoa eskuetan dudala. Inoiz, berriro biziko naizen itxaropenarekin. Zain. Bihotzaren ordez, galtzontzilo gorriak ditudalarik. Eta, oroimenaren ordez, nire galtzek eta kolorea joaten ari zaion niki beltzak eragindako oroitzapenak ditudalarik. Espazio eta denbora ezberdin batean. Erlojurik gabe. Estresik gabe. Zain.

# Mendian gora haritza

Lierni Esnaola Aldanondo
Sto. Tomas lizeoa
Donostia

Ilun dago bidea. Ilunegi, aurrean dudana ikusteko. Argi pizgailuaren bila nabil, baina ez da inon ageri. Begiak ahalik eta gehien zabaltzen saiatu naiz eta burua alde guztietara mugitzen, baina ez zait argi izpirik heltzen. Beldur naiz. Pasabide ilun eta bukaezin batean barneratu naizela iruditzen zait, atzera bueltarik ez duen zulo sakon batean. Hil egin ote naiz? Agian, hau da munduko bizitzaren amaiera, gorputzak bere lana eten eta arima aske geratzen denekoa. Edo beharbada istripu baten ondorioz oso larri nago, koma egoeran. Gogoratzen saiatzen ari naiz; nor naizen, non nagoen, zer gertatu zaidan..., baina ez dut ezer gogoratzen. Negar egiteko gogoa sentitzen dut, baina ba al dut begirik negar egiteko? Oihu egingo nuke, baina ez dut nire ahoa topatzen. Korrika hasi eta hemendik alde egin nahi dut, baina ez dut mugituko nauten oinen arrastorik ere.

Ez begi, ez aho, ez oin..., baina horiek guztiak baino garrantzitsuagoak diren sentimenduak ditut. Beldurra, gogoa, nahia... sentitzeko gai naiz, hortaz bizirik nagoela ziurta dezaket. Bizirik, bai, baina zer egoeratan? Agian hilik egotea hobe izango nuke bizirik jarraitzea baino. *JARRAITZEA*. Hori da nire buruak erabili duen hitza. Hortaz, orain arte bizirik egon naiz. Horrek zer pentsatua ematen dit. Alde batetik, badakit ez naizela jaioberri bat, eta, bestetik, nire adinaren berri izan nahi nuke. Zeuk agian adina garrantzirik gabeko datu bat dela pentsatuko duzu, baina oker zabiltza. Ez da berdina hamar urteko gaztetxo bat izan eta bizitza osoa aurretik edukitzea edo bizitzako izerdi gehienak bota ondoren zahar-etxe batean bizi den agurea izatea. Ez dakit itxaropenari eutsi ala aske utzi. Gaztea naizela jakinez gero, zulo ilunetik irteteko esfortzua egiteko prest nago, baina azken egunetara hurbiltzen ari banaiz, nahiago dut lasaitasun osoz bukatu, gogoeta luze eta sakon honi jarraipena emanaz.

Ez dut deus ere ikusten eta ez zait aurpegi bakar bat ere etortzen irudimenaren plasmara; eta entzuten ahaleginduko banintz? Edota pertsona baten ahotsaz gogoratuko? Aurrerapauso handia izango litzateke, dudarik gabe. Momentu batez ideia hauei guztiei atseden hartzen utziko diet eta oroimena, aldiz, lanean jarriko.

Ezer ere ez. Lehen bezala jarraitzen dut. Oraingoan inpotentzia sentitzen hasia naiz ordea. Saiatu eta saiatu ari naiz, baina ez dut fruiturik jasotzen. Hala ere, berriro ekin diot. Kostata baina azkenean lortu dut. Zerbait entzuten dut..., ez da batere argia..., ez dut uste pertsona baten ahotsa denik, jarraituegia baita. Geroz eta argiago entzuten dut. Benetan zaila da une hau hitzez azaltzea; doinu zerutiarra da, aingeruen erreinuan entzuten dena..., *MUSIKA* da. Soinuaz gain kontzeptua bera ere oroitzeko gai izan naiz eta horrek hobeto sentiarazi nau. Hazken hau oso sentsazio atsegina izan da. Zer da baina? Lortzea zaila egiten zitzaidan helburu bat gauzatu dut. Hasieran ez nintzen ezer eta orain, berriz, gustura sentitu eta neure burua baloratzera heldu naiz. *MORALA* igo zait. Hori da! Entzumenari esker bi ideia garrantzitsu gogoratzea lortu dut. Jada hasierako beldurra uxatzen hasia da eta pasabide ilunean pixkanaka-pixkanaka aurrera noa, atzean utzitakoari erreparatu ere egin gabe.

Oso argi entzun dut Musika. Abesti lasai eta gozo bat zen. Ahots sendo batek euskaraz abesten zuen eta letrari ere erreparatu diot, baina ez dut guztiz ulertu. Baliteke nik irudikatzea lortzen ez dudan zerbaitez mintzatzea. Hiru hitz argi eta garbi entzun ditut: “Mendian gora Haritza”. Abestiaren letra luzeagoa ba, baina esaldi hau ahaztu ezinean nabil. Hala ere, ez dut irudikatzea lortzen. Lehen entzumenarekin egin dudan esfortzu bera egiten saiatuko naiz, emaitza

ona emango didan itxaropenez. Ez da batere erraza, nekatu egiten bainaiz. "Mendian gora Haritza...". Bat-batean kolore bat ikusten hasi naiz. Ez dut bere izena gogoratzen, baina ederra da eta forma berezi bat hartu du; gainera, behe aldean zabala da eta apurka-apurka estutuz doa; behe aldetik gorantz. GORA! Hiru hitzeko bat ulertzea lortu dut! Baina zer da "mendia"? Eta "haritzak" zer esan nahi ote du? Eta kolore erakargarria duen forma bitxi hori? Guztia lotua dago. Une batez irudi eta kontzeptu guztiak lotzen saiatu naiz, eta baita lortu ere. "Mendian gora Haritza". Ulertu dut mendia zer den; ulertu dut haritza zuhaitz mota bat dela, baina hori guztia baino garrantzitsuagoa den zerbait lortu dut. Gizon bat irudikatu dut abesten, gizon ezagun bat, baina bat-batean izugarrizko izua sentitu dut eta, ahazten saiatu arren, ezin izan dut. Bestalde, neure burua ezagutzen jarraitu eta jada irudiak ikusteko eta soinuak entzuteko, gogoratuz, noski, gai naizela ohartu naiz. Horrek nire moralari aurrerapauso bat gehiago ematen lagundu dio, nahiz eta azkeneko irudi horretan baden zerbait izutzen nauena, atsegin ez dudana.

Gizona sendoa da, bere ahotsaren gisakoa. Ile kizkur eta beltzarana du; aurpegia, berriz, atsegina, baina aldi berean begirada hotzekoa. Egurrezko aulki batean eserita dago eta bere besoek gitarra zahar bat besarkatzen dute. Hura astinduaz eta kantuan ari den bitartean benetan zoriontsu sentitzen dela dirudi, baina oraindik ez dut ulertzen bereganako beldur horren zergatia.

*ZORIONTSUA*. Bi aldiz pentsatu ere egin gabe aipatu dut hitz hori. Gustukoa dut. Bere jabe izatea gustatuko litzaidake eta mundu guztiarekin banatu. Baina, bestalde, badakit ezinezko ametsa dela; hortaz, alde batera utzi dut.

Soinu bat entzuten hasi naiz. Hori, ordea, ez dator nire oroimenetik. Benetan ezatsegina da. Monotonoa eta aspergarria da. Pii... pii... pii... Ez da isiltzen. Baina nire barnetik ez badator, zalantzarik gabe, belarrien bidez jasotzen ari naiz. Hortaz, ziur nago bizirik jarraitzen dudala. Ez da berri txarra, baina zein egoeratan nagoen pentsatze hutsak beldurra ematen dit. Ziurrenik erietxeren batean nago, auto istripu baten ondorioz larri zauriturik. Bestalde, soinuak entzuten hasia naizenez, hobeto nagoen seinale izanen da.

Kolore berri bat ikusten dut orain. Aurrekoa baino argiagoa. Horrek, ordea, ez du forma berezirik. Uste dut txuria dela. Soinua bezala, hau ere ez da nire imajinazioaren asmakizun bat, kanpoaldekoa ikusten ari bainaiz. Begiak zabaltzea lortu dut, baina ez dut txuria besterik ikusten eta ez naiz nire gorputza mugitzeko gauza.

Honela igaro dut denbora apur bat, ziurrenik erietxeko logela hotz bateko sabaiari begira eta nire bihotz taupaden erritmoa entzunaz. Pasabidearen amaierara heldu naiz. Iluntasuna atzean utzi dut eta orain non nagoen ez jakin arren, ez dut hasieran adinako beldurrik. Oharkabean norbaitek logelako atea zabaldu duela entzun dut. Ondoren, pauso hotsak eta azkenik emakume baten ahots atsegina. Oraindik ez dut ikusterik lortu, ezin baitut lepoa ere mugitu. Hurbiltzen hasi den heinean bere aurpegia ikusi ahal izan dut. Begi handi eta ederrak ditu, ikatza bezain beltzak, sudur txiki eta borobila eta ahoa, berriz, handi samarra, baina hortz zuri politez betea. Bere ile gorrixka ikusteak alaitu egin nau. Jada zulo beltzetik at nago eta sekula baino bizitzeko gogo handiagoa sentitzen dut nire zainetan barrena. Nire inguruan dauden makinak aztertzen dituen bitartean non nagoen galdetzera ausartu naiz.

Zur eta lur geratu naiz. Negarrari emango nioke, baina ahulegi nago horretarako. Zulo ilunetik kanpo nengoela uste nuen, baina oraindik ez naiz sakoneraino heldu. Orain guztia ulertzen hasia naiz, baina dagoeneko beranduegi da. Jada zentzua hartu diot nire buruan bueltaka ibili den gizon sendo hartaz oroitzean sentitzen nuen izuari. Hura, ziurrenik, geure gaztetako une zoriontsuren bat izango zen, baina gauzak asko aldatu dira, antza. Nire bi semeen aita da, eta baita ni hemen egotearen erruduna ere, hala esan du behintzat Emakumeentzako Laguntza Etxeko erizainak.

Ez dut imajinatu inoiz neure burua egoera honetan egon zitekeenik. Esnatu artean mila hipotesi izan ditut buruan bueltaka, baina sekula ere ez nire senarrak jipoituta bukatuko nuenik. Hala ere, hori ez da okerrena. Sendatzen naizen artean hemen egon ahal izango naiz, baina ondoren ez dut nora joanik izanen. Nire senarra kalean aske dabil, eta, ni behin egurtzeko gai izan bada, berriro ere saiatuko da, ni akabatu arte. Eta orduan zer? Agian beste baten bila joan eta hari ere berdin egingo dio.

Erizaina logelatik atera da eta bakarrik utzi nau. Ni ohartu ere egin gabe makina zaratatsuak itzali ditu eta isiltasunean utzi nau. Baina, hala ere, nik zerbait entzuten jarraitzen dut: “Mendian gora Haritza…”

# Oroitzapenetan galduta

Aintzane Zubeldia Iturralde
Aralar institutua
Alegia

Esnatu naizenean ohartu naiz gaur udako oporrak hasi direla. Etxean sekulako iskanbila zegoen umeekin eta normalean eskolan egoten dira, etxeak hondartza bat dirudi orduan. Belarria gehiago findurik, musika eder bat entzuten da altzoan, bai goxoa, bai erakargarria. Hori nire garaiko abesti bat dela uste dut, ongi ez gogoratu arren. Halako batean Karmen sartu da nire logelan.

– Zer, gaur ere hamabiak arte ohean egon behar al duzu? Beste ezer egiten ez al dakizu zure 70 urterekin? Badakizu ba gaur oporretara joan behar dugula, edo ez gara gogoratzen? Mugi zaitez, oraintxe etorriko naiz zu janztera.

Hori nire alaba da edo hori esaten du behintzat. Egun guztia garrasika pasatzen du eta bereziki nirekin. Nik ez dakit zer egin diodan, inoiz ez baitiot ahotsik jaso bera garrasika hasi zaidanean. Seguru aski arrazoia nire buruan dago. Nik gauza asko ahazten ditudala esaten dit egunero, Altzaimerra dudala. Bere ustetan izango da hori, ni gaztetako gauza guztiez oroitzen bainaiz. Egia da askotan ez ditudala familiakoak ezagutzen eta orduan gaizki sentitzen naiz beraiengatik, baina ni ez naiz ezertaz ohartzen.

Etxean dugun panorama ikusirik, esan behar da Karmenek gizon bat duela, inoiz etxean egoten ez den horietakoa. Bere izena ez dut gogoratzen, baina badakit bi alaba eder dituztela, 16 eta 12 urtekoak. Berriro esan behar dut ez naizela gogoratzen izenekin, oso txarra bainaiz izenak gogoratzeko orduan.

Karmen ere etorri zait janztera eta ari zen bitartean marmar batean aritu da. Nik etxean min egiten dudala ez naiz ohartzen eta etxean egoten den iskanbilak ere ez dit inongo kalterik egiten. Geroago gosaldu eta irratia entzuten jarraitu dut. Irratia ikaragarri gustatzen zait, gure garaiko abesti eta programa asko egoten baitira.

Alabak bere maleta prestatu orduko autorantz abiatu gara, denak inoiz baino alaiago. Auto hura ez da berri horietakoa. Soinuarengatik bakarrik, garbi dago berria behar duela izan, are gehiago ikusita txapako kolore gorria nola joaten ari zaion. Gizonak, ordea, ez du diru asko irabazten, gu mantentzeko ere larri ibiltzen da.

Errepidean segi eta segi ari gara, batere gelditu gabe. Kotxeak ez du aireztagailurik eta barruan goazenak itotzen ari gara. Paisaia ere asko aldatu da gure begientzat. Etxetik ateratakoan mendia besterik ez nuen ikusten, Larraitzen bizi baikara. Orain ordea dena lehor-lehorra dago. Hilabeteetan urik ez zutela ikusi ematen zuen eta han bizi behar zutenek ere horrelako lehortasuna edukiko al zuten pentsatzen joan naiz.

Halako batean, gasolinera batean geratu gara, depositua betetzeko asmoz. Nik ordea txiza-gura dut eta alabari laguntzeko eskatu diot. Komunera ailegatzean ilara dagoela ohartu gara eta atzean jarri gara. Ni zain nagoen bitartean alaba jateko zerbait erostera joan da. Nik ilaran itxaroten jarraitu dut, alaba noiz etorriko. Jada denbora asko da joan dela eta arduratzen hasita nago. Asperturik eta kezkaturik nagoela kanpora irten naiz. Bertan ez dago lata moduko autorik, joan egin dira.

Hasieran gaizki ikusi dudala pentsatu dut, baina berriz begiratzean ere hor ez dagoela ezer ohartu naiz. Utzi egin naute inongo azalpenik eta inongo babesik gabe. Bakarrik nago bizitzaren aurrean, inor gabe, babesik gabe... Gaizki sentitzen naiz, ez nuen uste etxean horrelako kalte jasangaitzik egiten nuela. Nik ezer ez dut nahita egiten. Badakit ezin dudala ezer bakarrik egin, baina inoiz ez nuen pentsatu nire alaba propioak abandonatu egingo ninduela.

Ikaraturik eta zer egiten dudan kontrolatu gabe, gonan pixa egin dut. Dena busti-busti geratu naiz. Gaizki sentitzen naiz egin dudan kalte guztiarekin eta nire buruarekin oso haserre nago. Nire bizitzako helburua ez da inoiz izan besteei kalte egitea eta gutxiago nire alabari, baina egindakoa ezin da aldatu. Pentsatzen ari naizela gauzak joaten hasi zaizkit burutik eta halako batean ez naiz ohartzen zergatik nagoen hor bakarrik eta non dagoen nire alaba.

Orain oso galduta nabil, ez baitakit ezer. Gona ere bustita dudala ohartu naiz, baina ez diot inongo garrantzirik eman. Han urrutian aulki bat ikusi dut eta harantz joan naiz poliki-poliki. Bidea ikaragarri luzea da. Joan eta joan eta inoiz ez naiz iristen. Horrek basamortua dirudi, ahoa lehen ikusitako lurra bezain lehorra dut, bista nekaturik dut eta bi ikusten ditut bat ikusi beharrean, eta bankua beroaren ilusio bat izan daitekeela ere pentsatu dut, baina azkenean iritsi naiz.

Berriz ere eserita nagoela zer gertatu den gogoratu nahian hasi naiz, baina ezin. Nik bihotz guztia jartzen dut, baina ezin. Orain tristetzen hasita nago, baina urrutian doinu txiki bat entzun eta horrek gaztetako gauzak ekarri dizkit burura.

– Felixa, Felixa! Goazen herriko plazara gaur erromeria zagon eta.

Nik hori entzun bezain pronto, jantzi nuen gonarik ederrena eta han joan ginen nire laguna eta biok korrika. Plazara iristerako jada musika hasita zegoen eta jendez lepo beterik zegoen. Nik aspaldidanik gure baserritik 3 kilometrora bizi zen Diburtzio begiz jota nuen. Egun hura zoragarria izan zen, berak dantzatzeko eskatu baitzidan. Dantzari ederra zen, hankak arin mugitzen zituen. Bitartean hizketan egin genuen eta oso mutil ederra eta atsegina zen. Lastima izan zen dantza bukatu eta etxera itzuli beharra!

Geroztik, egun guztiak Diburtziorengan pentsatzen igarotzen nituen. Nire ezusterako, ordea, handik bi astera, nire baserritar urdina gurera azaldu zen. Nik hasiera batean ganaduaren zerbait izango zela pentsatu nuen, baina oker nenbilen. Nire eskua eskatzera etorria zen, nirekin ezkontzera. Hura emozioa! ezin nuen sinistu. Noski, aitak baietz esan zuen, familia onekoa baitzen; eta gero nirekin egon zen, 21etik 65 urte arte. Orduan gogoratu dut Diburtzio hilda dagoela eta ni geroztik honela nagoela, gogoratu ezinean.

Berriro ere errealitatera etorri naiz: nire bankura, oraindik ere han bainago inor gabe. Hozten ari du, baina niri ez zait axola, jende faltarengatik ere hotzak bainago. Hura miseria! gauzak berriro gogoratzen hasi naiz, hemen egotearen zergatia, etab. Berriro ere kulpa sentimendua hasi zait, baina nonbaiteko sagar-tarta usainak salbatu nau.

Hura usaintzean ere lehengo oroitzapen goxoenetako bat etorri baitzait burura. Ezkondu eta gero, gure alaba bakarra izan genuen, Karmen. Bera beti aldameneko baserrietakoekin jolasten zen. Guk sagarrondo mordoa genuen sagardoa egiteko; baina nik, ordea, umeei gustua emateko, sagar tartak egiten nituen. Orduan nire errezeta sekretuarekin hasten nintzen. Gozatu egiten nuen hura egiten nuen bitartean. Irinak-eta neurtzen berriro ume bihurtzen nintzen. Bukatzean leihoan ipintzen nuen hozten eta ume guztiak etortzen ziren nire sagar tartaren inguruan jolastera. Orduan izaten ziren algarak inoiz ezin izan ditut ahaztu. Gero denak jaten ari zirela ere ez ziren isiltzen eta ezin zen egon han algararik egin gabe. Egun haiek nire bizitzan izan diren atseginenetakoak izan dira.

Nire gaztetasunean izandako zoriontasuna eta momentuan sentitzen dudan bakartasuna elkar jotzen ari dira eta

nik ez dakit nola jokatu. Zer sentitu behar dut? Guk zaharrok ere baditugu sentimenduak ezinduak izan arren, eta askotan kanpoko jendeak eramaten gaitu gaizki sentitzera. Pentsatzen eta pentsatzen ari naizela, gero eta zailagoa egiten zait momentuko egoeraz jardutea edo adi egotea, nahi gabe jada igarotako gauzez oroitzen naiz.

Oraingoan ere egun eder bat etorri zait burura. 1978ko maiatzaren 24a zen. Nire alaba ezkondu zen eguna. Egun hura oso urduri hasi zen, alaba bakarra baitzen, eta nik dena ongi ateratzea nahi nuen. Goizeko seietan jaiki ginen, dutxatu eta dena ondo prestatzeko. Bazkaria ere nik eman behar nuen, 50 lagunentzat, baina gehiena aurreko egunean prestatu nuen, azken orduko ustekaberik ez izateko. Bazkariko azken gauzak ere egin nituen. Alaba nola zegoen begiratzera joan nintzen. Jada ondo garbiturik eta pintaturik zegoen. Orduan ni jantzi eta gero bera jantziko nuen. Soineko zuri eder bat zuen soinean. Azpiko bueloa nahikoa handia zuen eta gerrian estu emateak askoz ere finagoa egiten zuen. Bere ama naiz, baina ezin da ukatu aingeru bat ematen zuela.

Guri senargaia egokia iruditzen zitzaigun neskarentzat, oso alaia baitzen eta gainera alaba erabakitzeko gauza dela uste nuen eta uste dut. Azkenean elizara iritsi ginen. Nire gizona triste zegoen bere alaba kuttuna etxetik zihoalako, baina pozik ere bazegoen horrelako neska ederra bihurtu zelako. Elizkizuna espero bezala joan zen eta bazkaria ere bai. Bazkariarengatik denek zoriondu ninduten. Txintxinak ere oso hunkigarriak izan ziren, batez ere nire senarrarena. Jada arratsaldeko seiak zirenean, ezkon berriek trena hartu behar zuten eztei bidaiarako. Agurtu eta hainbat musu eman ondoren, nire senarra eta biok zelaian jarri ginen izarrei begira. Bera oso sentibera zen eta biok elkar besarkaturik egon ginen denbora luzez.

Oroitzapenetik bueltatzean ohartu naiz ilundu duela eta izarrak ikusten ari naizela, oroitzapenean bezala, baina nire senarra gabe. Orain nire sentimendu guztiak geroan daude, ez naiz ezertaz arduratzen. Ni oso zoriontsua izan nintzen nire ezkontzan, oso senar ona izan nuen. Horrek gogorarazten dit Donostiara joan ginenekoa.

Behin, jubilatzerako bidean ginela, Donostiara eraman ninduen, bera oso alaia baitzen. Gu hirira medikutara besterik ez ginen joaten eta Donostia ezagutzea oso ederra izan zen. Lehendabizi Igeldo mendira eraman ninduen. Han hainbat opari irabazi genituen, zein baino zein ederragoak, eta Suitzar Mendian ere hainbat oihu egin nituen. Jarraian, pozez beterik, hondartzara jaitsi ginen, paseo luze bat emateko asmoz, elkarri eskutik eutsita. Hain izan zen erromantikoa non malkoak eta guzti atera zitzaizkidala. Gero gazteekin batera tabernaz taberna ibili ginen, dantzan eta berriketan. Denak harriturik geratzen ziren gu, adineko jendea, horrela ikusita; baina ni gizon hark gazte sentiarazten ninduen eta ez nintzen ezertaz ohartzen.

Jarraian eta azkar horrelako hainbat oroitzapen gozo etorri zaizkit, eta barrez hasi naiz. Egoera lazgarrian nago, hotz ikaragarria dago eta ilunpean ez dut ezer ikusten. Baina niri horrek ez dit axola, aspaldian ez bezala oso zoriontsu izaten ari naiz, nire onerako. Esango nuke momentu honetan gaztetu eta dena egin naizela. Baina halako batean argi zuri eta indartsu bat ageri da. Oso misteriotsua da eta horrek erakarri egiten nau. Buruak ez dudala joan behar esaten dit, baina hain nago zoriontsu ez zait ezer axola. Hurbiltzen ari da, gero eta gertuago dago. Zoriontsu naiz, nire senarra ikusten dut eta azkenean argi zuriaren alderantz joan naiz, nire zoriontasun betearekin.

# Idazle izan nahi dutenei

Juan Atxutegi Sarrionandia
Karmengo Ama ikastetxea
Zornotza

Idaztea. Zer ote da idaztea? Luzaro ekin diot hitzak ordenan jartzeari, idaztearen zentzu errealera hurbildu gabe. Eta hori tristea da idaztearen bidez arazoak ahazten dituen nerabe batentzat. Inoiz ere ez dut patxadazko ezer idatzi, dena baitzen lelokeria hutsez osatutako testu bat. Testuak eraikinen modukoak dira.

Eraikinak oinarritik hasi behar dira, inolako akatsik gabe osatuz. Bestela, akabo idazle bat izateko itxaropena. Oinarria ez duen istorioa esaldien batuketa bat baino ez da, matematika hutsa.

Ez da erraza, ez, gure moduko gizarte azkar eta nahasgarri honetan hitzen armonia topatzeko adin lirikotasuna izatea. Beno, batzuentzat lirikotasuna; beste batzuentzat, errealitateak inoiz erakutsiko ez dizkion bizimodu, leku, pertsona edota sentimendu ezkutuak topatzea, eta azken batzuentzat, horiek gutxiengoa badira ere, bizitzaren zentzu osoa betetzeko azken irtenbidea.

Zoritxarrez, edo agian zorionez, lehen taldean kokatu dezaket nire burua. Nire moduko sentimental errealista bat izatea ez da erraza, lagun onak izanda ere, amodioa, pena, heriotza, bizitzako arazoak... baino ezagutzen ez dituen pertsona batekin inolako erlazioa (bai lagunartekoa, bai amodiozkoa) izatea ez baita erraza. Sentitzen dut, lagun maiteok. Sentitzen dut, (...). Halakoa izango naiz beti. Beno, badakigu dagoeneko idazle izateko lehen faktorea. Helburua. Garrantzitsua da oso lehen hori. Egiptok Nilo ibaia behar du, helburua bere orokortasunean da gure beharrizan berezia.

Bigarrena. Gaia. Ez da erraza gaia definitzea. Gai unibertsalak daude. Amodioa (askotan bere antitesi den gorrotoarekin bateratzen dena, ez literaturan, errealitatean baizik), bizitzaren zergatia (estutasun sentimentalean

gabiltzanean baliabide ezin hobea dena), eta halako gai "sakon" eta "funtsezkoak". Okerrean daude hori uste dutenak. Ez dago funtsezkoa den gairik, haizeak, eguzkiak, inurriek, mozoloek, etxe azpian dauden emagalduek, edozerenganako atxikimenduak, Peruko meategietan lan egiten duten ume gaixoek, denek, eta mundua osatzen dugun organismo, elementu, sentimendu eta dena delakook daukagu garrantzi bera, askok hori ulertuko ez duten arren.

Baina horiek aldatzea ez da idazki honen helburua (hona hemen Freud-ek azaldutako inkontzienteak egiten dizkigun keinuak: helburu hitzaren esanahia nire tesiekin kontrajarri dut. Aio idazle izateko gaitasun bakarrari. Hots, koherentziaren azken taupada dagoeneko joan da. Aio).

Beno, gaia dela eta ez dela galdu dugu hitz-pilaketa honen (hau ez baita ez literatura ez ezer) ildoa. Ai, gaia. Antzina, idazten hasi baino arinago, asko kezkatzen ninduen horrek. Baina, zer demontre! Norbera idazterakoan gustura sentituz gero, ekin idazteari. Akaso jarri ditut nire helburuen artean besteak dibertitu edota liluratzeko helburua? Gaur egungo ezagutuek (edo ezagutu izan nahi duten telebista zaleek) dioten bezala, "sin comentarios".

Idaztea hedonismoaren gailurra izan behar da, norberaren gozamenaren ezinbestekoa den osagaia. Ai ama! Zoratzeko bidean nago.

Koherentzia aspaldi galduta, zuzentasuna ere bai. Agian kohesioa mantentzen dut. Bai, kohesioa askoz ere zabalagoa da, batik bat, termino legez. Ez dago kohesioa patxadaz definitzen duen pertsonarik. Gutxienez nik ez dut ezagutzen. Baina ez dut jende asko ezagutzen. Konklusio aristotelikoa, logika kateatua: 1) Jende gutxi ezagutzen dut. 2) Kohesioa definitzen duenik ez dut ezagutzen. 1 + 2... Ez da

hiru, ez. Kohesioa zer den dakien norbait biziko da mundu honetan. Zein handia den mundua! Baina mundua txikia dela ez diote, ba, bidaiari jakintsuek? Nire buruaz aparte, koherentzia zoratu dut.

A, idaztearen eta idazle izatearen kontua! Agian oraindik bada nire iritziari garrantzia ematen dion norbait. Badaezpadan, eta nire burua pertsona egoki batena daukadanez, eskerrik asko, irakurle. Baina zu ere zoratu zaitut hitz inkoherente mordo honekin. Beraz, sentitzen dut. Halakoa naiz. Errepikapena ez da akats bat, baliabide estilistiko semantikoa baizik. Nire izatearen sendotasunaren erakusgarri. Gutxienez, hori da nire asmoa. Auskalo besteek akats aspergarri eta arruntzat hartuko duten. Baina hori ez da nire arazoa.

Inkultura boterera heldu zenetik gertatzen dira niretzat ulertezinak diren honen moduko lelokeria anitzak. Zein norabide txarra hartu duen munduak! Ordenagailu guztiak emango nituzke pertsona bakar batek Florentziako Uffiziak ezagutu ditzan.

Agian nire psikologo, psikiatra, edo dena delakoa, onean dago. erotuta nago aspaldi, ez dut idazten. Koherentzia zer den ez dakit. Baina zentzua izateko ez da beharrezkoa koherentzia. Bestela, irakur itzazue euren buruak "idazle abangoardistatzat" dituzten idazleen eleberriak. Zentzua. Bai. Koherentzia. Pittinik ere ez. Julio Cortázar-en oiloen kontua. Interesgarria.

Beno, norbaitek testu hau irakurrita idazteari ekin nahi bazion, sentitzen dut. Erotuta egotea ez da nire errua. Psikologoak hori dio gutxienez. Baina gezurti bat da. Ez dago 15 urteko mutil zoraturik. Idazle ulertu gabe bat naiz.

Sentimenduen nahastea.

Buruko gaixotasuna.

Ezberdintasunik?

Agian.

Baina nik ez ditut aurkitzen. Egia esanda, ez ditut bilatu ere egiten. Gaztelaniako irakasleak ere esaten zuen hori. "Sin buscar, no puedes encontrar" nire gelakide batzuek "no busco" esaten baitzuten, eta baitute, gauzaren bat aurkitzen ez dutela adierazteko. Astakilo hutsak. Baina horrek ez nau kezkatzen. Hori baino latzagoa da nerabe batek opera bat ere ez ezagutzea. Sin comentarios.

Berriz ere Ubedan galduta. Edo Fornellsen. Edo Javean. Edo Torremolinosen. Hautaketa librea. Demokrazia.

Beno, idazle onaren tesiak ahaztu ditut, beraz amaitutzat emango dut testu hau. Akabo, lagun. The end, amerikanismo kutrea. Amaiera, besterik gabe.

AUTOEZAGUPENERAKO TEST-A:

Zuzentasuna ➔ Ez
Koherentzia ➔ Ezta
Kohesioa ➔ Nork daki?

Ondorioak: Ez dut bizimodua aurrera aterako idazten, idazkari monotono legez baino ez bada. Baina bizimodu hobea nahi dut, arren.

Beno, has gaitezen estilo literarioaren azterketa sakonarekin, testutxo honek inolako estilorik baldin badu.

Berriz irakurtzerakoan, gairik ez duela ematen du. Badauka, eta ez da Unai Elorriagaren SP-rako tranbiaren erotasun prozesuaren plagio bat, ezta Saizarbitoriaren estilora hurbiltzeko irrika. Ez. Nire barrukoak utzi ditut paperean,

hizketan inoiz esango ez nituzkeenak. Beraz, nire barneko arazo guztien baturaren èmaitza kanporatuz, nire egonezin emozionalari irtenbidea aurkitzen saiatu naiz. Hau da gaia, unibertsala izatez. Bakoitzaren arazoak, barru barrukoak, ez edozeini esanda ahazten diren horiek. Ez. Arazoak baino kezkak direnak, lelokeria hutsak diruditenak, baina, azken finean, nerabezaroan, eta ondo kontrolatzen ez badakizu, arriskutsu bihurtu daitezkeenak.

Beste hainbat orrialde beharko nituzke idazkera azaltzeko. Behin irakurrita, Arturo Pérez Reverte-ren sarkasmotik hurbil dago. Ez dago hain txarto. *Patente de Corso* irakurtzen dudanean barre egiten dut askotan. Tipo xelebrea da Arturo.

Baina bigarrenez irakurri dudanean, erabat kezkatu naiz. Ez dakit *Canela Fina* editoriala ezagutzeko zoritxarra izan duzuen. Miss, neskatila edo Urik esango lukeen legez "hembren" lehiaketa guztietako epaimahaian dagoen kazetari batek idazten du egunero berak zuzenduriko egunkarian, "La Razón-en" konkretuki. Real Academiakoa hau ere, baina ez, nire ustez, tipo xelebre izateko kategoriakoa.

Utz dezagun Ansón jaunaren profila alde batera; eta, azkenik, gauzatxo bat esatea, edo idaztea? baino ez:

Koherentzia, eduki, badauka testu honek. Nire kezkak atera ditut, nahasian bada ere. Amodioa baino ez zait falta psikoanalista bati nire bizitza osoa adierazteko. Baina amodioari buruz idazteak beldur ematen dit maiz.

Beno, nik nahiago nuke Jose Hierroren soiltasun neurtuarekin idatzi, prosan bada ere. Nire ametsik gozoena gauzak Quevedok zuen ironia ulerterrazarekin azaltzea da, baina debalde. Eta Bernardo Atxagak bere eleberrietan ildoak ba-

teratu eta bereizteko duen maisutasuna? Errealitatea ikusgarri edo ulergarri bihurtu ahal izatea?

Nik ez dut sekula zentzuzko gauzarik idatzi, nire olerkiek ez dute errimarik. Ez naiz idazle potentzial bat, ezta gure hizkuntzaren etorkizun idatziaren jarraipena ere. Baina idazteak arazoak ahazten laguntzen dit; idaztea gustatzen zait. emaitza ez da funtsezkoa, jarraitutako bidea baizik.

Agian benetako idazlea naiz, nire tesi erdi ahaztuak jarraituz.

# Hantxe lokartu nintzen

Olaia Arbelaitz Sarasola
Talaia institutua
Hondarribia

Ni ez nintzen mutilek pentsatzen duten emakume prototipoa betetzen zuten haietakoa. Ez, ni guztiz kontrakoa nintzen, baita gaur egun ere. Hasteko ez nintzen argala, hori zen garrantzitsuena, ez nintzen ederra, ez nintzen ondo janzten, baina hori bai, sekulako titiak nituen, hori zen guztiek nitaz zuten irudia. Ni institutuko neska guztiak batera baino gehiago nintzen, eta ez edertasunagatik, nire gorputza besteena baino gizenagoa zen, askoz gizenagoa, halaxe sinestarazi zidaten behintzat. Ni neska- mutil guztien "diana" nintzen, niri botatzen zizkidaten dardo guztiak. Ni mintzea zen haien guztien helburua. Inork ez ninduen bakean uzten, nik lotsa pasaraztea zen beraien gustukoena. Egunero jasaten nituen haien komentario desatseginak, burlak, fisikoari buruzko txantxak... Beraiek esaten zuten esaldi bakoitzean, hantxe zegoen nire izena. Baina hark guztiak muga pasa zuen.

Gaindituta nuen hura guztia, nire eguneroko bizitzan hura baitzen ohikoena. Eta ez da izan hain erraza hura ahaztea... Eskolara iritsi eta esaten zuten lehenengo gauza "begira, hor dator, bai begira, hemendik bi kilometrora dago" edo horrelakoren bat izaten zen. Ondoren, klasean, niri buruzko kritikak ziren nagusi. Jolas garaian, niri lotsa pasaraztea zen beraien helburua, ez ziren gauza gogorrak izaten, iletik tira egin eta horrelakoak izaten ziren. Eguna iritsi zen arte.

Nik ez nuen pentsatzen niri zidaten gorrotoa hain handia zenik. Geroz eta txantxa gogorragoak izaten ziren. Baina benetako arazoak nire urtebetetze egunean iritsi ziren. Nire aurpegi inuzentearekin iritsi nintzen institutura, beste egun soil baten eran. Denak berdin zirudien, betikoa zen nagusi, jolasaldia iritsi zen arte. Neska-mutilek sekulako sorpresa prestatu zidaten. Hantxe iritsi nintzen ni betiko tokira, nire penak kontatzen nizkion bankura. Nire hamaike-

takoa atera nuen, eta hari koska egin baino lehen, norbaitek iletik tira egin zidan, eta begirada altxatu bezain laster, hantxe ikusi nituen, institutuko ia neska-mutil guztiak, nire inguruan, eta kantatzen hasi ziren. Ni, harrituta, altxa egin nintzen, oso urduri jarri nintzen, hamaiketakoa eskuartetik erori zitzaidan. Hura ezinezkoa zen. Konturatu nintzenerako guztien erdian nengoen. Baina hura oso aldaketa arraroa zen, bost minutuan ezin baitaiteke inor zeharo aldatu. Baina ni hain inuzentea nintzen, une hartan neutroa sentitzen nintzen, ez alai, ez triste, ez nuen sentitzen, han nengoen... baina ez nengoen... ez dakit hori azaltzen. Momentu haietan ez nintzen konturatzen han gertatzen ari zenaz. Baina erreakzionatu nuen, bai, norbaiten eskua nire gorputzean sumatu nuenean, esku hura nire gerrialdean zegoen eta beherantz zihoan gelditu gabe. Nire mundua alde batera utzi eta errealitatean murgildu nintzen berriro. Sekulako barre eta oihuak entzuten nituen, izugarriak. Nik ez nekien zerk ematen zien barregura. Baina momentu haietan zoriontsu nintzen eta neu ere barrez hasi nintzen, baina nik barre egin ahala, beraiek ozenago egiten zuten. Orduan ohartu nintzen zerbait gertatzen zela. Segituan nire gorputzera begiratu nuen, eta oihukatzen hasi nintzen; ez nintzen gelditu, etengabe oihukatzen nuen, geroz eta ozenago. Lehengo esku haiek etorri zitzaizkidan burura. Esku haiek izan ziren errudunak. Esku haien jabeak prakak jaitsi zizkidan, guztien aurrean. Ez nuen gogorarazi izan nahi baina ezinezkoa izan zen. Lotsa eta amorrua izugarrizko abiaduran zihoazen nire gorputzean barrena; momentu haietan nire buruaz beste egin nahi nuen, nik nire buruari barre egin nion. Ia haietako bat bezala sentitu nintzen, konturatu gabe. Erabat erabilia izan nintzen, engainatua, traizionatua. Negarrak menperatu ninduen, eta hantxe gelditu nintzen, goiz guztia oihuka, negarrez.

Baina hori sorpresaren hasiera besterik ez zen izan. Arratsaldean txirrinak jo zuen, etxera joateko ordua. Guztiak joan arte itxaron nuen. Nire bistatik desagertu ziren laster, eta orduan hasi nintzen nire hankak mugitzen. Bost eta erdiak ziren. Oraindik begiak hezeak nituen, eta aurpegia, txuri, ia kolorerik gabe. Ez nintzen betiko bidetik joan, badaezpada. Kale kantoi estuetatik joan nintzen, argi gutxikoak, ez nuen inork ikustea nahi.

Etxetik hurbil nengoen, baina ez nindoan bakarrik, norbait zebilen nire atzetik, geroz eta azkarrago nindoan, beldur pixka bat sentitzen hasi nintzen. Baina atzeko pausoak ere geroz eta azkarrago zihoazen. Nire taupadak ere azkartu egin ziren, eta nola gainera. Ez nintzen ausartu atzera begiratzen. Baina melodia ezagun bat entzun nuen kaleetan zehar. Gogora etorri zitzaidan melodia hura eta hotzikara bat sartu zitzaidan gorputzean. Ez nuen melodia hartan pentsatu nahi eta belarriak estali nituen, beldurraren beldurrez. Ahotsak ere ezagunak nituen, oraindik freskoak zeuden ahots haiek nire oroimenean. Beste hotzikara bat sartu zitzaidan. Ordurako ez nekien zein kaletan nenbilen, ez nuen pentsatzen norantz joan behar nuen, nire pausoak etengabeak ziren, automatikoki nenbilen, beraiek kontrolatzen ninduten, nik ez bainuen haietan pentsatzen, ni aurrera, beti aurrera nindoan. Atzean zegoena oso hurbil sentitzen nuen, aireak bakarrik banatzen gintuen. Zerbait nabaritu nuen nire sorbaldan, nire pausoak beraien helmugara iritsi ziren, eta ni gelditu egin nintzen, estatua bat bezalaxe. Ez nion alboan nuenari begiratu nahi. Gogoz kontra burua alde batera biratu nuen, esku bat zegoen nire sorbaldan. Azken hotzikara sartu zitzaidan, izugarria, eskuak ere nabaritu zuen. Segituan kendu zuen eskua nire gainetik, eta atzerantz begiratu bezain pronto lurrean nengoen. Hartu nuen kolpea oso handia

izan zen, beraz, ezin izan nuen handik mugitu. Nire gorputza gogor sumatzen nuen, ez nituen besoak eta hankak mugitzen, ez nintzen ausartzen. Ez dakit begiak itxiak nituen edo iluntasunaz ez nuen ezer ikusten, baina ez nuen ikusi nor zen. Haren atzean koadrila oso bat zegoen, institutukoak zirela pentsatu nuen. Hala zen, nahiz eta ezin izan nituen ondo ikusi. Ez nengoen ziur beraien asmoez, baina ez zitzaidan asko kostatu igartzea. Banekien zer zen gainean erori behar zitzaidana, baina nik ez nuen hartan pentsatu nahi, ezta hartan sinistu ere. Handik gutxira jaso nuen nire lehen makilakada, pentsatu nuen orduan espero nuena halakoa bazen ez nintzela handik bizirik irtengo. Beste bat jaso nuen. Mina adierazten zuen soinu bat egin nuen, baina beraiek errukirik gabe jotzen jarraitu zuten. Makilakada bat beste baten atzetik, hori zen lehen psikologikoki egiten zidatena, baina orduan benetan ari zen gertatzen. Makilakada bakoitza kolpe bat zen, baina makila haiek min egiten zuten, zauriak egiten zituzten nire azalean. Makilakadak ostikoekin tartekatu zituzten. Ni hormaren kontra nengoen, han babestuago sentitzen nintzen. Belaunak ia aurpegian nituen, korapilo bilakatu zen nire gorputza. Geroz eta gogorragoak ziren makilakadak eta ostikadak geroz eta gehiago. Ni zorabiatzen hasia nintzen. Ez nuen ezer esan, nire hitz bakoitza niri mina egiteko arrazoi bat zen. Ezin izan nion gogoari eutsi eta oihuka eta negarrez hasi nintzen. Denak nire inguruan zeuden eta irainak esaten hasi ziren, eta nire fisikoarekin sartzen. Hura ez zen egoera erosoa. Ez ninduten bakean utzi arropa kentzera behartu ninduten arte. Ez nuen pentsatu horretaraino iritsiko zirenik. Nik ezetz egiten nuen buruarekin, larritu aurpegia jarriz. Oihuka hasi ziren, arropa kentzera behartuz, baina ezetz nioen aldi bakoitzean makilakada edo ostikada bat jasotzen nuen. Odola isurtzen zen nire ezpainetatik. Ez nuen gorputza sentitzen, mina baka-

rrik, gorputzean eta barnealdean, ez bainuen pentsatzen pertsonek hainbeste min egin zezaketenik, bakarrik itxura fisikoagatik, inork ez bainoinduen ezagutzera emateko aukerarik eman. Horregatik, minutu haietan, gaizki pasatako guztia etorri zitzaidan burura, eta nolabaiteko lotura egin nuen denen artean. Berriz ere arropa kentzera behartu ninduten, mehatxu eginez. Nik begiak itxi nituen eta gogor jarri nuen gorputza, hurrengo makilakada jaso behar nuela jabeturik, eta ezetz esan baino lehen min aurpegia jarri nuen. Azkeneko aldiz ezetz esan nuen.

Makilakada haren ondoren jakin nuen aurrerantzean gertatuko zena. Geroxeago ez nuen ezer sentitu, ezer ikusi, ezer ukitu, ezer esan. Makilakada haren ondoren kale zikin hotz hartan lokartu nintzen. Denbora luze batez, hantxe gelditu nintzen, konortea galduta eta kolpez eta odolez betea. Baina ezin izan nuen jakin ondoren gertatutakoa.

Hurrengo egunean esnatu nintzen. Kale hartan nengoen, paretaren ondoan. Ezin nuen gorputza mugitu, ubelduz beteta nuen, eta zauriz toki batzuetan. Ia alferrik zen altxatzeko indarra egitea. Hankak ez nituen sentitzen eta ezin nuen bizkarra mugitu. Ia biluzik nengoen, kamisetak estaltzen zizkidan gorputzaren atal batzuk. Hala ere, konortea galdu ondoren gertatu zenaren pelikula bat egin ahal izan nuen nire buruan. Nire gorputza zikin zegoen, eta erabat hoztuta nengoen. Ez nuen ezta negar egiteko kemenik ere. Malkoek begietatik irtetean min ematen zidaten. Momentu haietan funtzionatzen zidaten gauza bakarrak pentsamendua eta oroimena ziren, haien bidez hitz egiten nuen. Beraz, hantxe gelditu behar izan nuen norbait laguntzera etorri zen arte.

Aurkitu bezain laster ospitalera eraman ninduten.

Hantxe eraman ditut azken aste hauek. Oso gaizki pasatu dut azken aste hauetan. Orain komisaldegian nago, nire txandaren zain, mutil haiei salaketa jartzeko asmotan, ez dakit galderarik egingo didaten. Oso urduri nago, hura guztia pasa eta gero, dena gogoratzea oso gogorra izango da niretzat, eta oso zaila. Hala ere, ez da aldatu pertsonen jarrera, hemen dagoen jendeak goitik behera begiratzen dit, eta nire fisikoan bakarrik erreparatzeak ez nau batere ondo sentiarazten. Baina halakoa da gizartea, eta ez da egun batetik bestera aldatuko. Nik aurrera egin behar dut nire bizitzan, baina nahiz eta saiatu ezin izango dut hori guztia alde batera utzi, hori betiko geldituko da nirekin, nahiz eta batzuetan lo egon.

Nire izena esan dute. Nire txanda da. Izerditan ditut eskuak baina badut guztia ondo irtengo den itxaropena. Gizon bat etorri da nire bila eta gela batera sartu naiz. Mahai bat dago erdian eta aulki bat alde bakoitzean. Ni alde batean nago eta gizona nire aurrean.

– Egun on –esan dit gizonak– jakin dut zuri buruz. Orain ez urduri jarri eta erantzun nire galderei ahalik eta xehetasun gehienekin.

Nik ez dut ezer esan. Ahoa itxita daukat. Buruaz baiezko keinu bat egin diot.

– Esan zure datu pertsonalak, mesedez, fitxa hau bete dezadan.

Ahoa ireki baino lehenago pentsatu egin dut esan behar nuena, eta erantzun egin diot. Urduritasuna nabaritu zait ahotsean, baina nik aurrera egin nahi dut.

# Erantzunen ebasleak

Nerea Vieco Ramos
Garaialde lizeoa
Urretxu

Koadernotxo:

Hamahiru urte ez dira egunero betetzen edo hori da, behintzat, aitak esan didana. Amak koaderno beltz hau eman dit opari gisa eta bertan inori esango ez nizkiokeen gauzak idazteko agindu dit, beraz, zu zaitut hemendik aurrera ene lagun kuttun bakarra, koadernotxo. Izan ere, nik ez dut lagunik izan ezta izango ere. Ez naiz jada eskolara joango, aitak esaten du gizon bat egiteko ez dudala eskolarik behar, Yassir ere ez zen eskolara joan. Yassir nire anaia da, 22 urte ditu eta nire bizitzako ardatza da. Bere pausoak jarraitu nahi ditut nik eta guztion mirespena neureganatu. Aita, ama, Yassir eta laurok Gazako etxe ziztrin batean bizi gara, hala ere beste batzuek baino zorte handiagoa izan dugu. Garai batean, amaren sabelean nengoenean, etxe erosoago batean bizi ginen; baina erasoaldi bat izan zen, txikizio izugarriak sortarazi zituena, eta gure arbasoei eraikitzea hainbeste kostatu zitzaien etxea erraustu egin zuen. Zortedunetako batzuek hain desiratua den mendebalderantz jo zuten eta guk, ostera, pareta hauei bizia eskaini genien eta haiek guri orain arteko egonaldia.

Mendebaldea. Gustatuko litzaidake jakitea zer duen Mendebaldeak hainbeste jenderen itxaropena izateko. Auskalo! Hemendik aurrera, nahiz eta inozo eta ilogiko samarra den, Mendebaldeari zuzenduko natzaio, ea noizbait guztiaren erantzuna jasotzen dudan!

Ene Mendebaldea:

Bi hilabete igaro dira zure lehen lerroei bizia eman nienetik. Gaur arratsaldean ama eta biok bakarrik egon gara; aita anaiarekin bere bilera misteriotsu horietako batean zen, kanpoan. Horrelakoetan, isiltasuna egiten da giroaren jabe eta bion arnasketen soinuen gainetik, paretan zintzilikaturi-

ko erloju herdoiltsuaren taupadak entzun daitezke, betiko konpasari fidel. "Ama, nora joan dira?" galde egin diot nik. Hainbestetan malkoak isuri dituzten begi argi horiekin errukiz so egin dit, arrapaladan erantzunik gabeko galdera egin izan banio bezalaxe. Eta negar egin du. Begi argi horiek urez busti dira eta masailak zeharkatzen dituzten errekatxo bik aurpegia goibeldu diote, tartean azala baino argiagoa den pasabide bat marraztuz. "Aita zure anaiaz harro dago", ez dit besterik aitortu, amak gehiago dakien arren. Bere begiak gertakizun gogorren lekuko izan dira eta horren seinale begi inguruan egunero hazten zaizkion konplize zimurtuak dira.

Aitak beti izan dio Yassir-i berebiziko errespetua, begirunea. Bazkalosteko solasaldietan, anaiak politikari buruzko izugarrizko zaparrada botatzen digunean, aitaren ezpainetan harrotasunaren irria marrazten da, begiek dir-dir egiten dioten momentu berean. Eta, une batez, pertsona bera bilakatzen dira aita-semeak, bat egiten dute, euren doktrinak helburu bera duten teoria bilakatzen dira eta begietatik suzko indarra botako balute bezala jakintsu sentitzen dira, baliodunak, munduaren salbatzaile nahiz suntsitzaile. Lotsa ematen dit onartzeak, baina, bai, inbidia dut. Eta nik ere anaiaren begietan islatzen den amorrazioa sentitu nahi dut.

Ene Mendebaldea:

Aitak dio zu zarela palestinarren gaitza, amerikar putaseme horiek gaiztoen laguntzaile direla eta gu bezalako herrialde txiro batek ez duela inondik esku zartadarik jasoko, petroliorik ez dugulako. Ez dut uste suntsitzaileei ostatu ematen diezunik, ezta guretzat mehatxu izan zaitezkeenik ere. Nik, ausart, aitari ukatu egin diot hori, eta sekulako zar-

tada eman dit axolagabekeriaz. Belauniko jausi naiz lurrera eta gizon bihurtu arte berarekiko errespetuz jokatzeko agindu dit. Hanka tartea umel sentitzen nuela, amorrazioaren zomorroak, gorputzean zehar barreiatuz, sortarazi didan dardarak altxatzea eragotzi dit. Neure buruari min egiteko grina piztu zait eta ordu erdia daramat belauniko, bi garbantzuren gainean, nolabaiteko auto-zigorra betetzen. Halaber, aitak botata utzi nauenean, amak bere besoetan ferekatu nau, negar zotinak xukatzeko, ezti koloreko ahotsarekin sehaskako nire abesti gogokoena xuxurlatzen zidan bitartean. Aitaren presentziak kikildu egiten du amatxo, beldurra diola esatera ausartuko nintzateke. Amak ez dio sekula aitari "ez" esan, alderantziz, bere menpean bizi izan da eta badirudi beti bere pentsamoldeekin bat etortzen dela. Etxean bizi baina bere burua sekula ezagutzera eman ez duen pertsona ezkutua da; misterio kutsua dario azaleko poro guztietatik. Amaren ahots xamurra ozta-ozta ezagutzeak asko penatzen nau.

– Yassir, zer da Mendebaldea? –galdetu dio mutikoak anaiari–.

– Mendebaldea aberatsen lurraldea da, oso urruti dago –erantzun honek–.

– Zergatik dio aitak gorrotoa Mendebaldeari?

– Ba, ulertzeko zaila den arren, azalduko dizut: haiek dira gure gaitza, gure zoriontasunaren lapurrak, irrien ebasleak, hazten doazen heinean txikiagotzen gaituztenak. Gure etsaien amorante dira eta eskutik helduta datoz, euren tutu trumoigile eta leherkari maltzurrekin, gu akabatzeko prest. Bitartean, zu bezalako umeak, kalean hazi beharrean lau pareten arteko espazioan senideen jakinduriaz elikatzen dira, askatasun barik, etsaia noiz etorriko zain. Horregatik, aska-

tasunaren aldeko borrero izan behar dugu, etorkizunaren itxaropen fidel, gure semeen eredu. Jainkoa bakarrik izan da juduen zabarkeriaren eta palestinarren sufrimenduaren testigu. Amaiera eman behar diogu horri. Zuk ere borroka honetako partaide izan behar duzu, 13 urte badituzu jada. Baina tira, buka ezazu bazkaria, barraskiloek ere azkarrago jaten dute eta!

Ene Mendebaldea:

Oraindik zuri zuzentzen natzaizun arren, jakin ezazu palestinarren askatasunerako erakunde bateko partaide naizela eta, beraz, ene lagun, zure arerio bilakatu naizela. Ez dut ulertzen nola izan zaitezkeen horren maltzur, horren koldar, etsaien amorante. Gaur bertan, Gaza erdi aldean dagoen eraikuntza batean egon gara Yassir eta biok, gure adineko beste zenbait gaztek inguraturik. Luzaroan mintzatu dira, nik entzun besterik ez dut egin. Israelera sartzeko plangintzak-edo egiten hasi direla uste dut, ez nago erabat ziur, "ugazabaren nahien" arabera. Erakundea oso serioa dela susmatzen dut, irteerarik gabeko labirintoan barneratzea bezain serioa, eta beldur naiz. Kezkaren zomorroak erraiak urratzen dizkit, geldiro-geldiro, patxadaz; amets gaizto honetatik behin betiko esnatu nahiko nuke. Zergatik ez ninduzun zure lurraldean esnatu?

Amak ez du negarrik egin, agian nire patuaren berri bazuelako hor nonbait, bere intuizioaren txoko batean, gordeta. Aitari, ordea, harrotasunaren irria marraztu zaio. Honela, lasaitasunak pixka bat baretu dit barrena. Nik ere Yassir bezalako gerlari izan nahi dut, hori da nire buruari behin eta berriro errepikatzen diodana. Eta aitak eragindako oinazea goxatu. Nik nire kondizioari dagozkion ideiei eta konpromisoei men egin behar diet; eta, horretarako, kontsekuente

izaten ikasi behar dut, ez dago inorentzat asmatutako beste irtenbiderik.

Aita eta bi semeek kalea gurutzatu dute. Gaza erdialderantz doaz, eta 22 urtekoak 13 urtekoari eskua gogor heltzen dio. Barazkien denda, izkinako meskita, lehengusuaren etxea, eskola... arrapaladan pasatu dituzte. Kaleek basamortu dirudite eta, haizearen erruz, balkoietako izarek zoruko hauts zikinarekin topo egiten dute, airean marrazki bitxiak marrazten dituzten aldian. Giroan beldurra arnasten da, badatoz, badatoz askatasunaren lapurrak.

Bai, aitaren susmoak egia dira, atzean norbait dute jarraika. Aurrera joan ahala, hurbileko oin-hotsen zurrumurrua ozenago egiten den heinean, pausoa azkartzen dute eta, bai, aita jakinaren gainean dago. Badaki semeak ikusten dituen azken uneak izango direla. Nekez arnasten badu ere, gai da horretarako, eta bere taupada azkarrek laster topatuko duten lasaitasuneranzko helmuga. “Berriro ere lapurrek beren poltsa beteko dute” pentsatzen du.

Ene Mendebaldea:

Zu al zara gure gaitzen erruduna? Ziur aski zuk ezin nabarituko duzu letra hauen atzean ezkutatzen den jaletasuna, ezta orri hauetan isurtzen ari naizen malkoen mendeku nahi bortitza ere. Bizitza honetako ardatzak bat-batean desagertu zaizkit, inongo abisurik eman gabe. Nire begien aurrean anaia eta aitaren bizitzek ihes egin zuten atzo, elkarterantz gindoazela. Niri, oihu egiteagatik, pare bat zaplazteko jo zizkidaten, besterik ez. Aita eta Yassir, ordea... Madarikatuok! Zergatik? Askatasunaren gerlariak zirelako? Amaren negar zotinak buruan bueltaka darabilzkit, amaigabeko tortura honi ate joka. Baina sartu dira, bere bidea hartu dute, dagoeneko gordeta nuen sufrimenduarekin bat egin dute.

Burua galduko ote dudan beldur naiz... "Zergatik" galderaren erantzunaz ase daiteke nire amorrua, baina inork ez dit sekula emango. Munduko txoko honetatik begiztatzen dut mundua, baina jarri dizkiguten hesiak direla eta imajina ditzaket nire adineko beste mutiko baten nahiak, aspirazioak, sentimenduak, bizia... Guztiz desorientatua aurkitzen naiz, zer egin ez dakidala. Amak ez dit babesik eskaintzen, beraz...

Ene Mendebaldea:

Behin, nire ekintzekin kontsekuente izaten ikasi beharko nuela aitortu nizun. Eta nire txanda iritsi da. Oraingoan ni naiz ekintzen egilea. Ez dakit damutuko naizen ala ez, ez dut horretarako paradarik izango. Aitak behin esan zidan: "arriskatzen denak soilik irabazten du" Ez naiz ni izango, etxeko ohean senideen hutsunea sentituz, negarrez geldituko den hori, ez horixe. Barrenak eskatzen didalako edota aitak eta Yassir-ek, Ala-rekin batera, behartzen nautelako. Barkatu ama. Barkatu, ene lagun.

Mutikoa aurrera joan ahala, urduritasunaren zomorroaren kilikadurak oin puntetatik astiro igotzen doazkio, erraietan nahasten zaizkion arte. Bere hamahirugarren urtebetetzea gogoratzen du eta orduko sentimenduaren kutsua hartzen dio une horretan etengabe astintzen ari zaionari. Begirada aurrean tinko duela, ezezagun zaion lurraldearen inguruari so egiten dio.

Alkandora berria darama soinean eta bereak ez diren praka zabalak; oinetan, orkatilak baino zertxobait gorago iristen zaizkion bota berdeak.

Ohi baino astunago sentitzen du bere gorputza.

Jende ugari dagoen jatetxe batean sartzen da. Barran hutsune bat topatzen du, begirada altxatu gabe harantz abiatzen da eta freskagarri bat eskatzen du, bihotz taupaden abiadura mantsotzeko. Badaki zer egin behar duen eta ondorioak zeintzuk izango diren.

Erantzunik ez duelako.

Berak ere lapurra izan nahi duelako.

Azkenik, kanta bat gogoratuz, botoia sakatzen du.

# POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Ene auzoa

Jone Zuazo Uriarte
Gabriel Aresti institutua
Bilbao

***"Enea okupatutako territorioa da.***
***Gauarekin bat heltzen da izua kale bazterretara,***
***argi urdinez jantzirik.***
***Erresistentzia kateatu eta, oinazearen morroi,***
***sare lohiez gatibatzen gaituzte"***

Urtzi Urrutikoetxea

## ENE AUZOA

Ametsak helburu bilakatu ziren
besoak luzatu eta uki genitzakeela sentitu genuenean,
baina, zorigaiztokoak gu,
atzamarrak moztu zizkiguten,
eta orduan konturatu ginen
harrapa ezin daitezkeen helburuek
amets izaten jarraitzen dutela.

ASKATASUNA
Ene auzoan ez dago
etsaia geldiaraziko duen barrikadarik,
hala ere txoriak hegan doaz,
ziztu bizian, erne,
zuhaitz eskasetan pausatuz,
tiroak saihestuz eta,
hosto artean ezkutatu ahal izateko,
udaberria noiz iritsi zain.

JENDEA
Ene auzoan
etxe okupatuetatik irtendako musika,
dantza taldeko txistu soinua
eta tabernetan ahots ozenez abestutakoak
autoen iskanbilarekin nahasten dira kalean.
Metro sarreran igogailuaren zain dagoen gizonak,
atari zikinean pipak jaten ari diren umeek
eta eskaparateei begira dauden neskek
harlauza berdinak zapaltzen dituzte.

HAIZEA
Ene auzoan, itsas haizea datorkigunean,
atso eta agureak ikusten ditugu,
lepoak luzatu eta behiala keturik iristen zen airea arnastuaz.
Jada ez da kutsaturik ailegatzen,
ipar haizea garbi igarotzen da,
aspaldi lagatako lantegien tximinia artean,
baina engainuzko garbitasuna besterik ez da,
badakigu gauzak inoiz baino beltzago daudela ipar partean.

BORROKA
Ene auzoko mendi magaletan
landaturiko pinuen hosto ziztatuek
min ematen digute,
ortozik, zapaldu beste erremediorik ez dugunean.
Laster ez dira hemen izango,
aizkorak ondo zorrozturik baititugu
pinuak bota eta haien lekuan haritzak ipintzeko.

## MAITASUNA

Ene auzoan ume batek,
"maite zaitut, Elena"
idatzi du letra dardaratiz,
pareta gris baten izkinan.
Bere maitasunak ez du luzaroan iraun,
laster batean ezabatu baitute,
ezkutuko mezu arriskutsu bat delakoan.

## GALDUTAKO LAGUNAK

Ene auzoan,
oroimen poemak,
ohorezko egurrezko plakak,
nahiz eta gure barnean bizirik jarraitzen duzuen,
loreak aspaldi zimeldu ziren.
Oroigarri horien ondotik igaro
eta zerura so egiten dugunean
izar berriak ikusten ditugu izekirik
gure herriko ortzi mugan.

## GAUA

Ene auzoan
ostiral gauetako ordu txikietan
penak ito dituzten gazte koadrilak,
gerritik helduta doazen bikoteak,
etxera bidean doaz, pauso azkarrez.
Bide bazterretan dauden putzuak
indarrez zapaltzen dituzte,
farolen argien itzala mila zatitan hautsiz.

GAZTEAK

Ene auzoko gazteak
itzalez itzal mugitzen gara isilpean.
Jada ez da hainbeste kasko gorri ikusten,
baina badakigu inoiz baino begi gehiago ditugula zelatan.
Urduri goaz kaleetan zehar,
ahopeka kanta klandestinoak abestuaz,
ingurura begiratu eta amen batean,
taberna zuloan sartzen garen arte.

ITXAROPENA

Ene auzoan,
urrutiko bonba hotsen oihartzuna entzuten da,
gure mezua desagerrarazteko nahia,
jendearen aurpegi betilun eta tristea,
baina bada oraindik esperantzarik,
ikastolatik irteten diren umeek
irribarre egiten dute kezka guztiak ahazturik
eta hormetan koloretako loreak daude itsatsirik.

Gaurkoan ere
aurrera jarraitzea erabaki dugu,
belarrira putz egin didazu,
eskutik oratu eta bidea erakutsiz.
Kontuz ibili beharko dugu,
harriekin estropuz egin eta erori barik.

# Zuri begira

Oier Zurutuza Arin
Txindoki-Alkartasuna institutua
Beasain

Ikusmenez zu arakatzeak
eteten badit jarduna,
nire begiak zureengan so
pausatzea dut kuttuna;
gogoan daukat zure gorputza,
hark zuen berotasuna,
esentziaren iratzartzea
egunsenti oro entzuna;
hain baita doinu ederra zure
pauso hotsen oihartzuna,
zure begien iluna,
amaigabeko eguna;
nahiz eta zure izana nigan
baden aski ezaguna,
ezin dut hitzez adierazi
darizun edertasuna.

Amets batetik irristatuko
balitz bizitzaren poza,
zure bizitzaz nire ametsak
nahi nituzke pozez osa;
lur ahantziko doinuz bazaizu
ozen goratzen ahotsa,
musika alai bihurtzen duzu
isiltasunaren hotsa;
zure arnasa hartu nahi nuke,
darraizun bidea goza,
zure begirada hotza,
pasio umel laiotza...
hasperen epel baten itzala
erretzen duen izotza,
denboratik at zugan esnatu
nahi nuke nire bihotza.

Amets batean erditutako
loak mundura emana,
darizun argi limurtzailea
iritsi zen niregana.
Egunsentiko izpitzat zaitut
ilunabarreko dama,
maite dut zure azal goxoa,
zure ile beltzarana,
begi-ninien ilargi tantei
nabarmentzen zaien xarma;
desio dut zuk esana,
isiluneko laztana;
izarren bide galduetatik
noraezean zugana,
zure taupada askeak nire
bihotza preso darama.

Leiho ertzetik ekialderantz
lerratzean begirada,
egunsentiko kantu batean
urtu da zure algara.
Paisaia bera zirriborratuz
daramat azken bolada;
masailetako ubideetan
behera doan hotzikara,
zure alboan ez esnatzeak
dakarkidan samina da.
Bihotz izoztutik hara,
negar tantak mara-mara;
itzuli zaitez eta begira
nazazu begietara,
duten distira bereziaren
arrazoia zeu baitzara.

Zure beroak eragin zidan
dudan maitasun sukarra,
nire bihotzak zugan aurkitu
baitzuen bere iparra.
Desio zaitut gauaren amets,
egunaren irrifarra,
itzal-hautsezko hodeien aurka
dirauzun izar bakarra,
zugan baitirau egunsentiak,
jaustean ilunabarra.
Argitasun ortzadarra,
arratsaldeko izarra,
ametsak biziz bizitza amets
bihurtzea ez da txarra,
baina amesten jarrai dezadan
badaukat zure beharra.

Begi hits horiek badute zerbait
errealetik aparte,
nolabaiteko amets esfera
baten barnean naukate;
etorkizunak ez dakarzkidan
oroitzapenak bitarte,
nire pausoek nostalgiaren
errotara naramate,
maitasuna ta itxaropena
zenbat desio, bi kate...
Gauaren bidean gazte,
lausengu bat bezain aske,
zure begi hits argiek leku
horretara naramate,
goizeko lehen printzetan hegan
zugana itzuli arte.

Laino artetik jaustear zela
lehen alaitasun printza,
harrizko gauak ekarri zuen
egunsentiko zumitza;
hosto artetik jalgi zenean
zure olatuen bitsa,
bi esku urrun, ikusezinez,
zetorren goizaren gisa,
hartu zenuen nigan igeri
zebilen goizeko ihintza.
Geroztik luze zait mintza,
haritz ihar haien mintza,
amets batean galdu nituen
bihotza eta bizitza,
esperantzaren haizean hegan
zure bila baitabiltza.

# Orainaren hitza da geroa

Ion Muñoa Errasti
Txindoki-Alkartasuna institutua
Beasain

## ORAINAREN HITZA DA GEROA

**Orainaren hitza da geroa,**
**geroaren oraina hitza;**
**hitza hitz, geroa orain.**
**Oraina gerotuz**
**geroa erotuz,**
**hitza hitz.**

**Orainaren hitza da geroa**

Hitz hutsa
da etorkizuna
gaurkoon ahotan.
Nola jakin zer gertatuko den...?
Nola ziurtatu bihar
egunak argituko ote duen...?
Nola jakin kukuaren kantuak
udaberria ekarriko duen...?
Gure hitzak baino ez direnean.
Geroa, oraingo hitzen
esklabo baino ez denean.

**Geroaren oraina hitza**

Bihar gaurkoaz
hitz egingo dena
hitz hutsa izango da.
Denborak dena darama aurrean
nola ibaiak haserretzen denean,
eta hor, atzean,
oraina gelditzen da,
geroan ezerezturik,
dena hitzetara murrizturik.

## Hitza hitz, geroa orain

Geroa bizi dugu orain
hitzaren bitartez.
Aurrera begira,
bidea jorratuz,
goaz orainetik gerora.
Oraina bizi behar errealitatean,
etorkizuna ordea ametsetan,
eta ez dago
errealitaterik ametsik gabe;
eta ametsak hitzak dira;
hitzak hitz soilak dira orainean,
oraineko geroaren hitz soilak.

## Oraina gerotuz

Geroa orainean lore den
fruitua da;
lorea lore izateari utzi
eta fruitu bihurtuko da,
nahiz handi,
nahiz txiki,
nahiz sano,
nahiz ustel,
denborak lorea fruitu egingo du;
ez inork, ez ezerk
ezingo du ekidin lorea fruitutzea;
ez inork, ez ezerk
ezingo du eragotzi
oraina gero bihurtzea.

**Geroa erotuz**

Bizitzak aurrera egingo du;
zaharrari, agur,
berriari, kaixo.
Dena ezberdin izango da,
zaharra iragana
eta gaztea etorkizuna.
Zaharrik gabe ez dago gazterik,
baina gaztea ez da zahar;
geroa ez da zaharrentzat
gazteentzat baizik.
Baina lehena baztertzen duen gazteak
etorkizuna baztertzen du,
geroa erotuz,
iragana bakarrik gelditzen baita,
orainean eta geroan
hitz hutsa dena,
ezerezaren pare dena.

**Hitza hitz**

Gizonaren ahotan,
hitza hitz;
eta ametsak amets.
Hitza da
geroa eraikitzeko zutabea,
baina hitza, hitz huts denean,
ezereza da.
Hitzak balio izateko,
ekintzez eraiki behar da
etorkizuna,
hitzean oinarritutako ekintzez.

**Orainaren hitza da geroa,
geroaren oraina hitza;
hitza hitz, geroa orain.
Oraina gerotuz,
geroa erotuz,
hitza hitz.**

# Kristalezko leihoak

Miren Rubio Iturria
Talaia institutua
Hondarribia

*Zentzurik baldin badu*

Bizitzak
zentzu bakarra daukala
erakutsi didate:
zentzurik ez izatea;
eta galdurik egotera
kondenatu naute,
abstrakziozko harresien artean.
Jada,
zuhaitzaren sustraiak ez dira neureak,
ezta ilargiaren argia neure azala,
eta bizitza akabatzea ere
zentzugabe bihurtzen da;
ez dit ezer ematen
ezta ere ezer kentzen.
Lur azpian zenbait desio,
zenbait malko, zenbait jainko
soilik ezkutatzen ditu;
baina ez dira hildako altxorrak,
etendako hondakinak, besterik ez.
Eta euren gainean neure bizitza,
bizitza bada,
denboraren jantziak
erantzi nahian
biluzik ikusten garen ispiluen kontra;
baina bizi naiz,
bizi gara,
eta hori da uler dezakegun gauza bakarra,
bizitzaren zentzua
zentzurik ez izatea dela.

### *Ilun dago*

Eta gela ilun dago,
beltz-beltz
lore idorrez beteta,
ñirñirka bizirik iraun
nahi duen
bonbilla zahar baten
dantzen azpian.
Eta, paf!
hil egin da argia
Eta, tap!
bihotza itzalia.
Eta gela ez dago ilun,
ezta beltz ere,
gela jada ez da gela,
zerrautsa,
esperantzarik gabea.

### *Gerrako alabari*

Negar egizu,
emakume,
hirurogeita zazpi urte
ez baitira nahikoak,
bihotzeko uzkurdurak
begiak erre
ez diezazkizun.

Eta, negar,
negar egiten du
begiak dirdiraka
eta eskuak estututa
oroitzapeneko
aita haren,
mutil haren,

errugabe haren
agur mutuak
oraindik ziztatzen duenean.

Eta negar egiten du
hirurogeita zazpi
urteetan zehar
iraun duten
hilerrietako paretetako
ebakien aurrean.
Eta gogoan iraun duten
fusil oihartzunek
taupadetan
eztanda egiten dutenean.

Negar egizu,
emakume,
itotako hats baten
oinazea
ez baitu denborak eraman.

Negar egizu,
amona,
negar egizu.

Eta negar egiten du,
nire eskuari helduta,
zimurren azpian
saminez betetako
malko lehorrak
ezkutatzen dituenean,
sufrimenduarentzat
hirurogeita zazpi urte
sekula
ez baitira nahikoak.

# Ezinaren malkoa edo ezjakintasunaren negarra?

Miren Beramendi Britt
Orereta ikastola
Errenteria

Nire samina,
lore itxia,
mugimendurik gabeko zuhaitza,
beharraren ezina.
Nola lagundu bestea,
nire irriak
sasietako erreinua
ezagutu badu?
Egitearen ekintza soila
ez da nahikoa,
irriaren hegalak banatzeko.

Malko bat...

Mugen arteko ezjakintasuna.
Guztion itzalaren nagusitasuna.
Kontrolik gabeko abiadura.

Bi malko...

Beharra daukat,
norbaiten beharra ez,
bere beharra.
Baina...
Nor da bera?
Ezpainik gabea,
bere eskuetatik atera da hazia,
hazi fededuna
eta leuna.
Eskuetatik irrist eginean
dator samina,
hotzikarez betea,
gertutasunetik at.
Baina...
Zergatik irrist egin?

Ezinean atera da lorea,
baina atera da,
ez da nire malkoetan
murgildurik egon beharrik.

Hiru malko...

Nork eramango du
urruntasunaren zama?
Tamalez,
lorearen errainuak
kolore eta
dastamen desberdinetatik
igaro behar du,
isilean,
fedean,
basoetako hozkirriaren usaina hartuz,
ingurukoen lore-sorta
jasoz,
etsipenaren fereka
sentituz.
Maiz pausatuz,
azkartuz,
oinazearen gertutasuna hautemanez.
Zenbatuz
lorea ugertu ez dadin,
pausoa aldatuz gero
haizearen norabideak
ez du zentzurik
ezta doinurik ere.

Lau malko...

Nola dantzatu
biderik ez bada?

Irrintzia botatzeko
indarrik ez bada?
Itsaso isila,
arroka bakarra,
gaueko gorria,
malkoaren negarra.
Jada ez dago doinurik bidean,
ezta gizakiak
bere enborreko zirrikituetan.
Non gelditu da dena?
denon euskarria erre al da?

Bost malko...

Ahaleginean suspertuz...

Ito naiz.

# Iraultza

Amaia Aranzeta Zubeldia
R.M. Zuazola-Larraña institutua
Oñati

Zutik nirauen babes bila,
eskuak odolduak, bihotza sumindua;
baina, hala ere, nik zutik nirauen.
Zutik nirauen baso erdian,
zutik eta ahul, ozeanoko olaturik garaienean.

Zutik nirauen makilakadak eman zizkigutenean,
zutik, ia hilotz bat legez.
Zutik nirauen errepide malkartsuan zehar,
oinutsik;
zutik, oinaze lazgarri haren erdian,
zutik, kristalez beteriko gorpuan.

Zutik nirauen ortzi zabala ilundu zenean;
zutik, eguzkia itzali zenean;
izarrak galdu, ahotsa isildu,
begiak itsutu eta arima mindu.
Baina ez! Nik zutik nirauen, nahiz eta zapaldua izan.

Zutik nirauen etxe ondoan;
zutik, aitaren argazkia nekusanean.
Zutik nirauen ama laztantzean eta
nire maitearen muxuak berreraikitzean.
Zutik nirauen nire zelaietan,
nire mendietan,
nire herrian.

Zutik nirauen leihotik at begiratzean,
zutik karriketako biolentzia guztia irenstean.
Zutik nirauen amonaren etxera abiatu eta
ateak itxirik ikustean.
Zutik nirauen amona hil zutela erran zidatenean.
Zutik, nire amona gajoa nire barruan sentitzean.

Zutik, zutik eta zutik mundu ankerraren erdian.
Zutik eta inoiz makurtu gabe, goibel,
beldurrez... zutik.
Hankak ikaraz, hatzak urduri.
Besoetan indarrik ez
eta behatzak ebakirik.

Zutik nirauen, zintzurretatik behera
tira egin zigutenean;
zutik nirauen odola jariatuz,
listua botaz,
hautsa astinduaz.
Zutik nirauen, ezereza bihurtzean;
nire penetan murgiltzean;
nire malenkonian, nire nostalgian, nire saminean.

Zutik, utopia batean galdurik;
Zutik, ahul eta bakarrik.
Zutik nirauen, gaixo, ezinegonaz dardarka;
zutik, zure aldamenean egon ez arren;
zutik, galdu zintudala jakin nuenean;
zutik, orainean, etorkizunean, iraganean;
zutik, guztia beltz denean eta zuri-kolorea
jada ahaztua nuenean.

Zutik nirauen eta zutik iraungo dut,
nahiz gertu egon edo urrun,
borrokatuko dut eta defendatuko dut, zutik,
nire zelaietan,
nire mendietan,
nire herrian.

Egunero ohi dugun bezala,
zutik irabazi arte
maitasuna, bakea,
askatasuna,
adiskidetasuna...
mundu ederrago bat.
Gauero ohi dugun bezala,
zutik irabazi arte,
ametsak egia bihurtu
eta irrikaz beterik
hegan egin dezagun... noraezean.

Gaur bezala,
irabazi arte,
larre berdeak,
loreak eta zuhaitzak.
Bihar bezala,
irabazi arte,
itsasoa, hondartza
eta kresal-usain heze, garbia.

Gure aurrekoek ohi zuten bezala,
ohore, ausardia eta kemenaz.
Ikus itzazue, mendizaleok,
bertako mendi tontorrak,
eta kanta ezazue,
abestiak dioen legez;
eguzki galdatan,
euri tanten pean,
nire lagunekin,
nire adiskideekin...
gure herrian.

Norbaitek, orain dela asko,
negar-tantak
utzi baitzituen, tan-tan-tan-ka,
nire begietatik
erortzen eta...
norbait hori oraindik ezezaguna
izanen da niretzat.
Nahiko nuke berriz, tan-tan-tan-ka,
nire malko garraztuak
nire begietara itzultzea,
eta zapore gazia geratzea
nire ahoan,
nire bihotzean,
nire barruan.

Horrela, gozo gazia izanen baita
nire zainetatik doakidana,
eta gozo gazi hura
eramanen dut nire ahotik,
nire bihotzetik,
nire barrutik, kanpora.
Gozo gazi bihurtu dadin
ni zutik hazi,
ibili eta mantendu nauena,
nire zelaietan,
nire mendietan,
nire herrian:
gure Euskal Herria.

# Aitona

Maitane Gabiria Mauleon
Garaialde lizeoa
Urretxu

1) Argazki batean hor zauzkat,
irribarretsu niri begira,
aspaldi joan zinen
nire ondotik urrutira.
Egun hartatik zu ikustea
ez dut besterik desira.
Gure artean ez zaudenetik
hamazazpi urte joan dira.

2) Gau ilunean, kalean,
begiratzen dut ilargi erdira,
nabaritzen dut pare-parean
zure begien dirdira.
Ohean nagoenean, nire barnean
ideiak jira ta bira,
aizu, aitona, zauden lekutik
nolakoa da ikusmira?

3) Gau eta egun, goiz ta arratsalde,
ni nabil zutaz pentsatzen,
gu bion nahiak
benetan bete daitezen,
erantzun gabe dauden galderei
beren erantzuna bilatzen.
Isil-isilik nago ni eta
ez didazu erantzuten.

4) Poliki-poliki zu nire ondotik
ari zatzaizkit aldentzen;
zure ondora joan nahi nuke,
presarik gabe lehenbailehen.

Gure arteko kate guztiak
ari zaizkigu puskatzen,
ta gure harreman ona
ari zaigu bioi amaitzen.

5) Onartu behar dut zu hor zaudela,
eta ni nagoela hemen.
Zutaz oroitzen naizela ikusteak
ez al dizu pozik ematen?
Berriz ikusten garenerako
egon zaitez ni itxaroten,
saiatu zaitez zure ondoan
leku bat niri gordetzen.

6) Kontu tristeak biharko utziz
hasi nadin gaur alaitzen.
Zurekin berba egiteak dit
bihotza niri lasaitzen,
ta baita ere ene gorputza
benetan bare mantentzen.
Gustatuko litzaidake egun guztiak
horrelakoak izan zitezen.

7) Amets polita eduki dut bart
ta politagoa eguna,
aitona, zu zarelako
niretzat behintzat laguna.
Lasaitzen nauen ahots hori da
niretzako ezaguna.
Oroitzen zara momentu horietan
guk bizi izan genuenaz?

8) Momentu tristeak ditudanean
zutaz asko oroitzen naiz,
horrelakoetan nire burua
betetzen dut gauza alaiz;
triste jartzea ez dela ona
ea konturatzen naizen garaiz!
Ni, nire ustetan,
neska alaia bainaiz.

9) Agur, aitona, lotara noa,
baldin banaiz ni lokartzen,
ea hurrengo batean garen
nire ametsetan aurkitzen
edo bestela hor nonbaiteko
beste txokotxoren baten!
Ez hasi, gero, gure kontu hau
beste inori kontatzen!

10) Egunero egiten dut amets
nire desirak bete daitezen.
Ea horrela den ta
betetzen diren ahalik eta azkarren!

# POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Paperezko hegazkinak biribil ezabatuan

Alots Arregi Izagirre
Ikasberri ikastola
Azpeitia

Aspertzen hasia naiz,
aspertua naiz.
Denborari
ezin diot ihes egiten utzi,
ezin diot utzi,
ezta nahita ere.
Denborak
ez baitu irteerako aterik,
nire gibelean.
Gatibu daukat
hezurrezko kaiola hutsean,
ziega hotzean.

Begiak
hamazortzigarren
baldosan utzi ditut,
atzo gauean
ilargiak margotu zuen
biribil ezabatua
han balego legez.

Sentitu erlojuaren orratzak.
Naufrago dabiltza
itsaso beltzean.
Arrantza-ontziak,
itsaso azpira,
area bustiaren ondora,
ihes egin zion.
Nonbait,
ez zuen atsegin
kresala
haizeak

bere aurpegian
narratzen zuen
maitasun-nobela bat izatea.

Airean,
hegan dabiltza,
paperezko hegazkin zuriak.

Irentsi,
tabakoaz zikindua dagoen
listua.
Emeki,
eztarria zulatuz,
gibelera
iritsiko da,
eta bihar goizean,
eguzkiaren printzek
zabalduko dute
preso dagoenaren
notizia.
"Hezurrezko kaiola hutsean,
ziega hotzean,
aspertzen hasia naiz
eta ezin diot
tabakoz lizunduriko
listuari
ihes egiten utzi."

# Belaunpe konprimituetako autobus geltokiak

Alots Arregi Izagirre
Ikasberri ikastola
Azpeitia

Depresioak,
deprimitu barik,
konprimitu egiten nauela esango nuke.
Eta elur maluta
errari bat legez,
autobusera sartu
eta azken eserlekuraino
joaten naiz.
Hankak
belaunpetik heltzen ditut,
eskuin eskuak
ezker eskuko hatz lodia
sostengatzen duelarik.
Kanpora begira barrukoa ikusiz.
Ordu bat eta bi ordu,
bizitzako "STOP"ean
zain.
Joan-etorriak eta etorri-joanak,
datozen zuhaitzak
eta doazen zuhaitzak,
inora joan barik,
leku orotatik ihes.

Eta bidean eginiko
2002 ametsetatik esnatzean,
denbora,
gelditu izan balitz bezala,
autobusetik jaitsi
eta guztia
lehen bezala dagoela
ohartzen naizenean,
berriro,

nire bakardadean
isolatzeko
gogoa etortzen zait.

Berriro,
amaigabea den
bidaia luze
eta labur
horretan jarraitzeko
gogoa.
Amaiezina dena
neurtu ezin delako,
amaigabea da
bidaia handi
eta txiki hau.
Noraezean doazen
zuhaitzekin,
noraezean noa ni
hurrengo geltokiraino.
Hurrengo geltokiraino
egingo dudana,
orain arte
egin dudana
izango delarik.

# Ez dut esnatu nahi

Itxaso Paya Ruiz
San Nikolas ikastola
Getxo

Beti oskarbi zegoen zeru
zabaleko eguzkia,
burutik ezin ken dezakedan
Su Ta Garren abestia
zein elkarrekin jaten genuen
marrubizko izozkia,
zubipeko argazkia...
gogoan daukat guztia,
aiztoarekin grabatutako
mendateko gorostia...
Orain, ordea, zein garratza den
oroitzapenen eztia.

Gaua zurekin bukatzen nuen,
zurekin hasi eguna,
zu zinen nire zalantza denek
behar zuten erantzuna,
printzesa eder sentitu nendin
zaldi zuriko zalduna,
maitale eta laguna,
nire minen erruduna.
